



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
j; Garcia Ximenez 36 - 31800



2024. URTEKO ORDENANTZAK

Hasierako onespeneren argitalpena: 231. NAO, 2023-011-07koa
Behin betiko onespeneren argitalpena: 4. NAO 2024-01-05
Zerga-tasak: 231. NAO, 2023-11-07koa

ALTSASUKO UDALA
OGASUN SAILA



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
j; Garcia Ximenez 36 - 31800



ORDENANTZA FISKAL OROKORRA

- 1. ORDENANTZA-** Ur hornidura eta hustuketaren tasak arautzen dituen ordenantza fiskala.
- 2. ORDENANTZA-** Estolderia zerbitzuak egiteko tasak arautzen dituen ordenantza.
- 3. ORDENANTZA-** Agiriak luzatu eta tramitzeko tasak arautzen dituen ordenantza.
- 4. ORDENANTZA-** Herri larreen aprobetxamendu ordainduen tasak arautzen dituen ordenantza fiskala.
- 5. ORDENANTZA-** Udalaren makineria, ibilgailuak, lanabesak eta bestelakoak uzteko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza.
- 6. ORDENANTZA-** Ordezko beteazpenetarako eta betearazpen aginduetarako tasak arautzen dituen.
- 7. ORDENANTZA-** Erabilera publikoko lurretan zangak irekitzeko eta eremu publikoko zoladuran edo espaloietan edozein mugimendu egiteko tasak arautzen dituen.
- 8. ORDENANTZA-** Zerbitzu publikoak ustiatzen dituzten enpresek eremu publikoko eta herrilurretako zoru, hegalkin eta zorupeko aprobetxamendu berezien prezio publikoak arautzen dituen.
- 9. ORDENANTZA-** Eremu publikoko eta herrilurretako zoru, hegalkin eta zorupeko aprobetxamendu berezien tasak arautzen dituen.
- 10. ORDENANTZA-** Jarduera sailkatu eta kaltegabeetan aritzeko eta jarduerak eskualdatzeko lizentziaren tasak arautzen dituen.
- 11. ORDENANTZA-** Ibilgailuak espaloietan barna sartzeko eta eremu publikoa aparkaleku eskusiborako edo edozein motatako salgaien zamalanetarako erreserbatzeko tasak arautzen dituen ordenantza fiskalarena.
- 12. ORDENANTZA-** Lizentziak eman eta hirigintzan bestelako jarduketak egiteko tasak arautzen dituen.
- 13. ORDENANTZA-** Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.
- 14. ORDENANTZA-** Hilerria erabiltzeko tasak arautzen duen ordenantza fiskala.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
j; Garcia Ximenez 36 - 31800

16. ARAUA- Udal ludoteka zerbitzua erabiltzeko tasak arautzen dituen ordenantza.

19. ARAUA- Udalaren lokalak erabiltzeko prezio publikoak arautzen dituena.

20. ARUA- Kamioientzako aparkalekua erabiltzeko prezio publikoak finkatzeko eta kontzeptu horren gaineko prezioak ezartzeko araua.

21. ARAUA- Sarrera, izen-emate eta/edo matrikulak egiteko prezio publikoak, Udalak antolatzen dituen kultur, kirol edo gizarte arloko programa eta jardueretan.

22. ORDENANTZA- Altsasuko mendiko pisten eta bideen erabilera arautzen duena.

23. ORDENANTZA- Animaliak jasotzea, zaintzea eta elikatzea arautzen duena.

24. ORDENANTZA. Ibilgailuak eremu publikotik kendu eta ondotik altxatzeko zerbitzua emateko eskubide eta tasak arautzen dituena.

25.ORDENANTZA. Altsasuko udalaren Lur-Ondasunen gaineko kontribuzioaren zergaren karga-tasa eta aukerako hobariak arautzen dituena.

26.ORDENANTZA. Ordenantza fiskala, tasak arautzen dituena herrko jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egiteko, energia elektrikoa garraiatzeko eta banatzeko instalazioentzat, gasbideentza eta bestelako hidrokarburoentzat.

27.ORDENANTZA. Ordenantza fiskala, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duena.

28.ORDENANTZA. Etxebizitza hutsen gaineko zerga arautzen duen ordentza fiskala



ORDENANTZA FISKAL OROKORRA

1. ARTIKULUA. PRINTZIPIO OROKORRAK.

XEDEA

1. ARTIKULUA.- Honako ordenantza fiskal orokor honen xedea da udalerrri honetako zerga araubidea osatzen duten ordainarazpen guztiendako arauak eta oinarri orokorrak finkatzea. Ordenantza honen arauak ordenantza partikular bakoitzaren osagarritzat hartuko dira, azken horiek berariaz arautzen ez duten orotan.

ZERGAREN OROKORTASUNA ETA INTERPRETAZIO MURRIZTAILEA

2. ARTIKULUA.- Tokian tokiko ordenantza fiskalek eta honako ordenantza honek ere agintzen duen bezala, zergak ordaintzeko obligazioa guztiona da, eta indarra duten Xedapenetan zehatz-mehatz ezarrita dauden ordainarazpen, beherapen edo hobariak baizik ez dira aplikatuko. Ez da analogiarik onartuko, zergagaiaren edo aipatu ordainarazpen, hobari edo beherapenen esparrua horien adierazpen zehatzek adierazten dutenetik areago zabaltzeko.

APLIKAZIO EREMUA

3. ARTIKULUA.- Ordenantza fiskalak udalerrri osoan aplikatuko dira.

II. KAPITULUA. ZERGA HARREMANAREN ELEMENTUA

ZERGAPEKO EGITATEA

4. ARTIKULUA.- Zergagaia izaera juridikoa edo ekonomikoa duen betebeharra da, ordainarazpen bakoitza finkatzeko behar den ordenantzan zehaztutakoa, eta hura gauzatzeak zergak ordaintzeko beharra sorrarazten du.

Ordenantza fiskal partikular bakoitzak zergagaia zehaztuko du eta horretarako, besteak beste, horren menean ez egoteko arrazoiak eta zerga ordaindu beharra zer baldintzatan sortzen den aipatuko ditu.

SUBJEKTU PASIBOA

5. ARTIKULUA.- A) Subjektu pasiboa pertsona natural edo juridikoa da, zeina, ordainarazpen bakoitzari buruzko ordenantza partikularri jarraikiz, zergak ordaintzera beharturik baitago, zergadun gisa nahiz zergadunaren ordezkari gisa.

Zergaduna pertsona natural edo juridikoa da, zeini ordainarazpen bakoitzari buruzko ordenantza partikularrak zergagaiari darion tributu karga ezartzen baitio, bakarka edo beste batzuekin batera.

Zergadunaren ordezkaria izanen da foru legeak hala aginduta eta haren ordezkari tributu obligazioaren prestazio material eta formalak egitera beharturik dagoen subjektu pasiboa.

B) Subjektu pasibotzat hartuko dira, halaber, jaraunspen banatugabeak, ondasun komunitateak eta gainerako entitateak, zeinek, nortasun juridikorik ez izanik ere, unitate ekonomiko bat edo ezarpena jar dakioken berezitateko ondare bat, osatzen baitute.

ZERGA HARREMANAREN ALDAEZINTASUNA

6. ARTIKULUA.- Subjektu pasiboaren eta zerga betebeharraren gainerako elementuak ez dira partikularren egintza edo hitzarmenen eraginpean aldatzen ahal.

Egintza eta hitzarmen horiek ez dute eraginik izanen udal administrazioan, berekin dakartzaten ondorio juridiko-pribatuak ukatu gabe.



EGOITZA FISKALA

7. ARTIKULUA.- Zerga ondorioetarako helbidea pertsona naturalentzat ohiko bizitokia izanen da; pertsona juridikoentzat helbide soziala, betiere haren kudeaketa administratiboa eta negozioen zuzendaritza bertan zentralizaturik badago. Bestela, kudeaketa edo zuzendaritza horiek dauden tokira joko da.

Udal administrazioak subjektu pasiboari eskatu ahalko die haien zerga helbidea deklaratzeko. Subjektu pasibo batek helbidea aldatzean horren berri eman beharko dio Zerga administrazioari, horretarako eginiko aitortpenaren bidez, eta helbide aldaketak ez du ondoriorik izanen administrazioari dagokionez zerga aitortpen hori aurkezten ez den bitartean. Administrazioak subjektu pasiboaren zerga helbidea zuzendu ahalko du behar den egiaztapena eginez.

KARGA OINARRIA

8. ARTIKULUA.- Karga oinarritzat hartuko da:

- a) Zergagaia ezarpen modulutzat kalifikatzea, tributu zorra kopuru finkotan mugatzen denean.
- b) Zergagaiaren kopuru, pisu edo neurri unitateen multzoa. Unitate horien gainean ezarriko da tarifa egokia, tributu zorra zehaztera iristeko.
- c) Zergagaiaren balorazioa diru unitateetan, udal administrazioak kontuan hartutakoa. Horri buruz, eta kasu bada, behar diren murriztapenak egin ondoren, tasa egokia aplikatuko zaio tributu zorra zehaztera iristeko.

9. ARTIKULUA.- Zenbait ordainarazpenen kasuetan errolda, matrikula edo erregistroa eginen da, beren izaera dela eta zergagaiak behin baino gehiagotan gertatzen direnean.

III. KAPITULUA TRIBUTU ZORRA

KUOTAREN ZEHAZTAPENA

10. ARTIKULUA- Kuota honela zehaztuko da:

- a) Ordenantzan ezarpen modulu gisa seinalatutako kopuru finkoaren arabera.
- b) Ordenantza partikularretan ezarritako tarifak karga-oinarriaren gainean aplikatuz.
- c) Ezarpen oinarriaren balioari dagokion karga tasa proportzional edo progresiboa.
- d) Oro har, kontribuzio berezietan, ordaintzera beharturik dauden guztientzat, interes partikularren egozten zaizkion obra eta instalazioen kostuaren ehunekoaren arabera, kuota osoa subjektu pasiboaren arten nork berea ordaintzeko banatuko da, dagokion ordenantzan finkatutako moduluei jarraikiz.

SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

11. ARTIKULUA- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legean eta Nafarroako Foru Parlamentuak onetsi edo onesten dituen gainerako arau aplikagarrietan xedatutakoari lotuko zaio.

TRIBUTU ZORRA

12. ARTIKULUA- Tributu zorra subjektu pasiboak udal administrazioari zor dion kopurua da. Kopuru horretan tributu zorra sartzen da eta, kasu bada, honako kontzeptu hauek gehitzen zaizkio:

- a) Oinarrien edo kuoten gainean legez ezarri daitezkeen errekaragua.
- b) Berandutzagatik korritua, Nafarroako Ogasunari zor zaizkion kopuruetarako zehaztutakoa. Zehazturik ez badago, Espainiako Bankuaren oinarritzeko korritu tasa aplikatuko da.
- c) Gerorapen edo luzapenagatik errekaragua.
- d) Premiamenduzko errekaragua.
- e) Zerga izaera duten diru-zehapenak.



ERANTZUKIZUNA TRIBUTU-ZORRA ORDAINTZEAN

13. ARTIKULUA.- Zergagaian bi edo titular gehiago batera agertzen badira, obligazio solidarioa dute udal ogasunarekiko. Subjektu pasiboekin batera ordainarazpen bakoitzaren ordenantza partikularrak beste erantzulerik badela deklaritzen badu, subjektu pasiboekiko izaera nagusi edo subsidiarioaz, ulertuko da nor bere graduaren barrenean delarik, betiere erantzukizuna solidarioa dela.

14. ARTIKULUA.- Partaidekideek edo titularkideek, entitate juridiko edo ekonomikoen kide diren aldetik, solidarioki erantzun beharko dute, aipatu entitateen tributuo obligazioetan bakoitzak duen partaidetzaren arabera.

15. ARTIKULUA.- 1. Pertsona juridikoez egindako arau-hauste arin, omisiozko eta iruzurrezkoen erantzule izanen dira subsidiarioki horien administratzaileak, asmo txarrez edo axolagabekeriak, hautsitako tributuo obligazioak betetzeko beren ardurapeko egintza beharrezkoak egiten ez badituzte, edo beraien menpeko direnek egin behar dutena ez egitea onartzen badute, edota arau-hauste horiek sorrarazten dituzten erabakiak hartzen badituzte. Era berean, haien jardueri utzi dieten pertsona juridikoez bete gabe dituzten tributuo obligazioen erantzukizun subsidiarioa haien administratzaileek izanen dute.

2) Sozietate edo entitateen administratzaileak, sindikoak, sozietate edo, orohar, entitateen kontuhartzaileak, porrot edo lehiaketan likidatzaileak, zorpidetutako tributuo obligazioak erabat betetzeko beharrezko diren gestioak egiten ez badituzte, entitateari dagokionean izaera subsidiarioz eurak izanen dira erantzule, duten gradua ikusirik eta era solidarioz.

16. ARTIKULUA.- Tributuo obligazioen erantzule solidario izanen dira, obligazio horiek zuzenean ukitu ez arren, iruzur gisa kalifikatzen diren zerga arloko arau-hausteetan gezur bidez eragile diren edo era berean zuzenki eta garrantzi handiz subjektu pasiboarekin lankidetzan ari diren guztiak.

17. ARTIKULUA.- 1) Erantzukizun subsidiarioa eskatu ahal izateko, nahitaezkoa da subjektu pasiboaren ordainezintasuna alde aurretik deklaratzeko, aitorten horren aurretik bidezko diren arreta neurriak hartzea galarazi gabe.

2) Administrazio egintza erantzule subsidiarioei iraganarazteko, alde aurretik administrazio egintza beharko da, arauari jarraikiz jakinaraziko dena, une hartatik aurrera subjektu pasiboaren eskubideen jabe eginen direlarik.

TRIBUTU ZORRAREN IRAUNGIPENA

18. ARTIKULUA.- Tributuo zorra iraungiko da:

- a) Ordaindu edo bete delako.
- b) Preskripzio bidez.

19. ARTIKULUA.- Udal ordainarazpenen ordainketa, bitarte, modu, era, epe eta eragiten dituen gainerako alderdiei dagokienez, indarra duen legerian dirubilketaren gainean ezartzen diren aginduen bidez arautuko dira.

20. ARTIKULUA.- Bost urteren buruan preskribatuko dira ondoko eskubide eta ekintzak

a) Subjektu pasiboaren alde:

-Tributuo zorra likidazioaren bidez zehazteko udal administrazioak duen eskubidea, sortzapena egin zen egunetik kontatzen hasita.

-Likidatutako tributuo zorrak ordain daitezen galdatzeko ekintza, borondatezko ordainketarako epea akitzen den egunetik kontatzen hasita.



-Tributu zehapenak ezartzeko ekintza, arau-hauste bakoitza egin zen egunetik kontatzen hasita.

b) Administrazioaren alde, jaso behar ez ziren dirusarrerak itzultzeko eskubidea, sarrera egin zen egunetik kontatzen hasita.

21. ARTIKULUA.- a) Aurreko artikulua a) atalak aipatzen dituen preskripzio epeak eten egiten dira:

-Subjektu pasiboa formalki jakinaren gainean izanik, zergagai bakoitzagatik zorpidetutako ordainarazpenaren aitorpena, arautzea, ikuskapena, segurtasuna, egiaztapena, likidazioa eta dirubilketa erdiesteko burututako edozein ekintza administratiboren eraginez.

- Edozein motatako erreklamazio edo errekurtsoen aurkezpenaren bidez, baldin eta, udal administrazioari berari egotzen ahal zaion erru adela medio, administrazio horrek ebazpenik ematen ez badu hartarako ezarritako epearen barrenean, preskripzio epea berri zere hasik oda kontatzen aipatu epe hori iragandakotzat jotzen den unetik aurrera.

-Tributu zorra ordaindu edo likidatzeko subjektu pasiboak egiten duen edozein jarduketagatik.

b) Aurreko artikuluko b) atalaren kasuan, preskripzio epea eten egiten da dirusarrera ez-zilegia itzultzea nahi duen subjektu pasiboaren edozein egintza fedemaileraren bidez, edo horrelakorik badela aitortzen duen udal administrazioaren edozein egintza dela medio.

22. ARTIKULUA.- Preskripzioa ofizioz aplikatuko da, subjektu pasiboak eskatu edo salbuetsi beharrik gabe.

23. ARTIKULUA.- Subjektu pasiboaren eta gainerako erantzuleen ordainezintasun egiaztatua dela eta, kitatu ezin izan diren tributu zorrak behin-behinekoz iraungizat deklaratu dira, preskripzio epearen barnean birgaitzen ez diren bitartean. Epe horretan zorra birgaitzen ez bada, behin betiko iraungita geldituko da.

IV. KAPITULUA TRIBUTUEN ARLOKO ARAU-HAUSTEAK ETA HAIEN KONTRAKO ZEHAPENA

TRIBUTUEN ARLOKO ARAU-HAUSTEAK

24. ARTIKULUA.- A) Tributuen arloko arau-hausteak dira Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legean, ordenantza fiskaletan eta udalerrri honen Ogasuna arautzen duten gainerako xedapenetan tipifikatutako ekintza edo omisioak, borondatezkoak eta legeen kontrakoak.

B) Tributuen arloko arau-haustea den edozein ekintza edo omisio, kontrako frogarik izan ezean, borondatezkotzat hartuko da.

25. ARTIKULUA.- Arau-hausteak izan daitezke:

- a) Arau-hauste soilak.
- b) Arau-hauste larriak.

ARAU-HAUSTE SOILAK

26. ARTIKULUA.- Tributuen arloko arau-hauste soilak zerga betebeharrak oker gauzatzea beste tatxarik ez duten egintza edo omisioak dira. Hauexek dira arau-hauste horiek:

a) Zergadunei galdatutako aitorpenak epez kanpo aurkeztea, baldin eta administrazioaren errekerimendurik tartean izan ez bada.

b) Udal administrazioak eskatutako datuak, txostenak, aurrekinak eta frogagiriak bere garaian ez ematea.

c) Udal administrazioak datuak egiaztatu eta ikertzeko egiten dituen ekintzei eragozpenak jarri, uko egin edo galaraztea.

d) Udalaren gestio ekonomikoari lagun egiteko betebeharrak orokorrari muzin egitea, hala subjektu pasiboen aldetik nola tributu zorrarekin zerikusirik ez duten hirugarrenen aldetik ere.



- e) Lehenago legez erabiliak izan diren efektu tinbredun, prezintu eta antzekoak birgaitzea.
- f) Ondoko artikuluan aipatzen diren egintza edo omisioak, Udal Ogasunarendako kalte ekonomikorik gertatzen ez bada.
- g) Ordainarazpen bakoitzaren ordenantza partikularretan orokorrean aurrikusitakoak.

OMISIOZKO ARAU-HAUSTEAK

27. ARTIKULUA.- Tributuen arloko omisiozko arau-haustea dira udal administrazioari, osorik edo partzialki, zergagaiaren egiaztapena, edo horren karga oinarriaren zenbateko zehatza ezkutatzeko asmoz gauzatzen diren egintza edo omisioak, era hauetan:

- a) Interesdunek ordainarazpen bakoitzaren kasuan indarra duten arauen arabera eskatu ahal diren aitorpenak ez aurkeztuz.
- b) Aitorpen faltsuak edo zehaztasunik gabekoak aurkeztuz, oker material edo egitatezkoren baten ondorio ez badira behinik behin.

IRUZUR BIDEZKO ARAU-HAUSTEAK

28. ARTIKULUA.- Iruzur bidezko arau-haustea dira, edozein kontzeptu dela eta, zergadunak edo haren legezko ordezkariak dagozkion kuotak edo likidazioak hein batean edo osorik ez pagatzeko asmoz gauzatzen dituen egintzak edo omisioak, beti ere hauetako inguruabarren bat gertatzen baldin bada:

- a) Udal administrazioak egiaztatu eta ikertzeko egiten dituen ekintzei zailtasunak jarri, uko egin edo oztopatu izana.
- b) Subjektu pasiboaren aldetik gezurra edo asmo txarra badela frogatu izana.
- c) Egokitzen diren ordainarazpenei buruz kontabilitate edo erregistroen arloko okerririk izatea.
- d) Bajako aitorpen faltsua aurkeztu izana.
- e) Arau-hauste horretan berrerorle izatea.
- f) Egintza edo omisioaren izaera dela eta, izaera horrekin aurrikusiak izatea ordainarazpen bakoitzaren ordenantza partikularretan.

29. ARTIKULUA.- Berrerorletzat hartuko da, arau-hauste berriaren aurreko bost urteen barrenean ordainarazpen berean ebazpen irmoaren bidez eta modalitate nahiz kontzeptu berberetatik omisio edo iruzurrean erori den subjektu pasiboa. Era berean, berrerorletzat hartuko da, arau-haustea egiten duen momentuan hondarreko hamar urteetan ebazpen irmoaren bidez eta modalitate nahiz kontzeptu berberetatik omisio edo iruzur egiteagatik hiru aldiz zigortuta egon baldin bada.

ZEHAPENAK, ARAU-HAUSTE ARINAK EGITEAGATIK.

30. ARTIKULUA.- Arau-hauste soilak 6,00 eurotik 900 euro bitarteko isunekin zehatuko dira, omisio edo iruzur egiteagatik jar daitekeena gehituz.

31. ARTIKULUA.- Entitatea bere eskumenak erabiltzen ari dela ikuskapena egin eta hari kontra, uko edo traba egiten bazaio, 300,00tik 6.000,000 euro bitarteko isuna ezarriko da.

ZEHAPENAK, ARAU-HAUSTE LARRIAK EGITEAGATIK.

32. ARTIKULUA.- Tributu arloko arau-hauste larriak diruzko isun proportzionala jarriko zaie, kuotaren zenbatekoaren % 50etik % 150era bitartekoa, eta Toki Ogasunein buruzko 2/95 Foru Legearen 97. artikuluan jasotzen den gutxitzea deusetan galarazi gabe. Orobat, zilegi izanen da berandutza korrituak eskatzea borondatezko epea bukatzetik zerga-egoera bereonertzen duen likidazioa egiten den egunera arte pasatuko denboraren aldera.



ZEHAPENEN GRADUAZIOA

33. ARTIKULLUA.- A) Tributu zehapenak graduatzeko, kasu bakoitzean honakoak hartuko dira kontuan:

- a) Tributu-haustea behin eta berriz egin diren.
- b) Toki entitatearen ikertze lanari kontra egitea, uko egitea edo traba egitea.
- c) Arau-hausterako maulazko baliabideak erabili diren edo hura pertsona tartearri baten bidez egin den.
- d) Aitorpenik ez aurkeztea edo aitorpen faltsu, osagabe edo zehaztugabeak aurkeztea, horrek tributu zorra gutxitzea badakar.
- e) Eginbide edo betekizun formalak beren baitatik bete dituzten ala berandutu diren.
- f) Tributuak egoki kudeatzeko zenbaterainoko garrantzia duten eman ez diren datu, txosten edo aurrekariak eta, oro har, bete ez diren eginbide formalek, diru edo erregistro kontuek, edo toki entitateari informazio eta laguntza eman beharrak.

B) Graduatzeko irizpideak batera aplikatu daitezke.

C) e) eta f) letretan aipatzen diren irizpideak arau-hauste arineko zehapenak graduatzeko baizik ez dira erabiliko. d) letran aipatzen den irizpidea arau-hauste larriko zehapenak graduatzeko baizik ez da erabiliko.

ZEHAPEN PROZEDURA

34. ARTIKULUA.- Zehapen guztiak, hurrengo zenbakian agertuko diren kontabilitate eta erregistro izaerakoak salbu, udal administrazioak ezarriko ditu, bidezko diren errekerimendu eta likidazioen poderioz.

35. ARTIKULUA.- a) Udal agintariak, kontabilitate eta erregistro arloko obligazioak ez betetzeagatik, arau-hauste soilak zehatuko dituzte, kontuan izanik arau-hauste hori eragiten duen egitatearen errepikapena eta haren garrantzia.

b) Isuna, axolagabekeria larrietan, 600,00 eurotarainokoa izan daiteke; kontabilitatearen omisioa erabatekoa baldin bada, 1.200,00 eurotarainokoa, eta faltsukeriazko kasuetan, 1.500,00 eurotarainokoa.

36. ARTIKULUA.- Isun hauek alkateak jarriko ditu, eta hala behar denean, Toki Araubidearen Oinarri buruzko Legearen 21.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz haren ordeztu ahal diren udal Organoek, isuna 600,00 eurokoa baino handiagoa ez bada.

37. ARTIKULUA.- Edozein kasutan ere, isuna jartzeko garaian espedientea irekiko da, eta hartan interesdunari entzutea emanen.

38. ARTIKULUA.- Aipatu isunak jartzeko, kasu bakoitzean, arau-haustearen larritasuna hartuko da kontuan, horietako bakoitzaren garrantzia, atzerapena formazko eginbeharrak betetzean, Udal Ogasunari egindako kalte ekonomikoa, subjektu pasiboaren asmo on edo txarra eta arau-hauste berberetan erortzea. Subjektu pasiboaren aldetik gezurra edo asmo txarra badela frogatu izana.

ZEHAPENEN BARKAMENA

39. ARTIKULUA.- Tributu arloko zehapen gisa ezarritako isunak murriztu edo bertan behera utzi ahal dira besterik gabe edo borondatezko barkamenean bidez.

40. ARTIKULUA.- a) Tributu arau-hauste soiletan isunak % 50ean barkatuko dira besterik gabe, baldin eta zehatuak, udal administrazioak galdatu gabe, bere eginbeharrak betetzen baditu, epe kanpo bada ere.



b) Omisio edo iruzur bidez egindako arau-hausteengatik jarritako isunak % 50ean barkatuko dira besterik gabe, baldin eta subjektu pasiboak edo haren erantzuleak bere adostasuna agertzen badu egiten den likidazio proposamenaz.

41. ARTIKULUA.- Borondatezko barkamenak Udaltzak emanen ditu osoko bilkuran, bere irizpideen arabera. Horretarako beharrezko izanen da aurrena subjektu pasiboek edo erantzuleek eska dezaten, bai eta barkamena eskatzen deneko tributu zehapena ekarritako likidazioa onetsi duen administrazio egintzaren kontrako inpugnazio ekintzak oro burutzeari berariaz uko egitea. Barkamen hau jasotzeko ezinbestekoa izanen da subjektu pasiboak berrerorleak ez izatea.

V. KAPITULUA. KUDEAKETA-ARAUAK

OINARRI OROKORRAK

42. ARTIKULUA.- Ordainarazpenen kudeaketan biltzen dira tributu zorra zehaztu eta haren bilketa egiteko behar diren jarduketa guztiak.

43. ARTIKULUA.- a) Ordainarazpenak kudeatzeko egintzen kontra jo ahalko da, indarra duen legeriari jarraikiz.

b) Udalaren organo eskudunek eman eta Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legean edo ordainarazpen bakoitzaren ordenantza fiskaletan ezarritako arauetan xedatutakoaren kontra doazen ebazpen administratiboak eskubide osoz baliogabetzat hartuko dira.

44. ARTIKULUA.- a) Pertsona natural edo juridiko oro, pribatu zein publikoa, Administrazioari laguntzeko betebeharragatik beragatik, beharturik egonen da, honek hala eskatuz gero, beste pertsonekin dauzkan harremanetatik datozen datu, txosten edo aurrekin guztiak, tributuen arloan garrantzia dutenak, ematera.

b) Laguntzeko betebeharratik kanpo gelditzen dira honakoak:

-Apaizak eta legeak onartutako kultuetako zerbitzariak, haien zereginak betetzean ezagututako gaiei dagokienez.

-Profesionalak, sekretu profesionalak babestutako gaiei dagokienez.

TRIBUTU KUDEAKETAREN HASIERAKO BIDEAK

45. ARTIKULUA.- Ordainarazpenen kudeaketari hasiera emanen zaio:

a) Subjektu pasiboaren aitortpen edo ekimenaren bidez.

b) Ofizioz.

c) Ikerketaren bidez.

d) Salaketa publikoaren bidez.

TRIBUTU AITORPENA

46. ARTIKULUA.- a) Tributu aitortpenzat hartuko da zergagai baten inguruabarrak edo osagaiak agertu direla adierazi edo aitortzen duen agiri oro, bai halaber zergagai bat duen edo osatzen duen agiriaren aurkezpen hutsa ere.

b) Ez da inolaz ere eskatuko zerga aitortpenak zinpekoak izatea.

c) Aurkeztean interesdunei emanen zaie horren egiaztagiria, eta horretarako aitortpenaren kopia ere erabili ahalko da.

d) Frogagiri bat aurkeztean interesdunek aurkeztu ahalko dute, horrekin batera, kopia sinplea edo fotokopia, udal administrazioak, erkatu ondotik, jatorrizkoa itzul dezan, prozedura behin betikoz ebatzi



aurretik agiria itzuli behar ez dela erabakitzen ez bada, agiri pribatua izateagatik edo legezko beste arrazoiren bategatik.

AURKEZTEKO BETEBEHARRA

47. ARTIKULUA.- Aitorpena aurkeztu beharko da ordenantza partikular bakoitzean ezarritako epeen barruan, eta orokorrean, zergaia noiz gertatzen den, harexen barruan. Epearen barruan ez aurkeztea hauste soiltzat hartuko da eta horren arabera zehatuko.

AURKEZTEAREN ONDORIOAK

48. ARTIKULUA.- a) Aitorpena udal administrazioan aurkezteak ez du zergaren jatorria onartu edo aitortzen denik esan nahi.

b) Udal administrazioak aitorpenak eska ditzake eta hauek gehitzea ere bai, eta orobat nabari diren okerrak zuzentzea, ordainarazpenaren likidaziorako eta egiaztapenerako beharrezko den neurrian.

c) Aurreko zenbakiak aipatzen dituen beharrak ez betetzea arau-hauste soiltzat hartuko da eta horren arabera zehatuko.

TRAMITATZEKO EPEAK

49. ARTIKULUA.- a) Ordenantza partikularretan tramite bakoitza burutzeko zein izanen diren bete beharreko epeak adieraziko da. Ordenantza horiek ez badituzte epeak finkatzen, orohar ulertuko da ez dela sei hilabete baino gehiago izanen administrazio prozedura hasten denetik prozedurari amaiera ematen dion ebazpena ematen den egunera arteko denbora; beti ere hori galarazteko behar bezala justifikatutako aparteko arrazoiak ez badira behintzat.

Epe hori bi urtekoa izanen da jarduketa ikuskatzailea denean.

b) Administrazioak epeak betetzen ez baditu ere, horrek ez du esan nahi administrazio ekintza iraungi egiten denik, baina, hala ere, interesdunei kexako erreklamazioa aurkezteko baimena emanen die.

c) Izapidaketa akatsen kontrako kexako erreklamazioak noiznahi egiten ahal dira, eta bereziki, prozedura geraraztea, jarritako epeak haustea edo arazoa behin betikoz ebatzi aurretik konpon daitezkeen tramiteak ez egitea dakartzatenak. Kexa ontzat hartzen bada, horretarako arrazoirik izanez gero, berarekin erantzukizuna duen funtzionariaren kontrako disziplina espedientea irekitzea ekarriko du.

IKERKETA ETA IKUSKAPENA

50. ARTIKULUA.- Udal administrazioak ikertuko ditu zergaia osatzen edo baldintzatzen dituzten gertakizun, egintza, egoera, jarduera, ustiapen eta gainerako inguruabarrak, eta egiaztatuko karga-oinarriaren balorazioa.

51. ARTIKULUA.- Ikerketa gauzatzeko subjektu pasiboaren kontabilitate nagusiaren edo laguntzailearen dokumentuak, liburuak, fitxategiak, kontu-agiriak, frogagiriak eta oharpenak aztertuko dira; era berean, ondasunen, elementuen, ustiapenen eta tributua zehazteko beharrezko den beste edozein argibide aurrekinen ikuskapena egingen da.

52. ARTIKULUA.- Subjektu pasiboek kontabilitate liburuak, erregistroak eta kasu bakoitzean eskatzen diren beste dokumentuak eraman eta kontserbatzeko obligazioa dute, bai eta ikuskapen lanetan erraztasunak emateko ere, Administrazioari zerga gaiarekin zerikusirik duten datu, txosten eta aurrekinak edo frogagiriak eskuratuz.



53. ARTIKULUA.- a) Ikuskapen jarduketak subjektu pasiboendako eragin ekonomikorik baldin badakar, aldez aurreko nahiz behin betiko diligentzia, jakinarazpen eta aurretiko edo behin-betiko akten bidez dokumentatuko dira. Dokumentu horietan ondoko hauek zehaztuko dira:

- Diligentziako pertsonaren izen-deiturak eta bertan zein izaeraz edo zeinen ordezkari den.
- Zergagaiaren eta berau subjektu pasiboari atxikitzearen funtsezko elementuak.
- Bidezko jotzen diren tributuko egoerak.
- Subjektu pasiboaren edo haren ordezkariaren adostasuna edo desadostasuna.

b) Subjektu pasiboak akta izenpetu ez, edo izenpetu arren bertan bildutako inguruabarrekiko bere adostasuna adierazten ez badu, bai eta hartarako behar bezala baimendutako pertsonak izenpetzen ez badu, dagokion administrazio espedientea irekiko da, izenburutzat aipatu akta izanen duena, eta bertan subjektu pasiboari bere alegazioak aurkez ditzan hamabost eguneko epea emanen zaio.

c) Espedienteari buruzko ebazpena handik ateratzen den likidazioan jakinaraziko da.

SALAKETA

54. ARTIKULUA.- a) Salaketa publikoaren ekintza administrazioari laguntzeko obligaziotik aparte dago.

b) Salaketa ekintza publikoa izanen da eta salatzaileak idatziz luzatu, sinatu eta berretsi beharko du, bere nortasuna kreditatu eta salatutako arau-haustearen zenbatekoaren ehuneko 10eko gordailua egin.

c) Salaketa egiazkoa suertatzen bada, salatzaileak eskubidea izanen du egindako gordailua itzultzeko.

d) Egiazkoa suertatzen ez bada, frogaketan sortutako gastuak gordailuan utzitako diruarekin ordainduko dira eta gelditzen dena Udaleko Kutxan sartuko.

ORDAINARAZPENEN LIKIDAZIOA

55. ARTIKULUA.- a) Zerga-oinarriak zehaztu ondoan, kudeaketak jarraituko du likidazioa eginez tributuko zorra finkatzeko. Likidazioak behin-behinekoak edo behin-betikoak izanen dira.

b) Behin-betikoak honako hauek izanen dira:

- Zergagaiaren ikerketa administratiboa egin ondoan eta karga oinarria egiaztatutakoan burututakoak, behin-behineko likidaziorik izan bada ala ez.
- Preskripzio epearen barnean egiaztatu ez direnak.

c) Aurreko atalean adierazitako kasuetatik at, likidazioak behin-behinekoak izanen dira, kontuaren gainekoak, osagarriak, bermeak, partzialak edo osokoak badira ere.

56. ARTIKULUA.- a) Likidazioak egiterakoan administrazioak egiaztatuko ditu tributuko aitortzen adierazitako egintza, elementu eta balorazio guztiak.

b) Aitorpenen emaitzaren gaineko tributuko oinarria haunditzen bada subjektu pasiboari adierazi beharko zaio, gehiketa sorrarazten duten egitateak eta elementu gehigarriak zehazki azalduz, burutzen den likidazioarekin batera.

57. ARTIKULUA.- a) Likidazioak subjektu pasiboari jakinaraziko zaizkie, hauek adieraziz:

- Haien funtsezko elementuak.
- Erabili daitezkeen inpugnazio bideak, hauek jartzeko epeak, bai eta zein erakundetan jarri ere adieraziz.
- Tributuko zorra non, noiz eta nola ordaindu behar den.

b) Jakinarazpen akasdunek eragina izanen dute subjektu pasiboak haren berri baduela espreski adierazi, dagokion errekurtsioa jarri edo tributuko zorra ordaintzen duenetik hasita.

c) Subjektu pasiboari zuzenean emandako jakinarazpenek sei hilabeteren buruan izanen dute eragina, baldin eta egintzaren testu osoa izanik, beste edozein baldintza aipatu ez badute, Administrazioak akatsa zuzen dezan eskatzeko epe horretan behar bezalako protesta egin bada salbu.



58. ARTIKULUA.- a) Zerga oinarri bera duten edo tributu beraren kuoten gainekoak diren ordainarazpenak, edo haien aplikazioaren zioagatik eskatzen direnak, tasa bakar batean bat egin ahalko dira likidazioaren ondorioetarako eta agiri bakar batean bildu.

b) Orobat, subjektu pasibo beraren gaineko ordainarazpenen likidazioa eta bilketa bate egin ahalko da, eta horretarako honakoa beharko da:

-Likidazioan kontzeptu bakoitzaren oinarriak eta tasak edo kuotak, zeinen bidez zehaztu eta banakatuko baitira birbilduko diren likidazioak.

-Bilketan kontzeptu bakoitzari dagozkion kuotak banaka azaldu beharko dira. Kuota horiek, guztira, zehaztuko dute agiri bakarraren bidez ordainarazi beharreko kuota birbildua.

ZERGADUNEN ERROLDAK

59. ARTIKULUA.- Ordenantza partikularrean berean zehaztutako kasuetan, udal administrazioak, interesdunen aitortpenak ikusirik, ezagutzen dituen datuen arabera eta, orobat, administrazio ikuskapenak emandakoak gehituz, zergadunen erroldak prestatzeari ekinen dio. Zergadunen errolda, horrela prestatu eta gero, erregistro iraunkor eta publikotzat hartuko da, eta Udalak paratu nahi duen edonolako prozedura bidez, mekanikoa ere barne dela, funtzionatuko du.

60. ARTIKULUA.- a) Zergadunen errolda eratu ondoan, bertan gertatzen diren alta, baja eta aldaketa guztiak ontzat jo beharko dira erreklama daitekeen administrazio egintzaren bidez eta legerari jarraikiz subjektu pasibo horien berri emanen zaie.

b) Erroldan zernahi alta, baja edo aldaketarik sor dezakeen aldaketaren berri eman beharko dio zergadunak udal administrazioari, hura gertatu eta 30 egun baliouduneko epean.

61. ARTIKULUA.- Zergadunen erroldak dokumentu fiskaltzat hartuko dira, eta aipatu beharko da kobratzeko xedea duten zerrenda, ordainagiri eta beste dokumentuetan, horri dagokion ordainarazpena eskuratu ahal izateko.

VI. KAPITULUA. DIRU-BILKETA

OINARRI OROKORRAK

62. ARTIKULUA.- Dirubilketaren kudeaketa da Udal Ogasunaren hartzekoa osatzen duten kreditu eta eskubideak gauzatzeko xedea duen eginkizun administratiboa betetzea. Erregelamenduek dioten bezala jakinarazitako likidazio guztiak tributu zorra ordaintzera behartzen dute subjektu pasiboa.

63. ARTIKULUA.- a) Dirubilketa egin daiteke:

-Borondatezko aldian.

-Derrigorrezko aldian.

b) Borondatezko aldian ordaintzera behartuak direnek horretarako adierazitako epeen barrenean kitatuko dituzte beren zorrak. Derrigorrezko aldian, indarra duen legeriari atxikiz dirubilketa nahitaez egingen da ondarearen gaineko premiamendu bidez, zerga ordaindu behar duenak borondatezko aldian bere obligazioa betetzen ez badu.

64. ARTIKULUA.- Udalen baliabideen bilketa, udal diruzaintzaren bitartez edo izendatzen diren bankuen bidez egingen da, kontuhartzaileak zerbitzuen fiskalizazioa gauzatzeko moduan.

ZORREN SAILKAPENA DIRUBILKETARI DOAKIONEAN



65. ARTIKULUA.- a) Udal agintariak eginiko likidazioen ondorioz sortutako tributu zorrak dirubilletari doakionean honela sailkatuko dira: jakinarazi beharrekoak, jakinarazpenik gabekoak eta norberak likidatutakoak.

b) Jakinarazi beharrekoetan ezinbestekoa da jakinarazpena igortzea, subjektu pasiboak tributu zorraren berri izan dezan. Hortaz, legearen arabera jakinarazpenik gabe, zorra ezin izanen da eskatu.

c) Jakinarazpenik gabeko zorrak dira banakako jakinarazpenik behar ez dutenak, zuzenean subjektu pasiboek ezagututako zergadun erroldetatik etortzeagatik, tributu zorra aldiro aldatzen bada ere, dagokion ordenantzan aurretiaz zehaztutako errekaratu edo tasa gehikuntzen aplikazioagatik.

d) Norberak likidatutakoetan sujetu pasiboak, efektu tinbratuen bidez edo aitorpen-likidazioa egitean, aldi berean tributu zorraren ordainketa egiten du.

Honela, aldi oro ordainagiri bidez kobratzen diren tributuak, kasuan kasuko zentsuan, erroldan edo matrikulan dagokion altaren likidazioa jakinarazi ondoren, hurrengo likidazioak kolektiboki jakinarazi ahalko dira horretaz ohartaraziko duten ediktuen bidez, baldin eta likidazioak aurrekoen berdinekin badira edota aldaketak izaera orokorrekoak badira.

ORDAINKETA EGITEKO TOKIA

66. ARTIKULUA.- a) Udal administrazioaren aldeko zorrak haren Kutxan sartuko dira, ordainarazpen bakoitzaren ordenantza partikularrean espreski aurririk ez badago sartu ahal edo behar denik udal zerbitzuek prestatutako Kutxetan.

b) Udal administrazioaren aldeko zorren diru-sarrerara bertako kutxan egingo da, non eta ordainarazpen bakoitzari dagokion ordenantza partikularrak espresuki agintzen ez duen diru-sarrerara udal zerbitzu ezberdinetan eraturako kutxetan egin daitekeela edo egin behar dela.

ORDAINKETA EGITEKO EPEAK

67. ARTIKULUA.- a) Tributu zorrak honela ordainduko dira:

1)-Jakinarazitakoak, jakinarazpena jaso eta hurrengo hilabete naturalaren barruan eta, edozein kasutan, jakinarazpenetik hasita hogeita hamar egun baliaduneko epearen barnean.

2)- Jakinarazpenik behar ez duten tributu zorrak, duten aldizkotasuna dela eta, ordaindu behar diren hiruhileko bakoitzeko lehen hilabeteko lehendabiziko egunean jakinarazitzat emanen dira. Egun horretatik aurrera, aurreko atalean ezarritako epe bera konputatuko da.

59. artikulua aipatutako ordainarazpenak seihilabetero ordainduko dira, eta borondatezko aldian ordaintzeko epeak honako hauek dira:

-Lehen seihilabeterako: martxoaren 16tik maiatzaren 15era arte.

-Bigarren seihilabeterako: irailaren 16tik azaroaren 15era arte.

Pagamendu epe hauek Udalbatzak aldatzen ahal ditu, aparteko baldintzak gertatzen badira.

3)- Efektu tinbratuen bidez ordaindu behar diren tributu zorrak zergaia eman den unean berean ordainduko dira.

4)- Subjektu pasiboak berak likidatutako zorrak behar diren aitorpenak aurkezterakoan ordainduko dira, ordainarazpen bakoitzari buruzko ordenantza partikularrek ezarri egun eta epeetan eta, orokorki, aitorpena zerga oinarria eman den egunetik hasita hogeita hamar egun baliaduneko epean egiten da.

b) Hala ere, arestian aipatu epeetan beren zorrak ordaindu ez dituzten zergadunek borondatezko epeetan ordaintzen ahal dituzte, premiamendurik gabe: jakinarazitakoetan, hogeita hamar egun baliaduneko epean borondatezko ordainketa egiteko epea akitzen den egunetik hasita, eta jakinarazpenik behar ez dutenetan, kasuan kasuko hiruhilekoko hirugarren hilaren azken egun baliaduna arte, hura barne. Luzapenagatik, errekaratu % 5 da, eta bateraezina da premiamenduarekin.

ORDAINTZEKO MODUA



68. ARTIKULUA.- Tributu zorrak eskudirutan, taloi bidez edo banku-transferentzia eginez ordaindu behar dira, ordainarazpen bakoitzari buruzko ordenantza partikularrean xedatu bezala. Espreski xedaturik ez badago, eskudirutan ordaindu beharko da.

69. ARTIKULUA.- a) Eskudirutan ordaindu beharreko tributuak bide hauetakoren batean ordainduko dira:

-Legez indarra duen dirua.

-Posta edo telegrafia bidezko igorpena.

-Bankuko edo Aurrezki Kutxako kontu korronteko taloia.

- Bankuko txekea.

-Banku edo Aurrezki Kutxako ordainketa edo transferentzia karta, Udalaren alde horretarako irekitako kontuetan.

b) Orain arte adierazitakoa gorabehera, aldizkako mugaeguna duten eta tributukoak ez diren zorren kasuan, jakinarazpenik eskatzen ez dutenak, zor horien ordainketa banku edo Aurrezki Kutxa bidez helbideratu ahalko da, entitate horrek subjektu pasiboaren administratzaile gisa jarduteko moduan, hark baimendutako zorrak ordaintzen dituela; helbideratzeko baimen horren baldintza bakarrak dira Udal Diruzaintzari aurretiaz abisu ematea idatziz, eta banku edo aurrezki entitateari helbideratzeak ukitzen dituen zerga kontzeptuen berri ematea. Zorraren tributu-kudeaketak finantza-kostu erantsiren bat badakarkio Udalari, zenbatekoa zorraren titularrari erasan ahalko dio, finantza-gastuengatik.

c) Ordainagiri bakarrean sartutako ordainarazpenen kuotak modu hauetakoren batean ordainduko dira:

-Ordenantza partikularrek ezarritako banketxe edo aurrezki kutxan

- Helbideraketa: ordainagiriaren ordainketa banku entitateetan edo aurrezki kutxetan helbideratuz, beti ere eskatzen bada borondatezko ordainketa epeak hasi baino 15 egun lehenago. Udalak bertan behera utz dezake ordaintzen ez bada edo bankuak ordainagiria itzultzen badu.

- Bulegoak: Udaleko Dirubilketa Zerbitzuaren bulegoetan, egoera berezietan dauden ordainagiriarentzako.

d) Luzapenagatik errekargua duten ordainagiriaren ordainketa Udaleko Dirubilketa Zerbitzuaren bulegoetan egin beharko da nahitaez. Geroagoko mugaeguna duen ordainagiri baten kobrantzak ez du esan nahi aurrekoak ordaindu direnik, ezta iraungitzen ere Udalaren eskubidea zorpean daudenak kobratzeko.

ORDAINKETA LUZATU, GERORATU ETA ZATIKA EGITEA

70. ARTIKULUA.- a) Tributu zorra likidaturik, Udalak horren ordainketa bere kabuz eta nahi bezala geroratu edo zatika egin dezake, ordaindu behar dutenek hala eskaturik.

b) Ordainketa zatika egitea, luzapen mota bat denez, luzapenerako aplikagarri diren xedapenek zuzenduko dute.

c) Geroratzen diren ordainketetako diru kopuruek, kasu guztietan sortuko dute Ogasun Publikoari buruzko 8/1998 Foru Legeak aipatzen duen berandutzagatik korritua.

71. ARTIKULUA.- Ez dira geroratzen ahal:

a) Ordainagiri edo patente bidez ordainarazten diren tributu zorrak.

b) Tributu zorrak, haien dirusarrera ordezkariak egin behar badute atxikipenagatik.

72. ARTIKULUA.- a) Ordaindu behar dutenek gerorapena eska dezakete baldin eta beren diruzaintzaren egoerak, Udalak bere zuhurtziaren arabera hala iritzirik, galarazten badie borondatezko dirusarrera egiteko epean ordainketa egitea.

b) Gerorapenerako eskabideak Udaletxean aurkeztuko dira, borondatezko dirusarrerarako edo dagozkien likidazio-aitorpenak aurkezteko adierazitako lehen hamar eguneko epearen barrenean.

c) Gerorapenerako eskabidean nahitaez honako datuak paratuko dira:

-Eskatzailearen izen-deiturak, sozietatearen helbide soziala edo izena, eta helbidea.



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

j; Garcia Ximenez 36 - 31800

-Tributu zorra, zeinen gerorapena eskatzen baita, haren zenbatekoa, borondatezko dirusarrerarako paratu epearen hasiera, eta kontabilitateko erreferentzia.

-Eskatzen den gerorapena edo zatikapena.

- Eskariaren zergatia.

-Eskaintzen den bermea, ondoko artikuluan xedatutakoaren arabera.

-Likidazio-aitorpen eredia, erregelamenduzkoa, behar bezala bete eta likidatua, ordainketaren gerorapena subjektu pasiboak berak likidatu beharreko zorrei buruzkoa denean.

d) Eskatzaileak, bere eskabidea indartzeko eta harekin batera, egokitzen jotzen dituen dokumentu edo frogagiriak aurkezten ahal ditu.

73. ARTIKULUA.- a) Eskatzaileak bermea eskainiko du banketxe edo aurrezki kutxa baten abal solidario bidez, eta, eskabidearekin batera, entitateak abala formalizatzeko hartutako konpromisoa aurkeztuko du, gerorapena ematen baldin bazaio.

b) Era berean, geroratutako zenbatekoak honako baldintza hauek betetzen baditu:

-Zorra 3.000,00 eurokoa edo gutxiagokoa izatea.

-Zorra amortizatzeko epea urtebetekoa baino luzeagoa ez izatea.

-Gerorapena emateko unean, gutxienez, geroratutako zorraren ehuneko 20 ordaintzea.

-Egin beharreko amortizazioa eta korrituen ordainketa zatiturik egitea aldiaren behin.

Aski izanen da gerorapenerako baldintzak betetzeko eskatzaileak hartutako konpromisoa.

c) Bermeak, nolana ere, zorraren zenbatekoa eta berandutzagatik korrituena kitatuko ditu, gehi bi kopuruen baturaren ehuneko 25.

d) Abalaren bidez eraturako bermea, xedeko epearen edo epeen mugaegunetik hasita gehienez ere hiru hilabetez geroratu beharko da.

74. ARTIKULUA.- a) Udalak ebatzi beharko ditu gerorapen eskariak, emanez ala ukatuz. Gerorapena ematea erabakitzen bada, baldintza izanen da dagokion bermea jartzea.

b) Ebazpenak ukatu egiten badu, erabakia jakinarazi eta hogeita hamar egun balioduneko epearen barrenean ordaindu beharko da zorra. Dirusarrera borondatezko aldiaren egiteko epea bukatu baldin bada, ordainketa berandutzagatik korritua ere sartuko da.

c) Ebazpenak gerorapena onesten baldin badu, gerorapena emateko erabakiaren jakinarazpenaren ondoko hamar egun balioduneko epean paratu beharko da bermea. Epe hau hogeita hamar egun baliodunetara luza daiteke, baldin eta aurreko artikuluan b) atalean aipatutako bermeren bat onartu bada.

d) Bermea egin gabe epe hauek bukatzen badira, ematearen erabakia indarririk gabe geratuko da, eta zorra nahiz berandutzagatik korrituak ondoko hogeita hamar egun balioduneko epean ordaindu beharko dira.

75. ARTIKULUA.- a) Emandako epea akitzen den egunerako behar den dirusarrera egiten ez bada, premiamendu bidez ordainaraziko da, eta ez da inola ere epea luzatzen ahalko.

b) Eperen bat mugaegunerako ordaintzen ez bada, emandako beste epe guztiak ere egun horretantxe bukatutzat joko dira, eta harrezkero denak premiamendu bidean jarriko.

c) Geroratutako tributu zorraren edo zorren ordainketa gutuna, jatorrizko ordainagiria edo ordainketaren egiaztagiria gerorapenaren azken epea ordaindutakoan emanen da, eta gainerakoak ordaindu gabeko zorraren konturako ordainketa hartuko dira.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
j; Garcia Ximenez 36 - 31800

VII. KAPITULUA ERREKURTSOAK

76. ARTIKULUA.- a) Ordenantzen behin-betiko onespeneren kontra, berau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIAlean argitaratzen denetik hasita, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legean orokorrean ezarritako udal ebazpenen kontrako errekurtsuak aurkeztu ahalko dira.

b) Ordenantzak Diputazioaren onspena eskatzen duenean, errekurtsua Foru Korporazio horren erabakiaren kontra aurkeztuko da, baldin eta ebazpena ukatzekoa bada.

77. ARTIKULUA.- Aurreko artikuluan ezarritakoa gorabehera, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legean edo ordenantzetan ezarritakoa hausten dituzten ordainarazpenen gaineko xedapenak aplikatzen dituzten udal erabakien kontra egiteko interesdunek duten eskubideak indarra izanen du beti, udal ebazpenen kontrako errekurtsuak aurkezteko ezarrita dagoen prozedura orokorrari jarraikiz.

78. ARTIKULUA.- Zergak ordaintzeko beharraren edo ordainarazpen bat dela eta likidatutako kuota bategatiko zenbatekoaren aurka errekurtsoren bat jartzeko, galdatutako kopurua aurretik ordaintzerik ez da eskatuko, baina erreklamazioak ez du inolaz ere zor hori kobratzeko administrazioak egiten duena oztopatuko, non interesdunak ez duen udal diruzaintzan likidazioaren zenbatekoa uzten; zenbateko horri ehuneko hogeita bost gehituko zaio sor daitezkeen errekargu, kostu edo gastuak bermatu ahal izateko.



1. ORDENANTZA:
ORDENANTZA FISKALA, UR HORNIDURAREN ETA HUSTUKETAREN TASAK ARAUTZEN
DITUENA

OINARRIA

1. ARTIKULUA.- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legearen 28. artikuluan xedatutakoaren babespean ezarri da ordenantza hau.

ZERGAPEKO EGITATEA

2. ARTIKULUA.- Edateko uraren hornidura zerbitzua eta hondakin uren hustuketakoa edo saneamendukoa eskura izan edo benetan erabiltzea, horra zerga-egitatea.

SUBJEKTU PASIBOA

3. ARTIKULUA.- Subjektu pasiboak dira eta ordenantza honetan arautzen diren tasak ordaintzera beharturik daude ur hornidurako sareetarako loturen titularrak, eta ordaindu behar dutenen ordezkioak, berriz, higiezin horien jabeak.

KARGA-OINARRIAK

4. ARTIKULUA.- Honako hauek dira oinarriak:

a) Edateko uraz hornitzeko zerbitzuaren eskuragarritasuna eta mantentze lanak: kuota finkoa eta behin bakarrik ordaintzekoa hargunearen diametroaren arabera. Neurgailuen alokairuaren kostua barne izanen da.

b) Ur horniduraren tarifa zehaztuko da lauhilekoan kontsumitutako m³-en gainean.

c) Udal hornitzaileak hornidurako eta saneamenduko harguneak egiteagatik: kuota finkoa eta behin bakarrik ordaintzekoa hargunearen diametroaren arabera, baldin eta hargune horiek hirigunearen barnean egiten badira eta gehienez ere 30 metroko luzera badute. 30 metroko luzera baino handiagoa duten edo hirigunetik kanpo egiten diren harguneetarako, kuota finkoa eta kopuru bat, hogeita hamarretik gorako metro linealen arabera.

Gainera, kopuru horri gehitzen ahal zaizkio ezustekoak, Udaleko langileek egindako lanak eta erabilitako materialak.

TARIFAK

5. ARTIKULUA.- Tarifak izanen dira urtero Udalak osoko bilkuran onesten dituenak. Bestela, Nafarroako KPIa aplikatuz eguneratuko dira.

Ordenantza honen eranskinean zehazten dira 2024ko ekitaldirako tarifak.

TRIBUTU KUOTA

6. ARTIKULUA.- Tributu-kuota zehazteko, karga-oinarriari dagokion tarifa aplikatuko zaio.

TASEN SORRARAZPENA

7. ARTIKULUA.- Zerbitzua eskura izateko eta mantentze lana egiteko tasak eta hornidurarenak lau hilabetetik behin ordainaraziko dira, eta Udalak aldiro komenigarrien uste duen aldizkotasunez, aldezturik behar den erabakia hartuta. Gertatzen diren unetik beretik izanen da tasen sortzapena. Eskura izateko tasa ez da inoiz murriztuko.

Hargune eskubideak hargunerako lizentzia ematen den unean ordainarazi eta sorraraziko dira.

Materialez hornitzeko eta beste zerbitzu batzuk egiteko tasak, zerbitzua egiten denean edo materialez hornitzen denean sorraraziko dira.



KUDEATZEKO ARAUAK

8. ARTIKULUA.- Eraikin batean, industria batean eta abarrean hargune orokorra paratu nahi duten sustatzaile, eraikitzaile, pertsona juridiko edo fisikoek honela jokatu beharko dute:

1) Hiriguneko hargune orokorrak baldin badira, honako hau aurkeztu beharko da:

–Udalari zuzendutako eskabidea, eraikinaren eta banaketa sarearen arteko lotura orokorra egitea eskatuz. Eskabidean honako hau aipatu behar da:

- a) Etxebizitza kopurua.
- b) Eraikinaren azalera erabilgarria, guztira.
- c) Eraikinen hargune orokorraren diametroa.

2) Hirigunetik kanpoko hargune orokorrak badira, industriarako, baratzeetarako, aisia finketarako eta abar, honako hau aurkeztu beharko da:

–Udalari zuzendutako eskabidea, industriaren edo ustiategiaren lotura orokorra egitea eskatuz. Eskabidean honako hauek aipatu behar dira:

- a) Industriaren edo ustiategiaren jarduera.
- b) Zenbat metro lineal dauden industrietatik edo ustiategitik sare orokorrean lotunea egiten den punturaino.
- c) Eskatutako hargune orokorraren diametroa.

3) Halaber, behar den hargunea eskatu beharko da sareari aldi baterako lotzeko (atrakzioak, barrakak etab.), eta egindako kontsumoa ordaindu beharko da.

9. ARTIKULUA.- Hori guztia ikusita, Udalak eskaeraren gaineko ebazpena emanen du. Egoki iritziz gero, informazio osagarria eskatzen ahalko du, eta Obren Lantaldeko arduradunaren edo Udaleko iturginaren aldeko txostena beharko da alde zuzenetik. Baimendu ondoren, subjektu pasiboak ur hornidurako eta saneamenduko kontratua sinatu beharko du (ordenantza honen 2. eranskinean ageri da), zerbitzua eman aurreko baldintza baita.

10. ARTIKULUA. 8. artikuluko b) idatz-zatian, Udalaren ebazpena izanen da bai hargune orokorra paratzeari buruzkoa bai hornidura eskaerari buruzkoa.

11. ARTIKULUA.- Sare orokorrari lotzeko lanak hasi aurretik, lotune eskubideak ordaindu beharko dira Udalaren Diruzaintzan, ordenantza honen 4. eta 5. artikuluetan aurreikusitako jarraikiz. Loturarako baimen, kontzesio edo lizentziek ez dute eraginik izanen, ez baldin bada aurkezten, aldi berean, behar den tasa ordaindu dela frogatzen duen agiria.

HORNIDURAKO BALDINTZA OROKORRAK ETA GISAKO ZERBITZUAK EMATEA

12. ARTIKULUA.- Sareari edo hornidurari lotzeko eskaera egiten duenak ordaindu beharko ditu kontagailua eta hori instalatzeko beharrezkoak diren materialak eta eskulana eta hornidurari dagokiona, ordenantza honen 4. artikuluan ezarritakoarekin bat.

13. ARTIKULUA.- Udalak ardura handiz zainduko du ur horniduraren zerbitzua, lanak eta antzeko zerbitzuak ahal diren baldintza hoberenetan emateko, baina horregatik ez da erantzule izanen erabiltzaileek jasan ditzaketan kalte edo galeretan, presio gutiegi, ur hornidura moztu edo zerbitzuan beste edozein gorabehera gertatuz gero.

14. ARTIKULUA.- Ur hornidurarako hargune baten edozein titularri kentzen ahalko zaio ur hornidura, instalazio barrenean ur galerak sortzen dituen matxurarik badu. Horretarako, Udalak hamar eguneko epea emanen dio titularrari matxura konpontzeko, eta epe hori amaiturik konpondu ez badu, Udalak hornidura moztuko du. Eraikinaren banaketa sareak edo erabiltzailearen jabetza partikularraren



barrenean dagoen edozein gailuk matxura izateagatik sortzen ahal diren kalteetan ere ez du Udalak inoiz erantzukizunik izanen.

15. ARTIKULUA.- Erabiltzaileak ez du inondik ere beste inor urez hornitzen ahal, ez eta eskubidea ez duenari hartzen uzten ahal ere. Gainera, galarazi beharko du bere axolagabekeriaz edo kontrol ezagatik gertatzen ahal den iruzurra. Halakorik bada, erabiltzaile abonatuia izanen da erantzule bakarra.

16. ARTIKULUA.- Erabiltzaile zergadunek berehala jakinaraziko dizkiote Udaleko behar den zerbitzuari ura banatzeko sare orokorrean matxuraren bat gertatzen datozen gorabehera guztiak.

17. ARTIKULUA.- Erabiltzaile zergadunari dagokio kontagailua eta ixteko giltza dauden tokia baldintza onetan dagoela ziurtatzea, eta Udaleko behar den zerbitzuak ezartzen dituen jarraibideak betetzea, tramite hori beharrezkoa izanen baita kontagailuan edo ixteko giltzan esku-hartzeren bat egiteko, hala nola instalazioak ateratzea, tokiaren neurriak handitzea etab.

18. ARTIKULUA.- Ordenantza honetan aipatzen diren tasetakoren bat ordaindu beharra duten zergadunak behartuak daude kontagailua dagoen tokira sartzen uztera irakurketa egiten duen langile kredituari edo bestelako udal langileei, baldin eta zerbitzuko beharregatik edo gisako zerbaitengatik zergadunaren etxera edo lokalera sartu behar badute.

19. ARTIKULUA.- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Erregelamenduaren ataleko 3. puntuko 273. artikuluan jasotakoari jarraikiz, ordenantza honetan aurreikusitako tasen aplikaziotik ateratzen diren tributuzorrak, "jakinarazpen gabekoak" izanen dira.

20. ARTIKULUA.- Aipatutako tasak lau hilabetetik behin ordainaraziko dira, eta haien jakinarazpena egintzat hartuko da behar den bandoa edo ediktua argitaratu eta biharamunetik aurrera, eta egun horretatik hasiko da kontatzen 30 egun balioduneko epea, ordainketa borondatezko aldian eta errekariguri gabe egiteko. Hargune eskubideak, nola orokorrak hala partikularrak, hargune horiek egin aurretik ordaindu beharko dira.

21. ARTIKULUA.- Borondatezko aldian beren tasak ordaintzen ez dituztenek Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Erregelamenduan luzapenagatik ezarritako errekariguri jasanen dituzte. Aipatu erregelamenduaren 275. artikuluan ezarritako epeak igarota, premiamendu bidez ordainaraziko da, dagozkion errekariguri eta gastuekin batera.

22. ARTIKULUA.- Nork bere borondatez ordaintzeko epeak amaitu ondoren, ordenantza honetan araututako zerbitzuen edo horniduren bi ordainagiri edo gehiago ordaintzeko dituzten zergadunen kasuan (zerbitzuak ordaintzeko tasak direnez), kontsideratuko da horiek bajak direla, eta, Udalak hori erabakiz gero, aurreko artikuluan xedatua ukatu gabe, hornidura moztuko da.

Zor dituzten tasak ordaindutakoan, zergadun horiek alta eskatzen badute, Udalak, baldintza gisa, egokia iruditzen zaion fidantza eskatzen ahalko die kasu bakoitzean erabakitzen duen eperako. Bidezko eskubideak ordaindu beharko dira, zerbitzuan alta lehen aldiz hartuko balitz bezala, non ez den frogatzen norberarekin zerikusia ez duten arrazoiek ekarri dutela atzerapena ordainketan.

Orobat, Udalak abonatuie eteten ahalko dizkie ur hornidura eta/edo saneamendu zerbitzuak, honako kasu hauetan eta prozedura honi segituz:

A) Udalak edo, behar denean, enpresak edo Mankomunitateak ematen duen zerbitzuagatik, ordainagiriak zehaztutako zenbatekoa ordaindu behar den egunetik lau hilabete iragan eta diru kopuru hori abonatuak ordaindu ez duenean.

B) Iruzurratutako likidazio irmotik edo horren berrerorketa frogatutik sortzen diren zenbatekoak ordaindu ez direnean.



C) Abonatuak, hornitu ura, kontratatutako polizan ezarritako modu eta xedeez kanpo erabiltzen duenean.

D) Abonatuak bere ordainketa polizan agertzen ez diren etxebizitza edo lokalak hornitzeko edo hustuketa egiteko, bere instalaziotik adarrak paratzen edo paratzera uzten duenean.

E) Abonatuak ez badie kontrataturiko zerbitzuak hartzen dituen lokalean sartzen uzten enpresak baimendutako langileei, beren dokumentazio eta nortasun agiri guztiak dituztela, instalazioak ikuskatu eta kontsumoa neurtzera joaten direnean. Kasu honetan beharrezkoa izanen da sarrera ukatzea bi lekukoren edo agintaritzaren agenteren baten aurrean egitea.

F) Abonatuaren utzikeriagatik, hornidura eta saneamendu sarean arazoren bat eragin eta ekipamendu zuzentzailerik ez paratzeagatik, eskumena duten erakundeek hura zuzentzeko emandako epea iragan eta gero.

G) Abonatuak larriki hausten baditu ordenantza honetan aipatzen diren aginduak, edo betetzen ez baditu hornidura kontratuan finkatzen diren baldintzak.

Etenak nahiz lotura berriak sortzen dituzten gastuak abonatuaren kontura izanen dira.

22. BIS ARTIKULUA.

A) Kontagailu kolektiboak dituzten eraikinen kasuan, giltza bat utzi beharko da Udalean, hark homologatua, kontagailuen koadroan sartzeko.

B) Kontagailuen instalazio berrietan, etxebizitzatik kanpo jarri beharko dira, horien irakurketa errazteko.

C) Kontagailu eskaerek etxebizitzako titularraren NANA jaso beharko dute beti, baita erabilgarri dagoen sakelako telefono baten zenbakia ere.

D) Suteak itzaltzeko sarea duten saltoki eta industriek ur kontagailu bat jarri beharko dute nahitaez, kostua beren gain hartuta, udaleko langileek esaten duten tokian. Kontagailu horrek aipatu sareko ur erabilera kontrolatzeko balioko du, debekatuta baitago ur hori beste ezertarako erabiltzea, suteak itzaltzeko ez bada, horrelakoetan ez baita kobratuko sare horrek erabilitako ura, Udalak aldeztu aurretik egiaztatuta. Ur erabilera ikuskatzeko zerbitzuek kontagailu horien irakurketa egiazta dezakete, beharrezkoa iruditzen zaien orotan.

Udaleko zerbitzuek kontagailuak jarriko dituzte suteen sarean, halakorik ez duten saltoki edo enpresetan, gastua haien kontu, egoera hori erregularizatzeko.

ARAU HAUSTEAK

23. ARTIKULUA.- Indarra duen legedian aurreikusitako arau-hausteez gain, honako hauek joko dira iruzurrezko arau-haustek:

a) Kontagailuen irakurketa egiterakoan oztopoak jartzea Udaleko funtzionario edo langile behar bezala kreditatuek egiten dituzten ikuskapenei, edo Udalak baimendutako enpresako langileek egiten dituztenei.

b) Kontagailuak irakurtzen ez uztea.

c) Udalak jarritako zigilu, sarraila eta aparatuak aldatzea.

d) Udalak, neurketa edo kontsumo aparatuak aldatzeko edo berriak paratzeko, emandako jarraibideak ez betetzea, obrak zergadun erabiltzailearena den jabetzan egin behar badira.

e) Erabiltzen ez diren gailuak edo txertoak jartzea erabiltzeko, edo kontagailuan agertzen dena maltzurkeriaz aldatzea.

f) Saretik ur hornidura hartzea, Udalean hargune eta hustuketarako lizentzia eskatu gabe.



ZEHAPENAK

24. ARTIKULUA.- Indarra duen legedian aurreikusitako zehapenez gain, eta iruzur egitean erabilitako uraren kopurua zehaztearren, kontuan hartuko da aparatuetatik pasatu ahal izan den gehienekoa, hau da, Udaleko langileek edo Udalak baimendutako enpresako langileek kontagailuen irakurketarako egindako azken ikustalditik pasatutakoa, eta Udalak ezarriko du zein epetatik aurrera jotzen den iruzurtzat.

Horrelakoetan, ez da alta emanen ur horniduran, harik eta iruzurtzat jotako ur kontsumoari dagokion zenbatekoa ordaindu arte.

AZKEN XEDAPENA

25. ARTIKULUA.- Ordenantza honetan aurreikusi ez den orotan, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legea eta Ordenantza Fiskal Orokorra aplikatuko dira.

B) TARIFAK

A EPIGRAFEA: Kontagailuko mantentze lanen kuota (lauhilekoko).

ERABILERA	2024KO TASAK
ETXEKOA	1,70
MERKATARITZAKOA/OST ALARITZAKOA	3,20
INDUSTRIALA	4,80

Beheko solairuetako lokalak, merkataritzakoak ez badira, ulertuko da etxebizitzarako direla.

B EPIGRAFEA: Ur kontsumoaren tasa (LAUHILEKOKOA)

TARIFA MOTA	PREZIOA M3 2024
ETXEKOA: Kontsumoa, 55 m ³ arte	0,43
Kontsumoa, 55 m ³ tik gora	0,48
MERKATARITZAKOA /OSTALARITZAKOA	0,53
INDUSTRIALA	0,65



C EPIGRAFEA: Kontagailuak/Hargunea/Hustubideak

C.1. Kontagailuak:

Kontagailuaren prezioa kalkulatzeko, erosketaren kostuari gehitu behar zaio hura paratzeko Udaleko langileek egin beharreko lana.

C.2 Hargunea:

KONTZEPTUA	2024KO TASAK
ETXEKOA	63,60
INDUSTRIALA	106,75

C.3 Hustubideak:

KONTZEPTUA	2024KO TASA
ETXEKOA	63,60
INDUSTRIALA	106,75

Obretarako ur tasak, hargunekoak nahiz kontsumoari dagozkionak, ordenantza honetan industriakoentzat ezarrita dauden araberakoak izanen dira.

D EPIGRAFEA: Hobariak

1.- Tributu-kuotaren %100eko hobaria izateko eskubidea dute familia unitateek, prestazio hauetakoren bat jasotzen badute:

- Nafarroako Gobernuaren laguntzako pentsioak, eta ondarrerik ez badute (ohiko etxebizitza izan ezik).
- Zergari lotu gabeko ezintasun eta erretiro pentsioak, eta ondarrerik ez badute (ohiko etxebizitza izan ezik).
- Gutxieneko diru-sarreraren bermerako subsidioa, eta ondarrerik ez badute (ohiko etxebizitza izan ezik).
- SOVIren pentsioak, eta ondarrerik ez badute (ohiko etxebizitza izan ezik).
- Ekitaldi bakoitzerako indarra duen KPIren zenbatekoa hilabete bakoitzean gaintitzen ez duten bestelako pentsioak, eta ondarrerik ez badute (ohiko etxebizitza izan ezik).

2.- Aurreko hobariaren eskubidea izateko, eskaera egin behar da Udalari, baita ezartzen diren beharkizunak frogatu, organo eskudunek luzaturiko ziurtagiri eta txostenaren bidez.

3.- Salbuespenak eta/edo hobariak ekitaldi ekonomiko osoan zehar eskatu ahal izango dira, eta eskatu eta hurrengo lauhilabetekoan izango dira eraginkorrak.

4.- Prestazioa zenbat denboraz ematen den, halakoa izanen da salbuespenaren indarraldia, tasaren sortzapenaldiak kontuan harturik, eta, betiere, ez da urtebetekoa baino luzeagoa izanen.

5.- Hobariak urte natural bateko indarraldia izanen du.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
j; Garcia Ximenez 36 - 31800

Hobaria eskuratzeko eskubidea izateko baldintzak.

Hona hemen onuradun izan daitezkeenek bete beharreko baldintzak:

- Bakarrik bizitzea edo familiarako karga den beste pertsona batekin, eta hilabetean KPI baino gehiago ez irabaztea gehi 75 euro familia unitatea osatzen duen kide bakoitzeko.
- --Inolako ondasunik ez izatea (ohiko etxebizitza izan ezik).
- Ondasun eskualdaketarik eginik ez izatea.
- Diru-sarrerak 1. puntuan aipaturikoak baino txikiagoak izatea.

Ohiko etxebizitza ez da ondareztat hartuko hobaria emateko ondorioetarako. Bestalde, ordainean ematea ez da transmisioztat hartuko hobarien ondorioetarako.

Hobarirako eskubidea izateko, frogatu behar da ondare eskualdaketarik ez dagoela eskaera egin baino urte bat lehenago.

Aipatu baldintzak betetzen dituztela erakusteko, eskatzaileek honako hauek aurkeztu behar dituzte:

1. Hobaria eskuratzeko eskaera.
2. Hartzen den laguntzaren ziurtagiria.
3. Errentaren edo ondarearen aitorpena, edo hura aurkeztera beharturik ez daudela dioen Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren ziurtagiria, baita eskatzailearen edo bizilagunen diru-sarrerak frogatzen dituzten dokumentuak ere.
4. Bizikidetzako ziurtagiria, udal erroldakoa.

Udalak noiznahi ikuskatzen ahal du egoera berezi horretarako eskatzen diren baldintzak betetzen ote diren, eta kendu egingen ditu baldintzak betetzeari utzi dioten onuradunak, baita egiaztatzeko dokumentuak eskatu eta haiek aurkezten ez dituztenak ere.



**UR HORNIDURA ETA HUSTUKETAREN TASAK ARAUTZEN DITUEN N°1.
ORDENANTZAREN ERANSKINA**

ABELTZAINZAKO USTIATEGIETARAKO ETA INDUSTRIA-USTIATEGIETARAKO UR-HORNIDURA, BAITA ZISTERNA-KAMIOIAK BETETZEKO ETA UREZTATZEKO ERE.

Abeltzaintzako eta industriako ustiategiatarako eta zisterna-kamioiak betetzeko ur-hornidura nahi duten pertsona fisiko edo juridikoez aldez aurretik hitzordua eskatu ahal izango diote Udaltzaingoari, idatziz edo telefonoz, eta jardura justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

Ur-hornidura hori Ondarria industrialdean horretarako prestatutako ur-hartune baten bidez egingo da.

Ur-hornidura udaltzainek kontrolatu eta gainbegiratuko dute, eta baimendutako pertsona eta enpresa bakoitzak kontsumitutako metro kubikoen kopurua idatziz jasoko dute. Kontsumo horiek Udaleko Ogasun Sailari jakinaraziko zaizkio, faktura bidal dezan.

Oro har, honako ordutegi honetan jaso ahalko da hornidura: astelehenetik ostiralera 08:00etatik 21:00etara eta larunbat, igande eta jaiegunetan 09:00etatik 21:00etara.

Ureztatzeko ur-hornidura.

Ureztatzeko urez hornitu nahi duten pertsona fisiko edo juridikoez Udaleko Obra Zerbitzuari eskatu ahal izango diote. Horretarako, aldez aurretik hitzordua eskatu beharko da, idatziz edo telefonoz, eta zertarako erabili nahi den justifikatu.

Ur-hornidura hori Udaleko Obra Zerbitzuaren biltegian horretarako prestatutako ur-hartune baten bidez egingo da.

Ur-hornidura Udaleko Obra Zerbitzuko langileek kontrolatu eta gainbegiratuko dute, eta baimendutako pertsona eta enpresa bakoitzak kontsumitutako m kubikoen kopurua idatziz jasoko dute. Kontsumo horiek Udaleko Ogasun Sailari jakinaraziko zaizkio, faktura bidal dezan.

Oro har, hornidura-ordutegia astelehenetik ostiralera 07:30etik 13:00etara izango da. Salbuespen gisa, ezarritako ordutegitik kanpo eman ahal izango da ura, arrazoi justifikaturen batengatik.

Kontzeptua	M3/2024
Industriak	0,65
Abeltzaintzako ustiategia	0,55
Ureztatzea	0,55
Zisterna-kamioia betetzea	1,70



2. ORDENANTZA:
ESTOLDERIA ZERBITZUAK EGITEKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

OINARRIA

1. ARTIKULUA.- Ordenantza hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legearen 100. artikuluan ezarritakoari jarraikiz ezarri da.

ZERGAPEKO EGITATEA

2. ARTIKULUA—Udalerriko hirigunean, udalerrian bertan edo hiri-inguruan dauden lursail guztietan udal estolderia, hartune zuzen edo zeharkakoen bidez, erabiltzeak sortzen du ordaindu beharra, bai eta estolda guztiak zaintzeak ere, partikularrak nahiz udalarenak izan.

Ez da Udalaren eskumena estolderia pribatuaren garbiketa zerbitzua, baina Udalak ahalmena du premia kasuetan horretan esku-hartzeko, estolderiaren titularren kargura. Partikularren eskaerei erantzunez udalak ematen duen zerbitzu oro ordenantza honetatik kanpo dago eta, beraz, udal zerbitzuak ematea arautzen duen ordenantzan ezarritakoari jarraikiz kobratuko da (7.a).

3. ARTIKULUA.- Tasa hau ordaindu beharko dute aurreko artikuluan aipatutako lursailen jabeek edo administratzaileek.

4. ARTIKULUA.- Zerbitzua ematea da, beraz, zergagaia, eta ematen den momentutik sortuko da ordaindu beharra, eta zerbitzu horrek instalazioak estolderia-sarera lotzea eta hura erabiltzea berarekin dakarrela ulertuko da.

SUBJEKTU PASIBOA

5. ARTIKULUA.- Ordaintzera beharturik daude uraren kontsumoa ordaindu behar dutenek, hain zuzen ere, finka eta etxebizitzetako jabeak, betiere estolderia-zerbitzua badute.

KARGA OINARRIA, TARIFA ETA KUOTA

6. ARTIKULUA.- Karga-oinarria zergaren oinarrian oinarritzen da, eta ordainarazten diren kuotak lau hilabetetik behin eskatuko dira, eta kuota finko bat izango da instalazioa industriarako edo etxerako den, eta horrenbestekoa.

KUDEATZEKO ARAUAK

7. ARTIKULUA.- Ordainarazpena sortutzat joko da ordaindu beharra sortzen denean.

8. ARTIKULUA.- Alta-deklarazioa ur horniduraren alta gertatzen den une berean gertatuko da, betiere higiezinak estolderia-zerbitzua baldin badu.

Deklaratutako zerbitzuetan aldaketa edo baja eginez gero, orduan ere deklarazioa aurkeztu beharko da; gertatu ondoko hilaren azken eguna arte izanen da horretarako epea. Betebehar hori betetzen ez dutenek ordainarazpenari loturik segituko dute. Deklarazio horiek aurkezten diren lauhilekoaren ondokoan izanen dituzte ondorioak.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
j; Garcia Ximenez 36 - 31800

ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

9. ARTIKULUA.- Deklarazioa ez aurkeztea arau-haustetzat joko da. Zehapenak jartzea ezinezkoa izateak ez du inolaz ere sortutako kuotak likidatu eta kobratzea saihestuko.

Iruzurra zehatzeko, isun bat jarriko da, iruzurraren kuota halako bi gehienez ere, Ordenantza fiskal orokorrean ezarritakoaz gain.

AZKEN XEDAPENA

10. ARTIKULUA.- Ordenantza honetan jasotzen ez den orotan, Ordenantza Fiskal Orokorra aplikatuko da.

ESTOLDERIA ZERBITZUAK EMATEKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN ERANSKINA

TASA (LAUHILEKOKOA)	2024
ETXEKOA	8,00
MERKATARITZAKOA- OSTALARITZAKOA	12,00
INDUSTRIALA	16,00

Beheko solairuetako lokalak: etxeke tarifa



3. ORDENANTZA:

ORDENANTZA, AGIRIAK EGITEKO ETA TRAMITATZEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

Oinarria

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehenbiziko tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatuaren arabera, eta lege beraren 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

Zergapeko egitatea

2. artikulua. Ordainarazpen honen xedea da udal organoek agiriak egin edo horien gain ardura duten udal organo eta agintariak egiten duten jarduera administratiboa, alderdi batek eskatua:

- 1) Udalaren artxiboetan dauden plano eta fitxategien kopia, bai paperean bai euskarri digitalean.
- 2) Ziurtagiriak.
- 3) Kopia eginbidetuak.
- 4) Agirien konpultsa.
- 5) Fotokopiak
- 6) Karnetak eta txartelak.
- 7) Lanpostuak betetzeko deialdiak.
- 8) Txostenak eta kontsultei emandako erantzunak.
- 9) Aurrekontuak eta ordenantza fiskalak.

Sortzapena

3. artikulua. 1. Ordenantza honetan ezarritako tasak agiria egin edo tramitatzeko eskabidea aurkeztean sortuko dira, eta agiri hori ez da emanen edo tramitatuko, baldin eta lehenago ordaindu ez bada, eta hori egiaztatu behar duen ordainagiria eman ez bada.

2. Nolanahi ere borondatez ordaintzeko emanen den epean ordaindu beharko dira Hirigintza eta Etxebizitza alorreko kontsultei txostenak eta erantzunak emateagatik tasak, txostena edo erantzuna onetsi eta tasa likidatzen duen Ebazpenean xedatutakoaren arabera.

Subjektu pasiboak

4. artikulua. Ordaintzera beharturik daude tasa honen xedeko agiriak egin edo tramitatzeko eskatzen dutenek.

Tarifak

5. Artikulua.- Aplikagarri diren tarifak ordenantza honetako eranskinean agertzen dira.

Kudeatzeko arauak

6. artikulua. Ordenantza honetan ezarri diren tasak Udalaren Diruzaintzan sartuko dira, edo Udalak halako gordailu erakunde batean irekita duen kontu korrontean eta, 3.2 artikuluan xedatutakoa izan ezik, ez da eskatutako agiria luzatuko ordainagiririk ez bada.

Salbuespenak.

Ez da tasarik sortuko agiri hauek egiteagatik:



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
j; Garcia Ximenez 36 - 31800

- a) 012 INFOLOCALaren, Udalaren web orriaren edo egoitza elektronikoaren bidez eskatzen diren ziurtagiriak.
- b) Erroldaren ziurtagiriak, beren eskumenak baliatuz Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eskatzen badituzte.
- c) Udalarenak diren edo Udalera doazen agirien konpultsak.
- d) Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek tramitatutako espedienteetan pertsonak eskatzen dituzten ziurtagiriak.



TARIFEN ERANSKINA

I. epigrafea.- Planoen eta fitxategien kopiak:	
1) Udal Planaren planoak edo espediente publikoetan daudenak, paperezko euskarrian.	
- DIN A0	8,00 euro
- DIN A1	4,00 euro
- DIN A2	2,00 euro
- DIN A3	0,50 euro
2) Euskarri digitaleko fitxategien kopiak.	
10,75 euro	
II. epigrafea.- Ziurtagiriak:	
Udalaren datu-base informatikoetan bildutako datuen ziurtagiriak	1,00 euro
Administrazio espedienteetan dauden erabakien edo agirien egiaztarigiriak, haiek luzatu ahal izateko aurretik txosten bat egitea, espedienteak kontsultatzea edo datu baseak gaurkotzea eskatzen badute.	12,50 euro
Lurzatien gaineko zedulak	1,00 euro
III. epigrafea.- Kopia eginbidetuak	
Udalaren espedienteetan dauden agirien kopia eginbidetuak	4,20 euro
Udalaren datu-baseetan dauden datuen kopia eginbidetuak	5,20 euro
Udaltzaingoaren txostenak	4,30 euro
Udaltzaingoaren txosten argazkiduna	7,60 euro
Atestatuak	34,30 euro
IV. epigrafea.- Agirien konpultsak	
Kompultsak, agiri bakoitzeko.	0,10 euro
V. epigrafea.- Fotokopiak	
Fotokopiak	
- DIN A4 zuri-beltzean	0,10 euro
- DIN A4 koloretan	0,30 euro
- DIN A3 zuri-beltzean	0,40 euro
- DIN A3 koloretan	0,80 euro
VI. epigrafea.- Baimenak eta txartelak	
Minusbaliatuaren txartela	31,20 euro
Ehiza	31,20 euro
Animalia arriskutsuak	39,50 euro
Baso pistetatik ibiltzeagatik	31,20 euro
Gaztetxokoko txartela (kopia)	2 euro
VII.- Langileen lanposturako edo kontratazio zerrendetarako deialdiak.	
A mailako lanpostu baterako	20,40 euro
B mailako lanpostu baterako	15,30 euro
C mailako lanpostu baterako	10,20 euro
D eta E mailako lanpostu baterako	5,10 euro
VIII. epigrafea.- Txostenak eta kontsultei emandako erantzunak.	
Txostenak egin eta kontsultei erantzuteagatik, oro har	20,40 euro
Udaltzaingoaren txostenak egiteagatik edo egindako bat handitzeagatik	Kostuaren arabera
Hirigintza-txostenak egiteagatik	Kostuaren arabera



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
j; Garcia Ximenez 36 - 31800

Katastroko txostenak egiteagatik	Kostuaren arabera
Sonometriak eta txostenak egiteagatik	32,70 euro
Udal artxibategian agiriak kontsultatu eta bilatzeagatik	Kostuaren arabera

Kontsultari erantzuteko edo txostena egiteko, ikuskaritza aldez aurretik egin behar denean, ikuskaritzari dagokion tasa ere likidatuko da.

IX. epigrafea.- Aurrekontuak eta Ordenantza Fiskalak:	
1) Ordenantzak, ale bakoitza	12,30 euro
2) Aurrekontuak, ale bakoitza	12,30 euro

SALBUESPENAK: 012 Infolocal zerbitzuaren bitartez eskatutako ziurtagiriak.

Erroldaren ziurtagiriak, lanbidea dela-eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eskatzen badituzte.

* Doako konpultsak, Udalarenak diren edo Udalera doazen agirienak.

* Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek sostengatutako pertsonendako doako ziurtagiriak.

* WEB edo egoitza elektronikoko bidez eskatutako ziurtagiriak.



4. ORDENANTZA:
ORDENANTZA, HERRI LARREEN APROBETXAMENDU ORDAINDUEN TASAK ARAUTZEN DITUENA

OINARRIA

1. ARTIKULUA.- Ordenantza hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legearen 25. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraikiz ezarri da.

ZERGA-EGITATEA

2. ARTIKULUA.- Zergapeko egintza da herrilurretako ondasun eta aprobetxamenduen erabilera berezia.

SUBJEKTU PASIBOA

3. ARTIKULUA.- Herri-lurretako edo ondasunetako erabileraren gozamina jasotzen duen pertsona fisiko edo juridikoa.

KARGA OINARRIA

4. ARTIKULUA.- Karga-oinarritzat hartuko da lurzatiaren azalera edo aprobetxamenduaren edo irabazien xedea.

TARIFAK

5. ARTIKULUA.- Aplikagarri diren tarifak ordenantza honetako eranskinean agertzen dira. Udaleko Osoko Bilkurak urtero berrikusiko du. Hori hala ez bada, Estatistikako Institutu Nazionalak ezarritako baremoaren arabera nekazariei ordaintzen zaizkien prezioak aplikatuz eguneratuko dira.

KUDEATZEKO ARAUAK

6. ARTIKULUA.- Gainerako arau-hausteetan eta zehapenei dagokienez, ordenantza fiskal orokorrean xedatuari jarraituko zaio.

7. ARTIKULUA.- Emakidaren esleipendunak urtero justifikatu beharko du lurrak erabiltzen dituela, eta abelburuen aitorpena ere aurkeztu beharko du. Udalak uste badu emakida ez dela modu egokian erabiltzen eta justifikatu gabe dagoela, bertan behera utziko du.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
j; Garcia Ximenez 36 - 31800

HERRI LARREEN APROBETXAMENDU ORDAINDUAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZARI DAGOKION TARIFEN ERANSKINA

TARIFAK:

Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 27. artikuluekin bat:

- a) Urtebete baino gehiago irauten duten aprobetxamenduetarako: agirian zehaztutako KPIa gehitzea.
- b) Nekazaritza, abeltzaintza eta oihangintzako aprobetxamendurako: kanonaren eguneratzea aurreko ekitaldiaren Nafarroako KPIren arabera.
- c) Herri-lurzoruko erlezaintzarako. Urteko kuota 60 eurokoa izango da 225 m²-ko, eta gehienez 15 erlauntza.

OHARRA. Definizioak:

- * NEKAZARITZARAKO ERABILERA: baratzeak, bazka, etab.
- * Aprobetxamendu intentsiboa: Abeltzaintza intentsiboa, ehiza, erlezaintza, etab.
- * Aisialdia: Zaldiak, zakur zaintza, etab.



5. ORDENANTZA:

UDALAREN MAKINERIA, IBILGAILUAK, LANABESAK ETA BESTELAKOAK UZTEKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

OINARRIA

1. art. - Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 28. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraikiz, arau honetan prezio publikoak ezarri dira Udalak baimentzen dituen pertsona fisiko edo juridikoak, erakundeek eta entitateek Udalaren makineria eta lanabesak erabiltzeagatik.

ZERGA-EGITATEA

2. art. - Pertsona fisiko edo juridikoak Udalaren altzariak, tresnak eta lanabesak erabiltzea, baita Udalak baimendutako erakunde edo entitateek erabiltzea ere; halaber, Udaleko langileek egindako edozein lan, udal ordenantza hauetan aurreikusita ez dagoena. Eta, betiere, modu subsidiarioan emanen dira, ekimen pribatuari dagokionez.

ORDAINDU BEHARRA NOIZ SORTZEN DEN

3. art. Prezio publikoa ordaindu beharra sortzen da baimena ematean, eta ordaindu beharko da altzariak eskura izan baino bi egun lehenago, gutxienez.

4. art. Udalak aipatu altzariak eta lanabesak erabiltzeko baimena zein pertsona edo entitateri ematen dion, horiexek daude beharturik prezio publikoa ordaintzera.

5. art. - Udalaren altzariak eta lanabesak erabiltzeko Udalbatzak onetsitako arauen arabera emanen da baimena.

Tasak materiala eraman baino lehenago ordaindu beharko dira.

Kaliterik egiten bada, eskatzaileak bere gain hartu beharko du, Udaleko teknikariek balorazioa egin ondotik.

OINARRIAK, TASAK ETA TARIFAK

6. art. - Utzitako elementuak zenbat denboran erabili diren, horren arabera izanen da zerga-oinarria.

7. art. - Erabilera denbora egun eta ordutan zenbatuko da, tarifetan zehazten denaren arabera, materiala udal biltegietatik ateratzen denetik hasi eta itzultzen den arte. Zatikia beti egun edo ordu osotzat hartuko da.

8. art. - Altzariak eta tresnak erabiltzeko tarifak eranskinean agertzen dira.

8.1. Erabilera berezia behar duten ibilgailuak eta makineria uzteko tarifei dagokienez, haien barnean daude ondasuna uztea eta hori maneiatzen duen pertsona. Langile gehiago behar direnean, ordaindu beharreko kuota izanen da elementu horiek uzteagatik aplikatu beharreko tarifei prestazioan parte hartu duten langileen kostua gehituz ateratzen dena, kategoriaren eta egindako orduen arabera.

8.2. Oholtzei buruzko tarifetan, ondasuna eta Udaleko langile bat sartzen dira, eta langile horrek oholtza muntatu eta desmuntatzeko jarraibideak emanen ditu. Muntatu eta desmuntatzeko langile gehiago behar direnean, ordaindu beharreko kuota izanen da elementu horiek uzteagatik aplikatu beharreko tarifei prestazioan parte hartu duten langileen kostua gehituz ateratzen dena, kategoriaren eta egindako orduen arabera.

8.3. Lagatako elementuak udal langileen bidez eta Udalaren bitartekoekin muntatu eta garraiatzen badira, kuota zehazterakoan elementu horiek erabiltzeko tarifari muntaketarengatik eta garraioarengatik dagokiona gehituko zaio, betiere kontuan harturik horretan aritzen diren langileak, kategoria, muntatu eta garraiatzeko erabili diren bitartekoak eta ordu kopurua.

8.4. Material suntsigarriak uzten direnean, tasari haien kostua gehituko zaio.

KUDEATZEKO ARAUAK

9. art. Material horiek eskuratzeko interesa duten partikularrek idatziz eskatuko dute, "Udalaren materiala eskatzea" izeneko eskabidean, beharrezkoa dutena eta erabiltzeko denbora argi azalduz.

10. art. - Utzitako elementuen erabilpen faseetan edozein motatako istripuak gertatuko balira, haien erantzukizuna ez legokioke inolaz ere Udalari.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
j; Garcia Ximenez 36 - 31800

11. artikulua. Eskatzaileak bere gain hartuko du utzitako materialak behar bezala ez erabiltzeagatik egiten diren hondamen edo kalteak konpondu edo ordaintzeko erantzukizuna, edozein izanagatik haien arrazoia edo zergatia. Horretarako, Udalak aurkeztuko dio likidazioa, non ez duen berak zuzenean hartzen egin behar diren konponketen ardura, Udalak hautatzen duen udal teknikariaren zuzendaritzapean, eta horren adostasunarekin.

12. art. - Materialak eta elementuak nahi erara emanen ditu Udalak, eta ukapenaren aurka ezin izanen da erreklamaziorik egin.

13. art. Lagatako materialak udal biltegitik hartu eta bertan entregatu beharko dira, astelehenetik ostiralera, lan orduetan, Udaleko Obren Zerbitzuko arduradunaren jarraibideak betez. Ikastetxeen kasuan, materiala ikastetxeetara eramane da.

14. art. Jarduera bukatzen denetik materialak udal biltegitik itzuli arte, entitate antolatzailearen erantzukizuna da horiek zuzen bildurik egotea, behar diren segurtasun neurrien arabera, hirugarrenek manipulatzeko aukerarik izan gabe.

SALBUESPENAK

15. artikulua. Altsasuko Udaleko Entitateen Udal Erregistroan inskribatuta dauden entitateak, ikastetxeak eta Sakanako Mankomunitatea ordaintzetik salbuetsiko dira materialen lagapenagatik eta langileen zerbitzuengatik, baldin astelehenetik ostiralera egiten badira, Udaleko Obra Zerbitzuaren laneko ordutegian.

16. artikulua. Udalaren laguntza jasotzen duten entitateak salbuetsiko dira fidantza ordaintzetik. Kasu horietan, emandako materiala hondatuta itzultzen bada, kalteen zenbatekoa dagokion diru-laguntzatik kenduko da.



ORDENANTZA, PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA MAILEGUAN HARTZEKO UDALAREN MAKINAK, IBILGAILUAK, LANABESAK ETA BESTELAKOAK. TARIFEN ERANSKINA

I. EPIGRAFEA.- IBILGAILUAK, MAKINERIA

IBILGAILUAK	ETA	Orduaren kostua (2024)
MAKINAK		
Kamioi baskulagarria		55,00€
Zapalgailua		55,00€
Konpresoreak		88,00€
Kolektoreetarako motoponpa		31,00€
Pala		47,00€
Kaleak garbitzeko makinak		44,00€ Fidantza: 150,00€
Sega-makina		22,00€
Suhiltzaile zerbitzuko mahuka		5,00€
Dumperra		36,00€
Zepoak jartzea eta kentzea		38,00€
Urez garbitzeko makina		45,00€
Kaxa elektrikoa (unitateko eta eguneko)		32,00€
Komun eramangarri unisexa (8 lagun).		Lehen eguna: 106,00 € 79,00€/ euro eguneko, bigarren egunetik aurrera Bermea: 150,00 €
Elektrizitate mahuka (unitateko eta eguneko)		32,00€

II. EPIGRAFEA.- ALTZARIAK

ALTZARIAK	2024KO	2024KO
	TASAK	FIDANTZA
Agertoki estalia (6x10).	333,00€	150€
Agertokia (6x10).	201,00€	150€
Agertoki txiki estalia (5 x 4)	164,00€	150€
Agertokia (5x4)	106,00€	150€
Oholtza modulua (2 x 1)	5,50€/modulua eguneko	150€
Jaima	98,50€	150€
Argiak (3 foku)	106,00€	150€
Soinu ekipamendu eramangarria	106,00€	150€
180 aulki (bakoitza)	0,65€	150€
Obra hesiak (bakoitza)	1,15€	150€
Udaltzaingoaren hesiak (bakoitza)	1,15€	150€



Olana	222,00€	150€
Podiuma	62,50€	50€
Zelandiko anplifikadorea (kiroldegian edo Zelandi frontoian erabiltzeko, ez beste inon)	----	60€
Markagailu elektronikoaren erabilpena	----	90 €

II. EPIGRAFEA.- GAZTERIA ZERBITZUAREN ALTZARIAK

Altzariak	2024.urteko tasa (2024. urtea)	Fidantza (unitate bakoitzeko, euroak)
Aulkiak, besopausatzekoekin (unitatea)	1,00 (helduak)	- –Bazkide diren gazteak: 5,00 - –Bazkide ez diren gazteak: 10,00 - –Helduak: 20,00
Aulkia, besopausatzekorik gabea	1,00	-Bazkide diren gazteak: 5,00 - –Bazkide ez diren gazteak: 10,00 - –Helduak: 20,00
Mahaia (unitatea)	11,00 (helduak)	- –Bazkide diren gazteak: 20,00 - –Bazkide ez diren gazteak: 30,00 - –Helduak: 50,00

Gehineko fidantza 150,00€.

Gazteria Zerbitzuko fidantza ordaintzetik salbuetsiak: Diru premia larria dutela frogatzen duten gazteak, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako teknikariek egindako txosten baten bidez frogatu ere, Gazteria Zerbitzuan berariaz eskatu ondoren.

Elementuak garraiatu eta/edo muntatu behar badira, tarifek gora egingen dute, honela:

- –Esku hartzen duen C mailako udal langile bakoitzeko, ordu edo zatiki bakoitzeko: 25,50 euro.
- –Esku hartzen duen D mailako udal langile bakoitzeko, ordu edo zatiki bakoitzeko: 18,70 euro.



III. EPIGRAFEA.- MATERIALAK

Kontzeptu honengatik aplikatu beharreko tarifak likidatuko dira Udalak materialak erosi edo lortutako prezioan, barnean dela balio erantsiaren gaineko zerga, eta oinarritzat hartuko dira hornitzaileen fakturak.

III. EPIGRAFEA.- GAZTERIA ZERBITZUAREN MATERIALAK

Materialak	2024.urteko tasa (euroak)	Fidantza (unitate bakoitzeko, euroak)
Gazteguneko material txikia	6,00 (helduak)	- -Bazkide diren gazteak: 5,00 - -Bazkide ez diren gazteak: 10,00 - -Helduak: 20,00
Proiektagailua, pantaila edo antzekoak	22,00€ euro (gazteak helburu pribatuekin eta helduak)	- -Bazkide diren gazteak: 30,00 - -Bazkide ez diren gazteak: 60,00 - -Helduak: 150,00

VI. EPIGRAFEA: UR BILTONTZIAK BETETZEA.

Tasa finkoa (gutxienekoa)

43,00€



6. ORDENANTZA:
ORDEZKO BETEAZPENETARAKO ETA BETEARAZPEN AGINDUETARAKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

OINARRIA

1. ARTIKULUA.- Tasa hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legearen 100 artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraikiz ezarri da.

ZERGA-EGITATEA

2. ARTIKULUA.- 1. Zerga-egitatea honako kasu hauetan zerbitzu egitea edo laguntza ematea da:

a) Ibilgailuak, zaborrak eta obra-hondakinak garbitzea eta kentzea, baldin eta lur edo lokalen jabeek, okupatzaileek —edo pilaketaren arduradunek— kentzeko agindua bete nahi ez edo horren aurka egiten badute.

b) Abereak, altzariak edo bestelako trasteak udal altxatoki edo egoitzetan altxatzea, edo udalaren bizkar.

c) Exekuzio aginduak, eraispenak, konponketak, urbanizazio pribatuen exekuzioak, kolektoreen garbiketa, eta orokorki Udalaren ordenantzan ahiz erabakaik betetzeko ordezeko exekuzioen eginbideak.

d) Herritar soilek eragindako Udaltzaingoaren zerbitzu bereziak.

c) Animaliak lurperatzeko zerbitzua.

2. Interesdunek berek eragiten dituzten zerbitzuek, eta bereziki beren mesederako direnek, eta bai ere ondasunak berreskuratzeko larritasunagatik edo ordena publikoa, segurantza, osasungarritasuna, edo higiena direla medio derrigor eman beharrekoak direnek, horiek guztiak ordainarazpena sortzea ekarriko dute nahiz eta zerbitzua ez izan interesdunek eskatua.

3. ARTIKULUA. Udalak zilegi izanen du, nolana ere, enpresa pribatu bat kontratatzea ordenantza honek aipatzen dituen zerbitzuak emateko. Larrialdiko kasuetan, eta kontratazio arategiak agintzen duenaren arabera, udal zerbitzuek zilegi izanen dute zuzenean kontratatzea enpresen, teknikari eskudunen eta beste bitarteko batzuen zerbitzuak, eta gero Alkatetzari edo, bestela, Udalbatzari horren berri ematea.

TASAREN SORTZAPENA

4. ARTIKULUA.- Zerga ordaindu beharra, zerbitzua ematen den momentu berean sortzen da, eta zilegi da konturako nahiz zatikako kitapenak ordaintzeko eskatzea.

SUBJEKTU PASIBOA

5. ARTIKULUA.- Modu solidarioan pagatzera behartuta daude legez erantzun beharra duten pertsona natural nahiz juridikoak, hurrengook, alegia:

a) Zerbitzua eman beharra eragiten duten egintzetako ondasunen jabe edo erantzuleak edo haren onura jasotzen dutenak.

b) Halakorik izaten bada, maizter edo erabiltzaileak, edozein titulu dela bide.

c) Espreski egindako exekuziozko erabaki edo agindu baten ondorioz erantzule ateratzen direnak.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
j; Garcia Ximenez 36 - 31800

KARGA OINARRIA. TARIFAK ETA KUOTAK

6. ARTIKULUA.- Honako hauek dira ordainarazpen honen zerga-oinarri:

- a) Betearazpen aginduak: eginkizun dagoen obrari egin behar zaion baloraziotik helduko dena.
- b) Ordezko betearazpena: Betearazpenaren kostu osoa, honako hauen arabera zehaztua:

1. Zerbitzua emateko behar izan diren baliabide pertsonalen kostua, zuzentze, begiratze eta kontrolatze zerbitzuak ere barne.

Arkitekto, aparejadore eta antzeko teknikariek esku hartu beharra izaten bada, hau da, lansariak teknikari elkargo batek tarifatuak dauzkaten teknikariek, zerga-oinarria finkatzeko dagokion elkargoko tarifa ofizialei egingen zaie kasu.

Gainerako kasuetan, pertsonalaren kostua finkatzeko, horretan eman den denborari eta zerbitzua egin duen pertsonalaren kategoriari kasu egingen zaio, % 35 gehituta, osasun laguntzagatik, Montepioari Udalak egiten dion ekarpenagatik eta pentsioengatik.

2. Baliabide material galkorren kostua, Udalak erosi zitueneko prezioan baloraturik, hornitzailearen fakturan ageri den bezala.

ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

Arau-hausteei dagokienez, indarreko legedia eta Ordenantza Fiskal Orokorra aplikatuko da.



7. ORDENANTZA:

ERABILERA PUBLIKOKO LURRETAN ZANGAK IREKITZEKO ETA EREMU PUBLIKOKO ZOLADURAN EDO ESPALOIETAN EDOZEIN MUGIMENDU EGITEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

OINARRIA

1. ARTIKULUA.- Ordenantza hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legearen 28. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraikiz ezarri da.

ZERGA-EGITATEA

2. ARTIKULUA. Zerga honen zergapeko egintza da zernahi eraikin, instalazio edo obra egitea, baldin hartarako beharrezkoa bada hirigintza edo obra lizentzia bat, hori ematea Berriozarko Udalari dagokion guztietan, lizentzia hori erdietsia izanik ala izan gabe.

EZ ORDAINTZEKO KASUAK

3. ARTIKULUA.- Honelakoetan ez da tasa ordaindu beharko:

1) Zangak irekitzen direnean eta zoladuran mugimendua egiten denean jabe eta erabilera pribatua duten lurretan, deusetan ukatu gabe obra lizentzia eskatzeko eta obragatik behar den tasa ordaintzeko beharkizuna.

2) Zangak partikularrek irekitzen dituztenean Lurzoruari buruzko Legeari jarraikiz onetsitako urbanizazio proiektuan hala aurreikusita egonda; orduan, obra lizentziaren tasa baizik ez da ordainaraziko.

3) Zerbitzu publikoen enpresa ustiatzaileek egindako aprobetxamenduengatik, baldin eta aprobetxamendu guztien ordainketa hitzartu bada; halakoetan, enpresa horien aprobetxamenduen gaineko berariazko arauari edo aplikatzen ahal diren udal erabakiei jarraituko zaie.

ORDAINDU BEHARRA

4. ARTIKULUA.- Tasa hau ordaindu beharra sortzen da zangak irekitzeko edo zoladuran edo espaloietan edozein mugimendu egiteko baimena edo lizentzia ematen den unean, edo behar den baimenik gabe jokatu bada, aprobetxamendua hasten denetik.

SUBJEKTU PASIBOA

5. ARTIKULUA. Baimena nori ematen zaion, pertsona natural edo juridiko horixe dago ordaintzera behartua. Aginduzko baimenik gabe egindako aprobetxamenduak direnean, aprobetxamendu horiek nori egiten dioten onura eta materialki nori egiten dituen, horietatik daude, solidarioki, ordaintzera behartuak.

KARGA OINARRIA

6. ARTIKULUA. Tarifak jakiteko oinarria izanen da egin beharreko aprobetxamendua egin ahal izateko mugitu edo ireki beharreko zoladuraren, galtzadaren, espaloien edo Udalaren erabilera publikoko ondasunen azalera.

TARIFAK

7. ARTIKULUA.- Aplikagarri diren tarifak ordenantza honetako eranskinean agertzen dira.



ONDASUNAK ETA INSTALAZIOAK BERRERAIKI, BIRREZARRI EDO KONPONTZEA

6. ARTIKULUA. Ordaintzeko beharturik dagoenak aprobetxamendua egin den tokietako ondasun eta instalazioak berreraiki, birrezarri eta konpondu beharko ditu.

9. ARTIKULUA. Konponezinak diren kalteak egiten badira, interesdunak ordaindu beharko ditu. Udal teknikariek zehaztuko dute kalte-ordainaren zenbatekoa, desegindako gaiak balio dutenaren edo kaltetutakoaren balio galeraren arabera, aplikagarri den legeriari jarraikiz.

10. ARTIKULUA. Aurreko artikuluetan ezarritakoaren ondorioetarako, ordaintzera beharturik dagoenak gordailu bat egin beharko du, lehenik eta behin, zanga behar bezala betetzeko erabiliko dena eta, behar izanez gero, zoladura emateko, eta pasabideen kasuan, hurrengo batean berreraikitzeke, hala nola konponezinak gerta daitezkeen kalteak ordaintzeko.

11. ARTIKULUA. Ordenantza honen xede diren aprobetxamenduetan, aprobetxamendurako baimendu diren metro karratuen arabera zehaztuko da fidantzaren zenbatekoa, ordenantza honetako tarifen eranskinarekin bat, eta itzuli eginen zaizkie interesdunei, alde aurretik eskaera egin eta aldeko txosten teknikoa ematen bada; hala ez denean, atxiki eginen da, udal teknikarien txostenetan agertzen diren akatsak konpondu arte.

KUDEATZEKO ARAUAK

12. ARTIKULUA.- Edozein arrazoi dela medio, zangak ireki edo zoladura edo espaloietan edozein mugimendu egin nahi duen pertsona natural edo juridikoak, behar den baimena eskatuko dio Udalari, eta horretarako dagokion ordenantzetan eskatutako baldintzak bete beharko ditu.

13. ARTIKULUA.- Lizentziak ematen diren unean behar diren tasak ordaindu beharko dira. Lizentziaren eraginkortasuna lotua geldituko da tasak alde aurretik ordaintzeari eta dagokien deposituak osatzeari.

14. ARTIKULUA. Baimenak indarra galduko du hura eman eta sei hilabetetan ez badira obrak hasi edo ezarri epean ez badira bukatu.

15. ARTIKULUA.- Eskatzaileek obra egiteari uko egiten ahalko diote, lizentzia onartu ondoan eta iraungitzeko epea iragana urrera. Idatziz egin beharko dute, eta onartu eginen da, betiere obrak hasi ez badira.

Halakoetan, tasaren %90 itzuliko zaie; ordaindu ez bada, tasaren %10 eskatuko zaie, gehi premiamendu-errekargua, hala bada. Nolanahi ere, atzera egiteko, behar bezala justifikatu beharko da.

ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

16. ARTIKULUA.- Iruzurtzat hartuko da baimendua baino azalera edo luzera handiagoko aprobetxamendua egitea, baita obrak egiteko emandako denbora baino gehiago luzatzea ere. Arau-haustea da, orobat, behar den baimena izan gabe aprobetxamendua edo obrak abiatzea.

17. ARTIKULUA.- Gainerako arau-hausteetan eta zehapenei dagokienez, ordenantza fiskal orokorrean xedatuari jarraituko zaio.



TARIFEN ERANSKINA, ERABILERA PUBLIKOKO LURRETAN ZANGAK EGITEKO ETA EREMU PUBLIKOAREN ZOLADURAN EDO ESPALOIETAN EDOZEIN MUGIMENDU EGITEKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALARENA

Hauek dira ordenantza honen bidez aplikatuko diren tarifak:

I. EPIGRAFEA- ZANGAK IREKITZEA

1.1 Zangaren zabalera metro lineal bat baino txikiagoa bada, metro luze bakoitzaren sorrarazpena izanen da:

KONTZEPTUA	2024
Harrizko zoladura duten lekuetan	15,00
Zoladura arrunta duten lekuetan	12,00
Zoladurarik gabeko lekuetan	7,00

1.2 Zangaren zabalera metro lineal bat baino txikiagoa bada, metro luze bakoitzaren sorrarazpena izanen da:

KONTZEPTUA	2024
Harrizko zoladura duten lekuetan	12,25
Zoladura arrunta duten lekuetan	12,00
Zoladurarik gabeko lekuetan	8,50

1.3. Zanga irekitzeagatik ibilgailuei bidea itxi behar bazaie, dela osorik, dela norabide bat edo bide nahiz zati nagusi bat, aurreko epigrafeetako tarifei %20 gehituko zaie.

II. EPIGRAFEA.-Ibilgailuen pasabideak, karga-ahoak, aireztapenak, lukanak, kalapatxak egitea edo deuseztatzea eta zoladuran edo espaloietan edozein mugimendu egitea.

- Metro lineal bakoitzeko, alderik handienera:

35,70€ € (2024. URTEA)



8. ORDENANTZA:

ORDENANTZA, ZERBITZU PUBLIKOAK USTIATZEN DITUZTEN ENPRESEK EREMU PUBLIKOKO ETA HERRILURRETAKO LURZORU, HEGALKIN ETA ZORUPEAN EGITEN DITUZTEN APROBETXAMENDU BEREZIEN PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA

OINARRIA

1. ARTIKULUA.- Ordenantza hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legearen 28. artikuluan ezarritakoari jarraikiz ezarri da.

ZERGA-EGITATEA

2. ARTIKULUA. Zergagaia sortzen du herritar guztiak edo haien zati handi bat ukitzen dituzten hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek herrilurretako eta bide publikoko zoru, hegaldura eta zorupean eginiko probetxamendu bereziek.

ORDAINDU BEHARRA

3. ARTIKULUA.- Ordaintzeko beharra sortzen da hornidurako zerbitzu publikoen enpresa ustiatzaileek zorua, hegalkina eta zorupea okupatzen dituztenean honako hauetako zerbaitekin: kableak, hodiak, kanalizazioak, biltontziak, arketak, transformadoreak, zutoinak, tximeleta-azkoinak, banaketa eta erregistro kutzak eta zerbitzu egitearekin ikusteko duten gainerako aprobetxamenduak.

SUBJEKTU PASIBOA

3. ARTIKULUA. Eremu publikoko edo herrilurretako zorua, hegalkina eta zorupea hornidurako zerbitzu publikoak ustiatzeko erabiltzen dituzten enpresek dituzte tasa hauek ordaintzeko beharra.

KARGA OINARRIA

5. ARTIKULUA.- Karga-oinarritzat hartuko da enpresek egindako probetxamenduen batez besteko balioa. Horretarako, probetxamenduen batez besteko balioztat hartuko da enpresa horiek udalerrian lortzen dituzten sarrera gordinak.

TARIFAK

6. ARTIKULUA.- Aplikagarri diren tarifak ordenantza honetako eranskinean agertzen dira.

KUDEATZEKO ARAUAK

7. ARTIKULUA. Hornidurako zerbitzu publikoak ustiatzen dituzten enpresek behar den lizentzia eskatu beharko dute, aprobetxamendu bereziren bat egin behar dutenean.

8. ARTIKULUA. Delako aprobetxamendua egin ahal izateko obra egin behar denean, enpresek behar den obra lizentzia eskatu beharko dute.

9. ARTIKULUA.- Enpresa ustiatzaileek aprobetxamendua egin den tokietako ondasun eta instalazioak berreraiki, birrezarri eta konpondu beharko ditu. Kalteak konponezinak badira, enpresek



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
j; Garcia Ximenez 36 - 31800

dagokion kalte-ordaina pagatu beharko dute. Kalte horiengatik erantzuteko, aurretik horien zenbatekoaren gordailua eratu beharko dute; zenbatekoa zehazteko, partikularren aprobetxamenduak balira bezala hartuko dira, aprobetxamendu horiek arautzen dituzten ordenantzetan ezarritakoaren arabera. Enpresek aprobetxamenduak nola edo halako jarraikortasun eta aldizkakotasun batez egiten badituzte, hiriko toki ezberdinetan bada ere, kudeaketa administratiboa erraztu ahal izateko, gordailu oso bat ezar dezaten itun daiteke, itunean ezarri aldietan ikuskatua eta aipatu aldietan aprobetxamendu horietan ustezko kalteen arabera zenbatua.

10. ARTIKULUA.- Tasa ordaintzera beharturik dauden hornidurako zerbitzu publikoak ustiatzen dituzten enpresek hiruhilero aurkeztu beharko dute udalerrian erdietsi diru-sarrera gordinen aitorpena. Diru-sarrera horiek aurreko hiruhilekoari dagozkionak izanen dira.

11. ARTIKULUA. Aitorpena aurkeztearekin batera, enpresek dagozkien tasen zenbatekoa Udalean berean edo horretarako ezarri erakundearen sartu beharko dute.

ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

12. ARTIKULUA.- Gainerako arau-hausteetan eta zehapenei dagokienez, ordenantza fiskal orokorrean xedatuari jarraituko zaio.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
j; Garcia Ximenez 36 - 31800

ZERBITZU PUBLIKOAK USTIATZEN DITUZTEN ENPRESEK EREMU PUBLIKOKO ETA HERRI-LURRETAKO LURZORU, LURGAIN ETA LURPEAN EGITEN DITUZTEN APROBETXAMENDU BEREZIEN PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA. TARIFEN ERANSKINA.

TARIFAK (HITZARMEN BIDEZ MANTENTZEN DIRA)

Zerbitzu publikoak ustiatzen dituzten enpresei tarifa mota hauek aplikatuko zaizkie: udal mugartearen barnean eskuratzen dituzten diru-sarrera gordinen gaineko tasa ARGINDAR ENPRESEI (%1,5) eta TELEFONICARI (%1,9), eta okupatzen dituen metro linealen araberakoa ENAGASI.



9. ORDENANTZA:
EREMU PUBLIKOKO ETA HERRILURRETAKO ZORU, HEGALKIN ETA ZORUPEKO
APROBETXAMENDU BEREZIEN TASAK ARAUTZEN DITUENA.

OINARRIA

1. art.- Ordenantza hau ondoko arauetan xedatutakoaren babespean ezarri da: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 122. artikuluan; urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Nafarroako Entitateen Ondasunei buruzko Erregelamenduaren 93. artikuluan eta hurrengoetan; eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 28. artikuluan eta hurrengoetan.

ZERGA-EGITATEA

2. art.- Eremu publikoko eta herrilurretako zoru, hegalkin eta zorupean ondoko aprobetxamendu edo erabilera pribatiboetarik edozein egitea da zergapeko egintza:

- a) Erabilera publikoko lurren zorupea okupatzea.
- b) Erabilera publikoko lurra salgai, eraikuntzako material, hondakin, hesi, puntal, euskarri, aldamiu edo gisako instalazioen bidez okupatzea.
- c) Pisuetako burdinsareak, soto edo sotoarteei argia, aireztapena, pertsonen sarbidea edo ibilgailuen sarrera eman ahal izateko herriko edozein eremu publikotako zoru edo zorupean kokatutako lukana, arnasbide, ate, karga-aho edo gisako elementuak, bai eta argi-sare publikotik egindako hargunea ere.
- d) Toki entitateko edozein eremu publikoko hegalkina ukitzea, eraikinak ixteko elementu, terraza, behatoki, balkoi, markesina, olana edo gisako instalazioekin, eremu publikoaren gainean dauden edo fatxadaren lerrotik ateratzen diren hegalkinak, eta balkoi eta terrazak kristalez ixtea.
- e) Eremu publikoan edo herriko jabari publikoko bestelako lurretan edo haien lurgainean kokatuta dauden hariak, hodiak eta galeriak, argi indarra, ura, gasa edo beste edozein isurkari eramateko; kableak, horma-besoak, lotura, banaketa edo erregistrorako kaxak, transformadoreak, burdin-barrak, baskulak, aldamiuak eta gisakoak; eta salmenta automatikorako tresnak eta gisakoak.
- f) Irabazteko xedearekin mahaiak, aulkiak, tribunak, oholtzak edo haien gisako bestelako elementuak jarritz erabilera publikoko lurra okupatzea.
- g) Eremu publikoan kioskoak paratzea.
- h) Erabilera publikoko lurretan kokatutako postu, barraka, saltoki, ikuskizun eta jolaskizunak jartzea, bai eta kalez kaleko industriak eta zinema filmaketa ere.
- i) Portada, erakusleihu eta beirarasak.
- j) Erregaiaren biltontziak eta hornigailuak eta, oro har, erabilera publikoko lurretan kokatutako artikulua edo salgaiak.
- k) Iragarkiak paratzea, jabari publikoko lurra eta/edo lokalaren azalera osoa okupatzen badira, betiere 6.000.- euro espediente bakoitzeko gehienez ere.
- l) Lur, eraikin edo hesiei eusteko hormak, behin betikoak zein behin-behinekoak, toki entitateko eremu publikoetan.
- m) Azienda herriko eremu publikoan edo herriko jabari publikoko lurretan barna igarotzea.
- n) Beste hainbat aprobetxamendu, baldin eta horietan inguruabar berezi batzuk badira, hala nola, arriskugarritasuna, erabilera-maiztasuna, errentagarritasun berezia edo horien antzeko beste zenbait, eta, bereziki, eremu publikora ematen duten fatxadetan kutxazain automatikoak paratzeak dakarren aprobetxamendua.

ORDAINDU BEHARRA

3. art.- Ordaindu beharra erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hastean sortzen da, eta aurretik behar den baimena eskatu behar da.



Udalaren nahitazko lizentziarik aurretik izan gabe erabilera edo aprobetxamendua hasten bada, ordenantza fiskal honetan ezarritako tasa pagatzeak ez ditu izandako erabilera edo aprobetxamenduak legeztatuko eta kalte-ordainik eman gabe instalazioak kentzeko agindu daiteke.

Ordenantza honetako erabilera edo aprobetxamenduak tasaren aldiaren behingo sorrarazpena behar badu, hura urtarrilaren 1ean izanen da urtero eta zergaldia urte naturala izanen da, salbu eta erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia urte hartan hasi edo bukatu den kasuetan, orduan zergaldia horren arabera moldatuko baita eta berdin kuota hainbanatuko.

SUBJEKTU PASIBOA

4. art. Tasa ordaintzera beharturik daude, zergadunak diren aldetik, pertsona fisiko zein juridikoak eta, nortasun juridikorik ez izanik ere, unitate ekonomikoa edo ondare berezia osatzen duten entitateak, baldin eta, toki entitateko jabari publikoko lurzoru, hegalkina eta zorupearen erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezia egiten badute, edo hari onura ateratzen badiote.

Eremu publikoan paratzen diren edukiontzien kasuan, lizentziaren titular edo aprobetxamenduaz baliatzen direnez gain, zaborrontzien jabeek eta etxegileek ere ordaindu beharko dute.

5. art. Hornidurako zerbitzu publikoak ustiatzen dituzten enpresek lurzoruan, hegalkinean eta zorupean egindako erabilera edo aprobetxamenduen tasak horien gaineko ordenantza fiskalen edo aplikagarri diren udal erabakien menpe egonen dira.

ZERGA OINARRIA

6. art. Tarifak aplikatzeko oinarria zehaztuko da aprobetxamenduaren iraupenaren eta okupatutako eremu publikoaren azaleraren arabera.

MOTA

7. art. Karga-tasa ordenantza honen eranskinean agertzen da.

8. art. Kuota izanen da zerga-oinarriari ordenantza honetako eranskinean agertzen den karga-tasa aplikatzearen ondoriozkoa, edo bestenez horretarako adierazten den zenbateko finkoa.

KUDEATZEKO ARAUAK

9. art.- Erabilera pribatiboak edo aprobetxamendu bereziak berekin dakartenean udal ondasun edo instalazioen suntsiketa edo narriadura, onuraduna aipatu horiek berreraiki edo konpontzeko gastuen kostua ordaintzera beharturik dago, behar den tasa ukatu gabe ere.

Udaleko teknikariek eginen dute gastu horien balorazioa, haien kostu zenbatetsiarekin bat. Halakorik ez bada, 5. ordenantza fiskalean ezarritako kalte-ordainak aplikatuko dira, Erabilera publikoko lurretan zangak, laginketak eta zuloak ireki eta eremu publikoko zoruan edo espaloietan edozein mugimendu egiteko tasak arautzen baititu.

10. art. Erabilera dela-eta sortutako kalteak konponezinak badira, onuradunak desegindako gaiek gaur egun zenbait balio duten edo kaltetutakoen baliogalera norainokoa den, halako bi emanen dio ordainetan Udalari, Udaleko teknikariek egindako zenbatespenarekin bat. Bereziki konponezintzat hartuko diren kalteak interes artistiko edo historikoa duten monumentuetan eta 20 urte baino gehiagoko zuhaitzetan egindakoak izanen dira.

11. art.- Udalak fidantza pausatzea galdatzen ahalko du aurreko artikuluetan adierazten diren kalteei erantzuteko, udal teknikarieren zenbatespenarekin bat.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
j; Garcia Ximenez 36 - 31800

Gordailua, lehenik, kalteen ordainari lotetsiko zaio eta geroago, berriz, zehapenei indarra duen araudia edo lizentziaren baldintzak ez betetzeagatik, edo bestenez tasaren beraren ordainketari.

Fidantza itzultzeko beharrezkoa izanen da alde zuzeneko txostena, indarra duen arautegia eta lizentziaren baldintzak hertsiki bete direla eta zoladura behar bezala konpondu dela adierazten duena.

12. Art.- 1) Ordenantza honetan araututako tasei lotutako aprobetxamenduek edo erabilerak behar den errolda edo zentsua izanen dute ohikoak eta etengabeak badira. Kobratzeko ondorioetarako, zor horiek jakinarazi gabekoen artean sailkatuko dira, eta urtero likidatzen ahal dira, urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik aurrera.

2) "Mahai, aulki eta mahaitxoak" izeneko 1. epigrafeari dagokionez, Udalak baimena osorik balio gabe utzi edo aldi baterako ken dezake arrazoi bidezko, obra, konponketa eta abarrik badago, eta kobratutako tasaren zati proportzionala soilik itzultzeraz behartuta dago.

Merkatu txikiak Udalak erraten duen egunetan eta esparruetan baizik ez dira egiten, eta debekaturik egonen da mota guztietako salgaiak Altsasuko eremu publikoan saltzea egun eta toki horietatik kanpora.

Zoruaren okupatzaileek kokatu diren tokiak garbitu beharko dituzte.

Eskubide guztiak aurretik ordaindu behar dira.

ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

13. art.- 1) Iruzurtzat hartuko da behar den lizentziarik gabe aprobetxamendua edo erabilera hastera.

2) Bestelako arau-hausteei dagokienez eta zehapenekin ikusteko duten afera orotan, Ordenantza fiskal orokorrak xedatutakoari jarraituko zaio. Udalak, agindu bidez, lizentzia edo baimenik gabeko muntadurak eremu publikotik ken ditzake udal biltegi-talara eramateko, eta muntadura hori desmuntatu, garraiatu, biltegi-eraman eta egin behar den beste edozergatik sortutako tasak eta gastuak jabearen bizkar geldituko dira.

14. art.- Aprobetxamendu honetaz baliatzeko, Korporazioak kontzesioa egiteko onesten dituen baldintzen agirian erraten dena bete beharko da.



B) TARIFAK:

I. EPIGRAFEA: Lurzoruko aprobetxamendu bereziak.

Mahaiak, aulkiak, upelak eta eremu publikoa okupatzen duten bestelako tresnak: 21,85 € m2/urtea.
Ostalaritza- eta merkataritza-establezimenduetako mahaitxoak: 43,60 €/m2/urtea.

Atzeraeraginez aplikatuko dira, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Azoka txikiko postuak, azoketako atrakzioak, txosnak, kanpoko barrak, txurro-dendak eta antzekoak:

Azoka txikiaren urteko tarifa 436,00 euro da 6 metro linealeko postu bakoitzeko. Azalera txikiagoa edo handiagoa duten lanpostuen kasuan, aplikatu beharreko tarifa proportzionalki handituko edo murriztuko da.

Lehen eguna: 1,32 €/m2

Bigarren egunetik aurrera: 0,60€/m2

FIDANTZA: 300,00 €

Karpa jartzea gertaera soziokulturaletarako

-Tasa: -Lehen eguna 0,73 €/m2

-Bigarren egunetik aurrera: 0,33 €/m2

-Fidantza: 300,00 €

1-3.- Bestelako aprobetxamenduak.

KONTZEPTUA		2024
Aldamioak, garabiak, edukiontziak eta abar		0,10
Olanak		5,80
Kioskoak eta salmenta makinak		43,55
Saltokia nekazaritzako elikagaien ferian		21,85
Taloen salmahaia	1. eguna	54,60
	2. egunetik aurrera	32,75

Minusbaliotasuna dutenak salbuetsirik.

FIDANTZA: 150,00€



1.4. Instalazioak eremu publikora jotzen duten fatxadetan, unitate bakoitzeko urtean. 2024

*Banku entitateen kutxazainak	75,00€
* Saltzeko makinak eta beste:	50,00€

Lurzorua okupatzeko, Udaltzaingoaren jarraibideei segitu beharko zaie sarbideen arautzeaz eta pertsonen eremu publikoko trafikoaz den bezainbatean.

II. EPIGRAFEA Lurzoruko aprobetxamendu bereziak:

KONTZEPTUA	2024
Paratutako biltontzi bakoitzeko (10.000 litro bitarte)	56,50
Paratutako biltontzi bakoitzeko (10.000 litrotik gora)	114,35
Gasa banatzeko sare orokorrak paratu eta aprobetxatzea	5,80
Gainerako aprobetxamendua	0,10

Gasontzietan dagokienez, aurreko tasak aplikatuko dira, m³/litroak erlazioari dagokionaren arabera.

IV. EPIGRAFEA Gutxieneko eskubideak

Baldin aurreko epigrafeengatik ordaindu behar diren tasak ez badira iristen gutxieneko zenbatekoetara, honako hauek ordaindu beharko dira:

KONTZEPTUA	2024
Aldamioak	23,00
Hesiak	23,00
Bestelako aprobetxamenduak	15,40

V. EPIGRAFEA: Gainerako aprobetxamendua.

Kuota: 56,00 2024. urtea



ORDENANTZA, EREMU PUBLIKOKO ETA HERRILURRETAKO ZORU, HEGALKIN ETA ZORUPEKO APROBETXAMENDU BEREZIEN PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA

1. ERANSKINA

MAHAIAK, AULKIAK, BELADOREAK ETAB JARRIZ EREMU PUBLIKOA OKUPATZEA TERRAZAK ORO HAR

1. ARTIKULUA

Hotel, kafetegi, taberna, aisia-elkarte, merkatari eta industrialarietara eskubideak ordaindu beharko dituzte kontzeptu horrengatik, betiere eremu publikoan, modu iraunkorrean edo aldi baterako, mahaiak, aulkia, beladoreak, etab. jartzen badituzte.

3. ARTIKULUA

Udaltzainen ikuskapenean eskatzaile bakoitzari esleitutako espazioa seinaleztatuko da, eta industrial, merkatari edo interesdunek ezin dituzte inola ere seinale horiek gainditu, ezertan ukatu gabe dagokion isuna; beraz, mahaiak, aulkia, mahai hankabakarrak eta halakoak seinaleztatutako lurrian instalatu behar dira.

Era berean, industrialarietara, merkatarietara edo interesdunek aipatu eremua zerraditu beharko dute jardinerara egokiak erabiliz, gutxienez ere mahaiak, aulkia, beladoreak, etab. eremu publikoa okupatzen ari diren bitartean.

4. ARTIKULUA

Industrialarietara, merkatarietara edo interesdunek terraza jarri behar den tokiaren ondoko beheko solairuko jabeen edo erabiltzaileen baimen idatzia eskuratu beharko dute terraza jartzeko.

5. ARTIKULUA

Guztiz debekatuta dago eremua mugatzea jardinerara egokiak ez diren elementuekin edo pertsonentzat nahiz ondasunentzat arriskutsuak izan daitezkeen elementuekin.

Erabat debekatuta dago mahaiak, aulkia, beladoreak, etab. jartzea baldin eta udaltzaingoaren arabera, pertsonen edo ibilgailuen joan-etorrian nabarmen traba egiten badute.

6. ARTIKULUA

Kontzeptu horrengatik ordaindu beharrekoa ordenantza honetan ezarritakoari jarraikiz ezarriko da.



10. ORDENANTZA

ORDENANTZA FISKALA, JARDUERA SAILKATU ETA KALTEGABEETAN ARITZEKO ETA JARDUERAK ESKUALDATZEKO LIZENTZIAREN TASAK ARAUTZEN DITUENA

OINARRIA

1. ARTIKULUA.- Ingurumena babesteko jarduera sailkatuetan eta jarduera kaltegabeetan aritzeko eta jarduera eskualdatzeko lizentziaren gaineko tasen ordainarazpena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 100. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraikiz ezarriko da.

ZERGA-EGITATEA

3. ARTIKULUA. Zerga-egitatea da zerbitzu tekniko eta administratiboak ematea, Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legearen ondorioz jarduera sailkatuaren udal lizentzia behar duten instalazio eta jarduerak ezartzeko, ustiatzeko, lekualdatzeko, funtsezko aldaketak egiteko, berriz irekitzeko eta abian jartzeko, bai eta jarduera kaltegabeen kasuan, udal lizentzia behar dutenetan ere. Eta gainera, kontrolerako jarduera administratiboak egitea lizentzia emantzat jotzen den kasuetan edo lizentziaren ordeaz erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztu behar denean. Zehazki:

- a) Jarduera-lizentzia
- b) Jardueraren lizentziaren aldaketa, ofizioz edo titularrak eskatuta.
- c) Irekitzeko lizentzia.
- d) Irekitzeko lizentziaren aldaketa.
- e) Jarduera eta irekitzeko lizentzien eskualdaketa (titulartasuna aldatzea).
- f) Instalazioak eta lokalak berriz irekitzeko baimena, egiaztatu behar izaten diren obrak egin ondotik.
- g) Udalaren kontrola, jarduera lizentziaren ordeaz aurretiazko komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar denetan.
- h) Ostatuaren edo kafetegiaren lizentziari definizio berria ematea ostatu berezia edo ikuskizunetarako kafetegia izateko.

ORDAINDU BEHARRA

4. ARTIKULUA. Tasa sortuko da lizentzia eskatzen denean edo, kasua bada, aurretiazko komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena aurkezten denean.

SUBJEKTU PASIBOAK

5. ARTIKULUA. Ordenantza honetan ezarritako tasak ordaindu behar dituzte pertsona fisiko eta juridikoek, baita, nortasun juridikorik ez izan arren, unitate ekonomikoa edo ondare banandua osatzen duten entitateek ere, baldin haien izenean lizentzia eman, aldatu edo berrikusten edo eskualdatzen bada, edo haien izenean aurkezten bada aurretiazko komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena.

KARGA-OINARRIAK

6. ARTIKULUA. 1. Tasaren zerga-oinarria da merkataritzako edo industriako lokalaren azalera eraikia, lizentzia hauetako bat eskatzen denean: lehen instalazioa, instalazioa handitu, aldatu edo lekualdatzea, edo jardueraren titulartasuna eskualdatu edo aldatzea. Industriako edo merkataritzako establezimenduetzat hartuko dira etxebizitza gisa bakarrik erabiltzen ez diren eta baldintza hauek betetzen dituzten eraikin edo instalazio guztiak, jendearentzako irekiak izan edo ez:

- a) Enpresa, fabrikazio, artisautza, eraikuntza, merkataritza edo zerbitzuetako jarduera bati lotua egotea.



b) Aipatu jarduera horiek egin gabe ere, haien lagungarriak edo osagarriak izatea, edo haietatik etekinak edo aprobetxamenduak ateratzea.

2.) Lokalak sotoko azalera badu, %50 murriztuta zenbatuko da hori. Beheko solairua ez diren bestelako azalera %25 murriztuta zenbatuko dira.

3. Negozioa merkatariaren edo industrialariaren helbidean berean ezartzen bada, hainbanatu egingen da erabilera bakoitzaren azalera, baina etxebizitzarako esleipena ez da inoiz izanen azalera osoaren %40 baino handiagoa.

TARIFAK

7. ARTIKULUA.- Aplikagarri diren tarifak ordenantza honetako eranskinean agertzen dira.

TRIBUTU KUOTA

9. ARTIKULUA.- Tributu-kuota aterako da karga-oinarriari dagokion tarifa aplikatuta, gehi NAMAINSA enpresak fakturatzen duen kontzesiorako txostenaren kostua.

KUDEATZEKO ARAUAK

10. ARTIKULUA. Jarduera baterako baimena erdietsi edo jarduera abiarazi nahi dutenek udaletxean aurkeztuko dute behar den lizentzia eskabidea, aurretiazko komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena, lokalean egin beharreko jarduera edo jarduerak eta lokalaren kokapena zehazten dituztela, dagozkien udal ordenantzetan eskatutako dokumentazioarekin batera.

Interesdunak berariaz egiten badio uko eskatutako lizentzia emateari lokalaren ikuskapenak egin baino lehen, %80 murriztuko dira.

11. ARTIKULUA.- Lizentzia eman eta tasaren likidazioa onetsita, interesdunak haren zenbatekoa ordaindu beharko du borondatezko kobrantza aldiaren barrenean, jakinarazpena jasotzen duenetik aurrera; bestela, inolako gaztigurik gabe, premiamendu bidez kobratuko da.

12. ARTIKULUA.- Emandako lizentziek balioa galduko dute udal honen ordenantza ez fiskaletan ezarritako arau eta epeen arabera, eta, hori gertatuz gero, berritu nahi duten interesdunek lizentzia berria eskatu beharko dute eta berriz ere tasa oso-osorik ordaindu.

ARTIKULU BERRIA. Titulartasuna aldatu edo jardueraren eskualdaketa gertatzen denean, lizentziaren titular berriak Udalari jakinaraziko dio, eta horretarako behar diren egiaztagiriak aurkeztuko ditu.

ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

13. ARTIKULUA.- Iruzurtzat hartuko dira arau-hauste berezi hauek:

a) Lokalak irekitzea lizentzia eskuratu gabe, nahiz eta hori eskatu den.

b) Karga-oinarria zehazteko behar diren datuak gezurrezkoak izatea.

c) Jarduera abiarazteko erantzukizunpeko adierazpenean adierazitakoa gezurrezkoa izatea, indarreko araudian jarduera abiarazteko ezartzen diren baldintza guztiak betetzeari eta hori egiaztatzen duen dokumentazioa izateari buruzkoa.

Gainerako arau-hausteei dagokienez, ordenantza fiskal orokorrean xedatutakoari jarraituko zaio.

14. ARTIKULUA.- Zehapenei dagokienez, ordenantza fiskal orokorrean xedatutakoari egingen zaio men.

AZKEN XEDAPENA



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
j; Garcia Ximenez 36 - 31800

Bakarra.-Ordenantza honetan jasotzen ez den orotan, toki entitate honek onetsitako Ordenantza fiskal orokorrean eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean xedatua aplikatuko da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra.-Indarrrik gabe uzten dira, baliorik eta eraginik ez dutela, ordenantza hau osoki betetzeari kontra edo traba egiten dioten udal mailako lehenagoko xedapen guztiak.



ORDENANTZA FISKALA, JARDUERA SAILKATU ETA KALTEGABEETAN ARITZEKO ETA JARDUERA ESKUALDATZEKO LIZENTZIAREN GAINEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA, 1. ERANSKINA.

I. EPIGRAFEA: Saltokiak, bulegoak, etab.

A) Jarduera-espeditentea behar dutenak.

10,10 €/ m2-ko tasa ezarri da.

B) Jarduera-espeditentetik behar ez dutenak. Aurreko kopuruak % 50 murrizten dira.

II. EPIGRAFEA Industriak, lantegiak, biltegiak.

KONTZEPTUA	2024
Lehen 50 metroak	6,95
50etik 100 metrora	5,00
100dik 200 metrora	3,35
200dik 300 metrora	1,85
300dik aurrera	0,80

III. EPIGRAFEA

Titularraren aldaketen likidazioei % 75eko hobaria ezartzen zaie, udalak ikuskapenik edo txostenik egin behar ez duenean.

Titularra aldatzeko likidazioei % 50eko hobaria ezartzen zaie, eta udalak ikuskapena edo txostena egin behar du.

Hobariak ekonomia sozialeko enpresei: %50.

IV. EPIGRAFEA

Lehengo irekiera lizentzien egokitzapenak; egokitzapen aurrekontuaren %2,5.

OHARRA.- I-IV epigrafeetako tarifak aplikatzen diren zenbatekoei erantsiko zaizkie lizentzia emateko txostenak prestatzeagatik NAMAINSA enpresak fakturatzen dituen kostuak.

Azken emaitza izanen da eskatzaileak ordaindu beharreko tasa.



11. ORDENANTZA

IBILGAILUAK ESPALOIETAN BARNA SARTZEKO ETA EREMU PUBLIKOA APARKALEKU ESKLUSIBORAKO EDO EDOZEIN SALGAIREN ZAMALANETARAKO ERRESERBATZEKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

OINARRIA

1. ARTIKULUA.- Ordenantza hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legearen 28. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraikiz ezarri da.

ZERGA-EGITATEA

2. ARTIKULUA.- Zergapeko egintza da eremu publikoan edo erabilera publikoko lurretan honako aprobetxamendu hauek egitea:

a) Erabilera pribatuko eraikin eta orubeetan 2 gurpil edo gehiagoko ibilgailuek sarbidea edo pasabidea izatea, sestra aldaketa eginez nahiz egin gabe.

b) Erabilera publikoko bide eta lurretan lekua erreserbatzea, salgaien zamalanak egiteko, enpresek edo partikularrek eskaturik.

c) Erabilera publikoko bide eta lurretan lekua erreserbatzea, entitateen edo partikularren zerbitzuko ibilgailuak aparka daitezen.

SUBJEKTU PASIBOA

3. ARTIKULUA.- Ordaintzera solidarioki beharturik daude:

a) Udal lizentzia bakoitzaren titular diren pertsona natural edo juridikoak.

b) Ibilgailuendako sarbideak eta pasabideak zer eraikinetan ezarri diren, haien jabeak.

c) Ordenantza honen 2. artikuluko b) eta c) ataletako aprobetxamenduez baliatzen diren entitate edo partikularrak.

ORDAINDU BEHARRA

4. artikulua. Tasa ordaindu beharra aprobetxamendua onartzen denean sortzen da, edo aprobetxamendua hasten denetik, baimenik gabe hasten bada.

TASAREN SORTZAPENA

5. ARTIKULUA.- Aprobetxamenduaren kontzesioa urte naturala hasi ondoan egiten bada, egun hartako seihileko osoaren tasa ordaindu beharko da. Hurrengo urteetan, tasa urtarrilaren hasieran sortuko da.

KARGA OINARRIA

6. ARTIKULUA.- 1) Espaloian barnako pasabideei dagokienez, tarifak aplikatzeko oinarria zehazteko kontuan hartuko da baimendutako pasabideen zabalera, gutxienez 3 metrokoa izanen dena, baita plaza kopurua ere.

2) Lekua erreserbatzen denean, oinarritako hartuko da erreserbatutako lekuaren luzera.

TARIFA



7. ARTIKULUA.- Aplikagarri diren tarifak ordenantza honetako eranskinean agertzen dira. Urtean behin likidatuko dira eta haien zenbatekoa ezin izanen da gutxitu.

KUDEATZEKO ARAUAK

8. ARTIKULUA.- Lizentzia emateko ahalmena Alkatetzari eta Gobernu batzordeari dagokie, Udaltzaingoaren proposamena azterturik.

9. ARTIKULUA.- Pasabidea egiteko lizentzia eman ahal izateko pasabide horrek baimena izan beharko du eta tasak ordaindu eta gordailua egin beharko dira.

10. ARTIKULUA.- Espaloietan barna ibilgailuak sartu eta lekua erresebatzeko lizentziak emanik, Ogasun Bulegoak behar den zerga erroldan sartuko dituzte titularrak.

11. ARTIKULUA.- Tasak urtero kobratuko dira eta Ordenantza Fiskal Orokorrean aurreikusitakoari jarraikiz igorpenduko dira.

12. ARTIKULUA.- Lizentziaren titularrak aprobetxamendua bukatu eta gero zentsuan baja ematera beharturik daude eta, behar izanez gero, Udalak utzitako diskoak itzultzera. Horrela egiten ez bada, aprobetxamenduak segida duela ulertu da, harik eta baja jakinarazi eta diskoak itzuli arte. Aprobetxamenduaren eskatzailearen ardura izango da emandako diskoa behar bezala kontserbatzea. Diskoa apurtu edo hondatuko balitz, aprobetxamenduaren titularrak ordaindu beharko du beste bat eman aurretik, eta zenbateko hori aprobetxamendua bukatu eta diskoa udal bulegoetan entregatu ondoren itzuliko zaio.

13. ARTIKULUA.- Ikuskatzaitzako Udal Zerbitzuek eta Udaltzaingoak pasabide lizentziarik gabe aprobetxamendu hori jasotzen duen egoitza edo lekurik ikusten badute horien berri emanen diote Udalari.

DEBEKU OROKORRAK

14. ARTIKULUA.- 1) Espresuki debekatuta dago edozein motatako ibilgailuei sarbidea edo zintarrietako igoera errazteko asmoz, margoak, errotuluak edota gailu finko edo mugikorrek paratzea erabilera publikoko bide eta eremuetan, ordenantza honetan aurreikusitako kasuetan izan ezik.

2) Ibilgailu erabiltezinak, gurdia edo bestelakoak uztea behar bezala baimendutako lokalen sarreraren parean edo inguruetan.

Aipatu kasu guztietan, udal zerbitzuek eraman, kendu edo ezabatzen ahal dituzte debekaturiko lanabes, seinale eta gainerakoak, titularraren kargura eta legokiokeen zehapena deusetan ukatu gabe.

ESKATZEN DIREN AGIRIAK

15. ARTIKULUA.- Lizentzia alkatetzari idatziz eskatuko zaio eta harekin batera honako agiri hauekin batera aurkeztu beharko dira:

1) Lokal edo eremu pribatua erabiltzeko lizentziaren kopia edo testigantza, edo hura eskuratzeko egindako eskaerarena, tramiteak aldi berean egiten ari badira.

2) Eraikinaren edo eremuaren kokapenaren planoak, 1/100dik 1/200era bitarteko eskalan, zenbat erabiltzen den adierazita.

3) Lokalaren planoak, banaketa eta guzti, bereziki adieraziz ibilgailuendako eremuak, sarbideak, haiek igarotzeko korridorea, ezaugarriak eta azalera.

4) Ibilgailuak utzi edo gordetzeko lokalak direnean, ibilgailuen matrikulen eta jabeen zerrenda erantsi beharko da, edo zein den haren xedea, komunitateko garajea bada.



5) Beste xederen bat duten negozio lokalak direnean, txosten labur bat erantsiko da, bertan gauzatzen den jarduerari buruzkoa, zehazturik banaz beste zenbat ibilgailu sartu eta ateratzen diren bertatik egunean

LIZENTZIAREN BALDINTZAK

16. ARTIKULUA. Pasatzeko lizentziak eman, indarra izan eta haietaz baliatzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

A.-Ibilgailuak gordetzeko lokalak:

1) Lokalak ibilgailuei erreserbatutako eremu bat izan behar du, gutxienez 40 metrokoa eta 3 ibilgailurentzat.

B.-Merkataritza eta industria erabilerako lokalak, adiera zabalean hartuta:

1) Jardueraren ezaugarri orokorreatatik, ibilgailuen ohiko sar-aterak nahitaezkoak izatea.

2) Gutxienez 40 m-ko tokia izatea, libre eta gau eta egun ibilgailu horietarako edo horien zamalanetarako erabiltzen dena.

3) Ibilgailuak konpontzeko tailerrak direnean, eskatzen den azalera librea 25 m erabilgarri baizik ez da.

SARBIDEETAN APARKATZEA

17. ARTIKULUA. Debeku da igarobidearen eremuan ibilgailu bat utzi, gelditu edo aparkatzea.

Seinaleak behar bezala paratu eta zaindurik ez badaude, agindua dagoen gisan, Udalak eta udaltzainek ez diete bertan adierazitakoarengatik babesik emanen, ez zehapenak ezartzeari dagokionez, ez ibilgailuak nahitaez handik kenduz; horretaz gain, pasatzeko lizentzia kentzeko arrazoia izan daiteke.

18. ARTIKULUA. Udalak emanen ditu behar diren diskoak, dagokien tasa ordaindu ondotik, baina titularraren kontura geldituko dira haiek beren tokian paratu, zaindu eta mantentzeko lanak, eta Udalari itzuli beharko zaizkio pasatzeko lizentzia kendu edo baliogabetuz gero.

Zerrenda zuri-gorritz pintatu beharko da zintarria edo horren orde zurbidean dagoena, Zirkulazio Kodeak deskribatu bezala. Titularraren kontura izanen da hasieran pintatzea, baita behar bezala mantentzea ere, haren betebeharra baita.

19. ARTIKULUA. Pasatzeko lizentziaren titularra bera da, objektiboki, erabilera publikoko zola edo zintarriak jasan dezakeen kalte ororen erantzule. Horregatik, Udalak eska dezakete hura konpondu, sendotu edo nahi den pasagunerako egokitzeko, bai lizentzia eman aurreko baldintza gisa, bai lizentzia eman ondoko edozein unetan. Jardueraren titular edo emakidadun berria edo lokal edo tokiaren jabea, horrelakorik bada, harekin batera izanen da erantzule aipatu ondorio horietarako.

ERANTZUKIZUNA

20. ARTIKULUA. Lizentziaren titularraren kontura eta ardura izanen da pasabidea egitea eta orobat hura kentzea; harekin batera, jardueraren titular berriaren edo emakidadunaren ardura edo lokalaren jabearen ardura ere izanen da kentzea, mankomunatuki eta solidarioki, hala egin behar denean.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
j; Garcia Ximenez 36 - 31800

ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

21. ARTIKULUA. Iruzur larrizat hartuko da behar den baimenik eskatu gabe aprobetxamendua egitea.

22. ARTIKULUA.- Gainerako arau-hausteetan eta zehapenei dagokienez, ordenantza fiskal orokorrean xedatuari jarraituko zaio.



ORDENANTZA FISKALA, PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA IBILGAILUAK ESPALOIETAN BARNA SARTZEKO ETA EREMU PUBLIKOA ERRESERBATZEKO, APARKALEKU ESKLUSIBORAKO EDO EDOZEIN MOTATAKO SALGAIEN ZAMALANETARAKO. ERANSKINA

Plazaren prezioa55,00€ € (2024. urtea)

Prezioa aldatzen ahal da, baldin eta finkatutako zenbateko hori baino gehiago kostatzen bazaio Udalari.

C) B kasua. Pasabideko lizentzia.

KONTZEPTUA	2024
Ibilgailu bakoitzeko	6,30€/año
Metro lineal bakoitzeko	12,75€/año

D) Gutxieneko kuotak.

KONTZEPTUA	2024
Gutxieneko kuota garaje pribatuetarako	26,50
Gutxieneko kuota tailerretarako	53,00

E) Lekua erreserbatzea.

KONTZEPTUA	2024
€/metroa	6,30€/metro lineala



12. ORDENANTZA:
ORDENANTZA FISKALA, LIZENTZIAK EMAN ETA HIRIGINTZAN BESTELAKO JARDUKETAK
EGITEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

OINARRIA

1. ARTIKULUA.- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 28. artikuluan xedatutakoaren babespean ezarri da ordenantza hau.

ZERGA-EGITATEA

2. ARTIKULUA.- Zerga-egitatea da hirigintzako jarduketei dagozkien zerbitzu tekniko eta administratiboak ematea, etxegintzaren eta lurzorua erabileraren arloko egintzak egokitu daitezen indarra duten hirigintza eta eraikuntza arauak.

3. ARTIKULUA.- Tasa ordaindu beharra dakarten hirigintzako jarduketek xedea dute lurzoruari eta hiri antolamenduari buruzko legeriak eskatzen dituen hirigintzako lizentziak ematea edo kontrolerako administrazio jarduerak egitea, lizentzia eskatu beharrean erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztu behar denetan.

A.- lizentzia behar duten jarduketak. Lizentzia behar duten jarduketak Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 190. artikuluan zehaztutakoak dira, hau da:

- a) Mota guztietako eraikuntza eta instalazio obrak, eraikuntza berrikoak badira.
- b) Lehendik dauden mota guztietako eraikin edo instalazioak handitzeko obrak.
- c) Bestelako eraikin eta instalazioen egitura edo kanpoko itxura aldatu edo berritzen dituzten obrak.
- d) Eraikinen barreneko egitura aldatzen duten obrak, edozein izanik ere haien erabilera.
- e) Behin-behineko egin behar diren obrak eta erabilerak.
- f) Hirigintzako lurzatiketarako eta landalurreko finkak banandu eta zatitzea.
- g) Lur-mugimenduak, hala nola lurra erauzi, zelaitu, hondeatu eta betetzeko lanak, salbu eta lan horiek zehaztu eta programatutako obrak badira onetsia den urbanizazio edo eraikuntza proiektu baten barrenean.
- h) Eraikinak eta instalazioak lehenbiziko aldiz erabili edo okupatzea, oro har, eta haien erabilera aldatzea.
- i) Eraikinak botatzea, salbu eta erortzeak direla deklaratu daudenak.
- j) Zorupari eragiten dioten instalazioak.
- k) Arbolak eta zuhaixkak botatzea, baldin eta zuhaitz-masa, basogune, arboladi edo parke badira, planeamendu onetsia izan ala ez, salbu eta nekazaritzaren arloko legeak baimentzen dituzten lanak direnean.
- l) Presa, baltsa eta defentsa-obrak egin eta ubide publikoak zuzentzea, interes orokorreko obra publikoak ez badira.
- m) Agregakinak ateratzea eta harrobiak ustiatzea, jabari publikoko lurretan egin eta administrazio kontzesioa behar izanda ere.
- n) Eta, oro har, erregelamendu bidez adierazten diren egintzak, obrak dakartzatelako edo lurzorua erabileraren intentsitate handiagoa dakartzelako, horien erabilera pribatiboa dakartzelako edo lursailen nekazaritza- edo baso-erabilera ez delako ohikoa edo desberdina.

B.- erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko jakinarazpena behar duten jarduerak. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 189-ter artikuluan xedatutakoak dira erantzukizuneko aitortzea edo aurretiazko komunikazioarena behar duten jarduketak. Honako hauek, alegia:

- a) Merkataritza-jarduera gauzatzeko lokalak egokitzearekin lotutako obrak egitea, aplikatzekoa den araudi sektorialaren arabera.



- b) Garrantzi edo tamaina txikiko obrak, kasuan kasuko udal ordenantzetan zehazten direnak.
- c) Itxiturak eta hesiak.
- d) Bide publikotik ikus daitezkeen publizitate-kartelak.
- e) Obra txikiak.
- f) Eraiki aurreko lanak, adibidez zundaketak, prospekzioak, laginak eta saiakuntzak.

ORDAINDU BEHARRA

4.1. artikulua. Zerga ordaindu beharra sortzen da lizentzia eskatzean edo, lizentzia eskatu behar ez denetan, erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztean. Uko egiteari dagokionez, honela jokatu da: Udalak lizentzia emateko erabakia hartu baino lehen egiten bada uko edo obren ondorengo udal ebazpena eman baino lehen (erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko komunikazioarena behar duten jarduketan kasuan), eta obrak hasi gabe badaude, lizentzia emandakoan legokiokeen tasaren %20 ordaindu beharko da. Lizentzia eman eta gero egiten bada uko, tasak %50 baizik ez dira gutxituko. Horretarako, ezinbesteko baldintza da obrak oraindik hasi gabe egotea eta, dagokionean, lizentzia iraungi delako deklaraziorik ez egotea.

2. Plan partzialak edo bereziak eta haien aldaketak, xehetasun azterlanak, birpartzelazioak eta urbanizazio proiektuak tramitatuz gero, haiek ebatzi edo behin betikoz onesten diren unean sortuko da ordaindu beharra.

SUBJEKTU PASIBOA

5.1 ARTIKULUA. Ordenantza honetan ezarritako tasen subjektu pasiboak dira pertsona fisiko eta juridikoak eta nortasun juridikorik izan ez baina unitate ekonomiko edo ondare banandua diren entitateak, baldin egindako hirigintzako jarduketengatik edo emandako lizentziengatik eragina edo onura hartzen badute.

2. Eraikitzaileak eta obra kontratistak zergadunaren ordezkioak izanen dira, lurzoruari eta hiri antolamenduari buruzko araudian jasotako hirigintzako lizentziak emateko ezarri diren tasetan.

3. Honako hauek daude salbuetsita tasak ordaintzetik obren lizentzia emateagatik edo aurreko lizentzia behar ez duten obrak egindakoan kontrolatzeagatik:

- a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta bere helburuak betetzeko sortzen dituen entitate juridikoak.
- b) Altsasu/Altsasuko Udala sartuta dagoen mankomunitateak eta udalerri-elkarteak, bai eta helburuak garatzeko sortutako erakunde juridikoak ere.

4. Tasa hauek direla medio Telefónica de España, S.A.U. enpresari egokitu lekiokoen ordainketa dirutan egin beharreko urteko ordainaz ordezkatzeko da, Nafarroako Foru Erkidegoan Espainiako Telefono Konpainia Nazionalak behar duen tributu araubidea ezarri zuen abenduaren 29ko 11/1987 Foru Legeak xedatutakoarekin bat.

TARIFAK ETA KARGA-TASAK

6. ARTIKULUA.- Aplikatu beharreko tarifa, tasa eta karga-oinarriak ordenantza honen eranskinean agertzen dira.

LIZENTZIEN IZAPIDETZEA ETA ONDORIOAK



7. artikulua.- Hirigintza-jarduketako eskabide oro eskabide-ereduetan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan aurreikusitako moduan bete beharko da.

8. artikulua.- Lizentziak iraungitzeari dagokionez, hirigintza-legerian eta udal-plan orokorrean xedatutakoa beteko da.

KUDEATZEKO ARAUAK

9. ARTIKULUA.- Planeamendurako espedienteak eta lizentziak tramitatzeko ardura duten bulegoetatik, udal teknikariek adostasun txostena eman eta gero, zergak likidatuko dituen bulegora igorriko dira espedienteak. Bulego horrek likidazioa egingen du, eta bertan honako hauek aipatuko ditu: subjektu pasiboaren izena, tasa zer kontzepturen arabera likidatzen den, tasaren tarifa eta zenbatekoa.

10. ARTIKULUA.- Urbanizazio proiektuen tramitazioan, proiektua onesterakoan egingen da tasen likidazioa.

11. ARTIKULUA.- Proiektu berean dauden obrak, ordenantza honetan ezarritako sailkapenaren arabera, kontzeptu bati baino gehiagori dagozkionean, tarifetan jarritako portzentajeak edo kopuruak aplikatzearen emaitza izanen da tasaren zenbatekoa.

12. ARTIKULUA.- Obraren kostu osoaren gaineko ehunekoa ezartzen duten lizentzien tasak behin-behinekoak izango dira, obraren kostuaren aurrekontuaren arabera.

Obra amaitu edo behin-behineko harrera egin eta hurrengo hilabetearen barruan, horren adierazpena aurkeztuko da, obraren zuzendaritza teknikoaren ziurtagiarekin batera, dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsia, bideragarria denean, obraren kostu osoa ziurtatzen duena, proiektu- eta zuzendaritza-eskubide fakultatiboak, industria-onura eta obraren ondorioz egon daitezkeen beste batzuk barne.

Udaleko zerbitzu teknikoek egiaztatuko dute kostu hori, eta errealitatearekin bat ez badatoz, horretara egokituko dute. Kasu batean zein bestean, Ogasun Arloari igorriko diote, behin betiko likidazioa egin dezan, eta likidazioa onartu egin beharko da.

Partikularren aldeko diferentziarik izanez gero, itzuli egingen zaio; Udalaren aldekoa bada, berriz, hura ordaintzeko hilabete epea emanen zaio. Ordaintzen ez badu, premiamendu bidez kobratuko da, abisatu gabe.

13. ARTIKULUA.- Ez dira tasaren zerga-oinarriaren zati izanen beste elementu batzuk, hala nola, altzariak eta beste, ezta obra proiektuan funtsezko ez diren beste batzuk ere.

Ordenantza honen eranskinean azaltzen denaz gain, tasaren ezarpen oinarriaren zatitza hartuko da barne urbanizazioaren proiektuaren zenbatekoa. Horretarako, interesdunek barne urbanizaziorako proiektua aurkeztu beharko dute, aurrekontu eguneratuarekin batera.

14. ARTIKULUA.- Tasen likidazioa onartu ondoren, interesdunari jakinaraziko zaio, eta arauzko epean ordaindu beharko ditu. Bien bitartean, lizentzia emateari buruz hartutako ebazpenak ez du eraginik izango.

15. ARTIKULUA.- Edozein lizentzia edo egin beharreko edozein obratarako eskabidea eskatzearen ondorioz fakultatiboan, teknikari espezialisten (udal plantillakoak ez direnen) txostenak eskatzea beharrezkoa bada edo Udalbatzak hori egitea egokia dela uste badu, horien lansariak eskaera aurkeztu duten subjektu pasiboaren kargura izanen dira.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
j; Garcia Ximenez 36 - 31800

ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

16. ARTIKULUA.- Hona hemen ordenantza honetako arau-hauste bereziak eta haien kalifikazioa:

- a) Arau-hauste soila: Udaltzainek eskatuz gero, lizentziaren ziurtagiria eta dagokion ordainketa agiria obra lekuan ez izatea.
- b) Ez-egitea: Udal administrazioari egindako obren gehieneko balioaren edo aldaketen nahiz haien aurrekontuen berri ez ematea, inguruabarrei begira iruzurtzat hartu behar den kasuetan izan ezik.
- c) Iruzurra:
 - Obra udal-lizentziarik gabe egitea edo hastea.
 - Faltsukeria egitea karga-oinarria zehazteko funtsezko ezaugarriak aitortzean.
 - Obren kostu osoaren ziurtagiria ez aurkeztea, baldin eta proiektuan aurreikusitakoa gainditzen badu.

17. ARTIKULUA.- Arau-hausteak Zerga Ordenantza Fiskal Orokorrean eta Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituen martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean aurreikusitakoaren arabera zehatuko dira; horiez gain, hirigintzako arau-hausteetatik Lurzoruari buruzko Legean ezarritako zehapenak ere paratzen ahalko dira.

AZKEN XEDAPENAK

Ordenantza honetan aurreikusi ez den orotan, indarra duen legedia eta ordenantza fiskal orokorra aplikatuko dira.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
j; Garcia Ximenez 36 - 31800

ORDENANTZA, HIRIGINTZAKO LIZENTZIAK EMATEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA. ERANSKINA

I. EPIGRAFEA: Plan partzialen, berezien eta xehetasun-azterlanen tramitazioa.

Espedienteak tramitatzeko eta ebazteko tasak likidatuko dira plan bakoitzean hartutako lurzoruen azaleraren arabera, 0,10 €/ m2 edo frakzioaren arabera likidatu ere.

II. EPIGRAFEA Plan partzialen, berezien eta xehetasun-azterlanen aldaketak izapidetzea.

Aplikatu beharreko tarifak I. Epigrafekoen % 50 izango dira.

III. EPIGRAFEA Birpartzelazioen tramitazioa.

A) Birpartzelazioen tramitazioa.

Guztirako aprobetxamendutik zenbateko azalera edo bolumena den eraikitzeko, haren arabera izanen da tasen likidazioa birzatiketa espediente bakoitza tramitatzeko eta ebazteko, tarifa hauei jarraikiz:

- m2 edo frakzio bakoitzeko 0,10 €
- m3 edo frakzio bakoitzeko 0,26 €

B) Tramitatzea birzatiketen aldaketak:

Aplikatu beharreko tarifak izango dira III-A epigrafean ezarritakoen % 50.

IV. EPIGRAFEA Partzelazioak izapidetzea, landa-finkak bereiztea, elkartzea eta zatitzea.

Hirigintzako lurzatiketak, landa-finken banantzeak eta zatiketak tramitatzegatik eta ebazteagatik ordaindu beharreko tasak azaleraren arabera likidatuko dira, 0,05 €/ m2 edo frakzioaren arabera.

V. EPIGRAFEA: Ekimen partikularrez egindako urbanizazio-proiektuen tramitazioa.

Tasak proiektuaren kostuaren arabera likidatuko dira, eta karga-tasa %1 izanen da.

VI. EPIGRAFEA: Finken normalizazioa.

Finkak normalizatzeko espediente bakoitza tramitatzeko eta ebazteko tasak likidatuko dira kasuan kasuko tresnan dagoen zoruaren azaleraren arabera likidatuko dira, 0,07 euro/m² ordainduta.

VII. EPIGRAFEA: Hirigintzari buruzko hitzarmenak.

Hirigintzako hitzarmenak tramitatzeko, jabetza pribatuak ezin eskuratu duen hirigintzako aprobetxamenduaren balioa dirutan adierazteko, tasazioaren txosten teknikoaren kostua izanen da tasaren zenbatekoa.

VIII. EPIGRAFEA: Obra-lizentzia



Eraikitze, handitze, eraberritze, eraisteko, lurra mugitze, zuhaitzak mozteko, kartelak jartzeko eta lizentzia behar duten gainerako egintzetarako obra-lizentziak eta jakinarazitako lizentziak, aurreko ataletan sartzen ez direnak:

– Tasa kalkulatzeko, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztutako zerga-oinarriari honako karga-tasa hau aplikatuko zaio: % 0,51.

IX. EPIGRAFEA: Behin-behineko lizentziak.

Ezarritako tarifa arrunten halako biko zenbatekoa sortuko dute.

X. EPIGRAFEA: Lehen aldiz okupatzeko lizentziak

KONTZEPTUA	2024
500 m2 bitarte lehen aldiz okupatzeko	0,32
500etik 3.000 m2-ra bitarte	0,15
3.000 m2-tik gora	0,10

XI. EPIGRAFEA: Gutxieneko eskubideak

Aurreko epigrafeengatik ordaindu behar diren tasak ez baldin badira iristen ondotik aipatzen diren gutxieneko zenbatekoetara, honako hauek ordaindu beharko dira:

KONTZEPTUA	2024
Tramitatzea plan partzialak edo bereziak	413,00
Tramitatzea plan partzialak edo bereziak eta xehetasun-azterlanak.	207,30
Tramitatzea antolamendu planen aurrerapenak edo aurreproiektuak	102,30
Lurzatiketak (lurzati bakoitzeko)	48,40
Birzatiketak	413,10
Finketako itxiturak	37,70
Banantzeak: ondoriozko lurzati bakoitzeko	49,30
Abeltzaintza estentsiborako irekitze lizentzia ematea	20,00
Obra-lizentzia ematea	11,00



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
j; Garcia Ximenez 36 - 31800

XII. epigrafea.- Pentsan argitaratzearen kostuak.

Ekimen partikularren ondoriozko tramitazioak prentsan iragarkia argitaratzea behar badu, tasa argitalpenaren kostua bezainbat izanen da.

OHARRA.- Aurreko epigrafeetan adierazitako tarifak aplikatzearen ondoriozko zenbatekoei GANASA enpresak lizentzia emateko txostenak idazteagatik fakturatutako kostuak eta hirigintza-aholkularitzako beste kostu batzuk gehituko zaizkie.

Eraitza osoak eskatzaileak ordaindu beharreko tasa zehaztuko du.



13. ORDENANTZA

ORDENANTZA FISKALA, ARAUTZEN DUENA ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA

XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA. Ordainarazpen hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen V. kapituluko II. Tituluko 167. artikulutik 171. artikulura bitarteko artikuluetan xedatutakoaren babesean ezarri da.

Zerga hau zeharkako tributua da.

2. ARTIKULUA. Ordenantza hau Altsasuko udal mugarte osoan aplikatuko da.

ZERGA-EGITATEA

3. ARTIKULUA. Zerga honen zerga-egitatea da zernahi eraikin, instalazio edo obra egitea, baldin hartarako beharrezkoa bada hirigintza edo obra lizentzia bat, hori ematea Altsasuko Udalari dagokion guztietan, lizentzia hori erdietsia izanik ala izan gabe.

Aipatze hutsez, zergaren zerga-egitateak dira hauek:

- 1.- Mota guztietako eraikuntza eta instalazio obrak, eraikuntza berrikoak badira.
- 2.- Lehendik dauden mota guztietako eraikin edo instalazioak handitzeko obrak.
- 3.- Era guztietako eraikin eta instalazioen egitura edo kanpoko itxura aldatu edo berritzeko obrak.
- 4.- Eraikinen barreneko egitura aldatzen duten obrak, edozein izanik ere haien erabilera.
- 5.- Behin-behinekoz egin behar diren obrak.
6. Zerbitzu publikoak paratzeko obrak.
- 7.- Lur-mugimenduak, hala nola lurra erauzi, zelaitu, hondeatu eta betetzeko lanak, salbu eta lan horiek zehaztu eta programatutako obrak badira onetsia den urbanizazio edo eraikuntza proiektu baten barranean.
- 8.- Terrazak ixtea.
- 9.- Eraikinak botatzea, salbu eta erortzear direla deklaratuta daudenak.
- 10.- Zorupari eragiten dioten instalazioak.
- 11) Eremu publikotik ikusten diren kartelak paratzea, betiere lokal itxietan ez badaude.
12. Halako ahalmen ekonomikoa erakusten duten baliabide ekonomikoen inbertsioak berekin dakartzaten obrak, eraikuntzak edo instalazioak, baldin eta obra edo hirigintza lizentzia behar badute.

4. ARTIKULUA. 1. Zerga hau ez da pagatu beharko baldin eta instalazioak, eraikinak edo obrak hartzen dituen higiezinaren jabetza-titulartasuna eta obraren jabetza Udalarenak badira.

2. 2. Zernahi eraikin, instalazio edo obra egitea salbuetsirik egonen da baldin eta horien jabeak badira Estatua, Nafarroako Foru Komunitatea, autonomi erkidegoak edo toki entitateak, eta baldin, zergapekoak direlarik ere, zuzenean erabiltzekoak badira errepide, burdinbide, portu, aireportu, lan hidrauliko, hiri saneamendu edo haien hondakin uren saneamendurako, nahiz eta erakunde autonomoek kudeatzen dituzten, dela eraikuntza berriko lana, dela kontserbaziokoa.

SUBJEKTU PASIBOAK

5. ARTIKULUA. 1. Zerga honen subjektu pasiboak honako hauek dira, zergadun gisa: pertsona fisiko nahiz juridikoak, herentzia jasogabeak, ondasun-erkidegoak eta, nortasun juridikorik ez dutelarik, obraren jabetasuna duten bestelako entitateak, unitate ekonomikoa edo ondare banandua osatzen dutenak.

Obraren jabea da obraren kostua bere gain hartzen duena.



2. 2. Altsasuko Udalaren aurrean argi eta garbi egiaztatzen ez bada obren jabea obra horretako eraikinaren jabeaz beste pertsona bat edo entitate bat dela, obrera bera hartuko da eraikinaren jabetzat

6. ARTIKULUA. 1. Zergadunaren ordezkoko subjektu pasiboak dira hartarako lizentzia eskatzen dutenak edo eraikuntza, instalazio edo obrak egiten dituztenak, ez baldin badira zergadunak berak.

2. Nolanahi ere, Altsasuko udal administrazioak zergadunaren ordezkoiari eskatzen ahalko dizkio pertsona edo entitate zergadunaren identitatea eta helbidea.

ZERGA-OINARRIA, KUOTA ETA SORTZAPENA

7. ARTIKULUA. Zerga hau eraikina, instalazioa edo obra hasten delarik sortuko da, hartarako hirigintzako edo obrako lizentziarik lortu ez bada ere.

8. ARTIKULUA. 1. Zerga-oinarria eraikin, instalazio edo obraren kostu erreal eta benetakoa da.
2. Aurreko zenbaki horretan xedatutakoaren ondorioetarako, kostu erreal eta benetakoa zehaztuko da dagokion elkargo ofizialak aurkeztutako aurrekontu ikus-onetsiaren arabera edo exekuzio proiektuaren arabera, udal teknikariek aurreikusten dutenari jarraikiz. Kostu erreal eta benetakoa izanen da exekuzio materialari dagokiona, eta horren zati ez dira ez balio erantsia, ez tokiko tributuak edota prezio publikoak eta tokiko izaera publikoko ondareko gainerako prestazioak, horiek eraikuntza, instalazio edo obra alorrekoak badira, ez eta profesionalen ordainsaria, kontratistaren enpresa-mozkina edo beste edozein kontzeptu, hori obra gauzatzeko kostuan hertsiki sartzen ez bada.

3. Barne berrikuntzak badira eraikinen barreneko egitura aldatzen ez dutenak eta obra gauzatzeko aurrekontua 2.000 eurokoa edo gutxiagokoa bada, gutxieneko kuota ordainaraziko da eta zenbateko horretatik goitik karga-tasa aplikatuz kalkulatu da kuota, betiere behin betiko likidazioaz gain, hori eraikuntza, instalazio edo obraren kostu erreal eta benetakoaren arabera kalkulatu da.

9. ARTIKULUA.- Zerga honen kuota izanen da zerga-oinarriari karga-tasa aplikaturik ateratzen dena. Karga-tasa izanen da % 4,22. Gutxieneko kuota ezartzen da, 84,25 eurokoa.

KUDEAKETA

10. ARTIKULUA. 1. Aginduzko lizentzia ematen denean, behin-behineko likidazioa eginen da; haren zerga-oinarria 8. artikuluan ezarri bezala zehaztuko da.

2. Hasierako proiektua dagokion lizentzia eman ondoren aldatzen bada, berriz aurrekontua aurkeztu beharko da, behin-behineko likidazio berria egiteko, aurrekontuan izandako aldaketaren arabera, hasierakoa gainditzen duen kopuru berean.

11. ARTIKULUA. 1. Ikusirik egiazki egin diren eraikuntzak, instalazioak eta obrak, baita horien benetako kostu eraginkorra ere, Udalak, hala behar denean, behin-behineko zerga-oinarria aldatuko du eta likidazio osagarria eginen; hori egin ondoren, subjektu pasiboari eskatuko dio paga diezaion edo, hala behar denean, gehiegi jarritakoa itzuliko dio.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoari dagokionez, obra bukatu edo behin-behinekoz jaso eta hurrengo hilabetean, inguruabar horren berri ematen duen deklarazioa aurkeztuko da eta horrekin batera eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetako kostu eraginkorra eta obraren zuzendari fakultatiboak emandako ziurtagiria ere bai, bidezkoa denean behar den lanbide elkargoak ikus-onetsia, zeinean obraren kostu osoa egiaztatuko baita.

12. ARTIKULUA. Zergaren likidazioaren ondorioetarako, berdin jokatuko da administrazioaren isilbide positiboaz eman diren lizentziekin eta berariaz eman direnekin.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
j; Garcia Ximenez 36 - 31800

13. ARTIKULUA. Altsasuko Udalak autolikidazio bidez eskatzen ahalko du zerga hau.

14. ARTIKULUA. Lizentziaren titularrak baimendutako obra, eraikuntza edo instalazioetan atzera egiten badu, idatziz aurkeztutako berariazko ukoaz, Altsasuko Udalak behin-behineko likidazioa itzuliko du. Halaber, behin lizentzia iraungi ondoren, Altsasuko Udalak egindako likidazioa itzuliko edo deuseztatuko du, titularrak ez badu, behinik behin, lizentzia horren berritzea eskatzen eta Udalak baimentzen.



14. ORDENANTZA:
HILERRIA ERABILTZeko TASAK ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

OINARRIA

1. ARTIKULUA.- Hilerrriaren erabilerari dagozkion tasen ordainarazpena arautzen du ordenantza honek, eta Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 28. artikuluan eta ondokoetan du oinarria.

ZERGA-EGITATEA

2. artikulua. Hau da zerga-egitatea:

Hilerrrian zerbitzuak ematea, bai hilerrriko zerbitzuei dagokienez, -hala hilotzak, gorpuzkiak eta errautsak ehorztea zein hobitik ateratzea nola nitxoak, panteoiak, hilobiak, kolunbarioak eta errauts-hobiak 10 urtez esleitzea-, bai hilerrriaren helburuetarako egiten diren gainerako zerbitzu osagarriak egiteari dagokionez, Hilerrria arautzen duen ordenantzaren ezarritakoarekin bat.

SUBJEKTU PASIBOA

3. ARTIKULUA.- Adjudikazioa edo zerbitzua eskatzen duen pertsona natural edo juridikoak ordaindu beharko du dagokion tasa, subjektu pasibo gisa.

Ehorzteko eskubideen ordainarazpenetan, ehorzketak antolatu edo hilotzak hilerrira eramaten dituzten ehorztetxeak dira zergadunen ordezkioak.

ZERGA-OINARRIA ETA TARIFAK

4. artikulua. Ordenantza honen tarifen eranskinean jasotako kopuruei jarraikiz, zerga-oinarria finkatuko da honako kontzeptu hauei dagozkien zerbitzu moten arabera:

a) Ehorzketa eskubideak. Zenbateko finkoa ehorzketa bakoitzeko, lurrean, nitxoan, kolunbarioan ala errauts-hobian egiten den bereiziz.

b) Nitxoa, kolunbarioa edo errauts-hobia alokatzeko eskubideak. Zenbateko finkoak adierazten diren aldietarako.

c) Panteoien kontzesioa.

TASEN SORRARAZPENEA

5. ARTIKULUA.- Ordenantza honen 4. artikuluan aipatzen diren zerbitzuetako bat egiteko eskatzen den unean sortuko dira tasak.

KUDEATZEKO ARAUAK

6. ARTIKULUA.- Hilotzak hilerriraino eramateaz arduratzen diren ehorzketa enpresek, Udalean hartarako dagoen bulegoan likidatuko dituzte bidezko diren ehorzketa eskubideak, haien ordainketa agiria emanen zaielarik. Hilerrriko kargudun, enplegatu edo arduradunak eskatuko du erakuts dakion behar den gordekina, gorpua bertaratzen denean. Salbuetsirik daude ezinbesteko premia izan edo udal bulegoetan jaiegun denean gertatzen diren kasuak; horrelakoetan enplegatuak datuak jaso eta dagokion bulegoari igorriko dio informazioa, dagokion ordainarazpenari bertatik bide eman dakion.



7. ARTIKULUA.- Garbiketa zerbitzua edo gorpuzkiak eramatekoa hartzeko interesik duenak dagokion udal bulegora jo beharko du eta hantxe eskatu, behar diren eskubideak ordainduz, eta bidezko den ordainagiria luzatuko diote. Hilerriko kargudun, enplegatu edo arduradunak eskatuko du erakuts dakion behar den ordainagiria, zerbitzuak egin baino lehen.

8. ARTIKULUA.- Nitxoan, kolunbarioen edo hilobien emakida nahi duten pertsona fisikoek edo juridikoek Udalari eginen diote horren eskea, eta bertan emanen zaie baimenaren agiria, ordaindu beharreko eskubideak ordaindu ondoan.

Premia larriko kasuetan edo dagozkion udal bulegoek egun baliogabea dutenetan, dagozkion eskubideak bost egun balioduneko epean ordainduko dira, udal ehorzleak esleipena egin ondoko egunetik aurrera kontatzen hasita. Modu berean eginen da nitxoan salmentan.

Ez da premia larritzat hartuko ez bada nitxoa okupatzen udal bulegoen balio gabeko aldian.

8 BIS ARTIKULUA. Hilerraren ordenantza orokorrean ezarritakoaren arabera, hilobi, nitxo, panteoi edo errauts-hobien kontzesio baten titularrei urtero igorriko zaie ordenantza honen eranskinean azaltzen den zenbatekoaren ordainagiria.

9. ARTIKULUA.- Urtero, eta urte bakoitzeko urtarrilaren lehena erreferentziatzen hartuz, udal hilerrian dauden nitxo, panteoi eta hilobi guztien errolda edo zentsua eginen da. Horretan oinarriturik ordainaraziko dira zerbitzu orokorrak egiteko eta emakiden tasak.

DIRU-BILKETA

10. ARTIKULUA.- Ateratzen diren kuoten ordainketa 30 egun balioduneko epearen barrenean egin beharko da, ordenantza honen 4. artikuluan ezarritako zerbitzuak egin ondoko egunetik aurrera kontatzen hasita.

11. ARTIKULUA.- Ateratzen diren kuotak borondatez ordaintzeko aldietan ordaintzen ez dituztenek, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Erregelamenduan eta Udalaren Ordenantza fiskal orokorrean adierazten diren errekaruak izanen dituzte.

ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

12. ARTIKULUA.- Arau-hauste eta zehapenen araubideari dagokionez, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Erregelamenduan eta Ordenantza fiskal orokorrean horretaz ezarritakoari jarraikiko zaio.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honetan aurreikusitako ez den orotan, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea eta Ordenantza Fiskal Orokorra aplikatuko dira.



ORDENANTZA FISKALA, TASAK ARAUTZEN DITUENA HILERRIA ERABILTZEKO. ERANSKINA

1. EPIGRAFEA.- EHORZKETAK, ETA EHORZTEKO ESKUBIDEAK.

KONTZEPTUA	2024
Nitxoak alokatzeko eskubidea (10 urte)	421,20
Panteoiaren emakida, 10 urte	886,20
Kolunbarioak-errauts-hobiak	80,50
Panteoian ehorzteko tasa	127,00
Nitxoan ehorzteko tasa	127,00
Lurpean ehorzteko tasa	127,00
Errauts-hobian ehorzteko tasa	127,00
Gorpuzkiak ateratzeko tasa	127,00
Errautsak hezurtegian ehorzteko tasa	Hilerria kudeatzen duen enpresak Udalari egiten dion fakturaren arabera

2. EPIGRAFEA.- HILOTZAK EDO GORPUZKIAK JADA OKUPATUTA DAUDEN NITXOETAN EDO ERRAUTS-KUTXATEGIETAN EHORZTEA. (ATZERAEGINEKO ONDORIOEKIN APLIKATZEA)

Hilotzak jada okupatuta dauden nitxoetan ehorzteko ematen diren lizentziak, edo gorpuzkiak jada beste gorpuzki batzuekin okupatutako kolunbarioetan ehorztekoak, emakida berrizat joko dira, eta honako murriztapen hauek aplikatuko dira 1. epigrafean aurreikusitako tarifetan:

Aitzineko emakida edo luzapena amaitzeko 5 urte edo gehiago falta badira, dagokion tarifaren %50 likidatuko da. Aitzineko emakida 5 urtetik beherako epean amaitzekoa bada, dagokion tarifaren %75 likidatuko da.

Prezio horiek behar den BEZa dute barnean.



15. ORDENANTZA:
**ORDENANTZA FISKALA, UDAL HAURTZAINDEGIKO ZAINKETA ETA EGONALDI ZERBITZUEN
PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA**

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuarekin sinatutako hitzarmenetik ateratzen diren tarifak aplikatzea.

16. ORDENANTZA:
ORDENANTZA, TASAK ARAUTZEN DITUENA UDAL LUDOTEKA ZERBITZUA ERABILTZEKO

ZERGA-EGITATEA

1. ARTIKULUA.- Hona hemen zerga-egitatea:

- 1) Xede horretarako lokalak erabiltzea, zentroetan hartuta dauden haurrak lokal horietan egonez irekita dauden orduetan eta ezartzen diren egunetan.
- 2) Udal ludotekak oro har ezarrita dituen zerbitzu propioak ematea.
- 3) Jostailuak uztea, Gobernu Batzordeak 2002-10-16an onetsitako araei jarraikiz.

ORDAINDU BEHARRA

2. ARTIKULUA.- Zerbitzu horiek emate hutsetik sortzen da ordaindu beharra, horiek erabili ala ez, behin inskripzioa eginda dagoela.

SUBJEKTU PASIBOAK

3. ARTIKULUA.- Zerbitzuez baliatzen diren adingabeen gurasoak, tutoreak edo legezko ordezkariak dira prezio publikoen subjektu pasiboak.

KUOTAREN SORTZAPENA

4. ARTIKULUA.- Prezio publikoa urtero sortuko da, eta interesduna udal ludotekan onartua izateko nahitaezko baldintza izanen da ordainagiria erakustea.

TARIFAK

5. ARTIKULUA.- Ordenantza honek arautzen duen prezio publikoa eranskinean ageri diren tarifen arabera likidatuko da.

FUNTZIONAMENDU ARAUAK

6. ARTIKULUA.- Zilegi izanen da udal ludotekako zerbitzuetako laguntza zerbitzua eta egonaldia bertan behera uztea, onuradunen gurasoek, tutoreek edo legezko ordezkariak prezio publikoa ordaindu ez dutenean inskripzioa egin eta hilabete naturaleko epean. Zerbitzua berriz ezarriko da 4 artikuluan zehaztutakoaren arabera.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
j; Garcia Ximenez 36 - 31800

ORDENANTZA, TASAK ARAUTZEN DITUENA UDAL LUDOTEKA ZERBITZUA ERABILTZEKO. ERANSKINA

A) Ludotekara joatea.

*Familia-saioak (0-3 urte) . Doako saioak eta sarrera librekoak heldu batekin , adingabe bakoitzarekin batera.

* 4tik 12 urtera bitarteko haurrentzat, 5,00 euroko ordainketa ezarri da, baita txartel bat ere, sarbiderako.



19. ORDENANTZA:
ORDENANTZA, ARAUTZEN DITUENA UDALAREN LOKALAK ERABILTZEKO PREZIO
PUBLIKOAK

OINARRIA

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 28. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraikiz, arau honetan prezio publikoak ezarri dira Udalak baimentzen dituen pertsona fisiko edo juridikoak, erakundeek eta entitateek Udalaren makineria eta lanabesak erabiltzeagatik.

ZERGA-EGITATEA

2.1. art. Pertsona fisikoek edo juridikoek erabilera publikoko udal instalazioak bilkurak eta gizarte, kirol, kultura eta hezkuntza arloko jarduerak egiteko baimenarekin erabiltzeak ekartzen du zerga-egitatea. .

2.2. art. Zelandi ikastetxe publikoko ikasgelak erabiltzeko, eskuratzeko moduan egonen dira ikastetxearen jardueren eta beharren arabera, eta, halaber, ikasgelek egokiak izan behar dute eskatutako jarduerarako, Ikastetxeak eta unibertsitate mailaz kanpoko ikasleen egoitzak eta eskolaren erabilerari atxikitako kirol instalazioak nola erabili arautzen duen urtarrilaren 9ko 2/1995 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat.

SUBJEKTU PASIBOA

3. art. Aipatu instalazioak erabiltzeko Udalaren baimena duten pertsona fisiko edo juridikoak.

ORDAINDU BEHARRA NOIZ SORTZEN DEN

4. art. Baimena ematen denean sortzen da prezio publikoa ordaindu beharra; hura gutxienez ere 48 ordu lehenago egin behar da.

Kasu hauetan salbu:

4.1.1. art. Kirol instalazioak kirola egiteko erreserbatzeko, prezio publikoaren sortzapena hilabetea bukatutakoan egingen da.

4.1.2 art. Kirol elkarten edo klubuen kasuan, hala eskatzen badute, bi epetan egin daiteke urtean, ekainean eta abenduan.

4.2. art. Iortia kultur etxeko 1. aretoa erreserbatzean ikuskizun eszenikoetarako, sarrera kobratzen bada, prezio publikoaren ordainketa deskontatuko da sustatzaileak txarteldegian lortzen duen diru-bilketatik.

4.3. art. Hitzarmenaren mendeko jarduerak hitzarmenaren arabera likidatuko dira.

5. art. Baimena Udalaren erabilera publikoko instalazioen sarea erabiltzeko arauaren eta instalazio bakoitza erabiltzeko arauaren arabera emanen da (Udalbatzak onetsi ditu arau horiek).

6. art. Erreserbak bertan behera utzi nahi izanez gero, horretarako arrazoiak idatziz eman behar dira, eta betiere jarduera egin baino 15 egun lehenago gutxienez. Kasu horretan, prezio publikoaren % 50 itzuliko da.

ZERGA-OINARRIA, TASA ETA TARIFAK

7. art. Zerga-oinarrria egiten den erabilera edo jarduera bakoitza da.

8. art. Karga-tasa ordenantza honen eranskinean agertzen da.

9. art. Altzariak eta tresnak erabiltzeko tarifak eranskinean agertzen dira.

SALBUESPENAK

10. art. Ezartzen diren prezioak ordaintzetik salbu daude ondoko jarduera hauek:

Udalak, bere erakunde autonomoek edo bere enpresa publikoek antolatzen dituztenak.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
j; Garcia Ximenez 36 - 31800

Foru Komunitateko Administrazioak edo bere menpeko erakunde autonomoek antolatzen dituzten jarduerak. Ez dira inola ere salbuetsiak izanen Altsasuko Udalaz besteko administrazio publikoek sustatutako laguntza edo kudeaketa kontratuen esleipena duten enpresek antolatutako jarduerak.

Altsasuko ikastetxe publikoek edo beren instalazioak udal jarduera gauzatzeko doan uzten dituzten ikastetxeek antolatzen dituzten jarduerak.

Mankomunitateek antolatzen dituzten jarduerak, Udala horien kide bada, salbu eta Iortiako jarduerak (laguntza teknikoa behar badute) eta salbu eta Udalak zuzenean kudeatzen ez dituen kirol instalazioetakoak (futbol zelaia, atletismo pista, Zelandi kiroldegia, Zelandi pilotalekua eta Burunda pilotalekua).

11. art. 11. Ez da inoiz ere salbuetsizat joko instalazioen erabilera, egiaztatzen bada eskatzailea ez dela benetan jardueraren sustatzaile eta antolatzailea.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
j; Garcia Ximenez 36 - 31800

ORDENANTZA, ARAUTZEN DITUENA UDALAREN LOKALAK ERABILTZEKO PREZIO PUBLIKOAK. ERANSKINA

1.- GURE ETXEA

	Gela (5/6 lag)	Gela (15 lag)	Erakusketa-gela
2 ordu arte	11,00 €	16,00 €	22,00 €
4 ordu arte	22,00 €	27,00 €	32,00 €
8 ordu arte	32,00 €	43,00 €	64,00 €

Lagapena larunbat edo jaiegunetarako baimentzen denean, %30 igoko da prezioa. Jaieguntzat hartuko dira Altsasuko Udalak langileen lan egutegian hala ezarritakoak.

SALBUESPENAK:

2022ko ordenantzaren 10. artikuluan ezarritakoez gain, salbuetsita daude Altsasuko Erakundeen Udal Erregistroan inskribatutako erakundeek antolatutako bilerak, tailerrak, jardunaldiak edo antzeko jarduerak ordaintzetik.

TARIFA BEREZIAK.

Altsasuko auzo elkarteek sustatutako bilerek %25eko hobaria izanen dute.

2. UDALETXEKO EKITALDI ARETOA / GURE ETXEA.

Ezkontza zibilak: 42,00 €. Lagapena asteburu edo jaiegunetarako baimentzen denean. Jaieguntzat hartuko dira Altsasuko Udalak langileen lan egutegian hala ezarritakoak.

Gainerako egunetan 33,00 euro.



3.- IORTIA KULTUR ETXEAREN TARIFAK (tarifen eranskineko 3. puntua)

Taula hainbat aretotan banatu da, eta D) puntua (Erakusketa-aretoa) sartu da. Honela geratu da:

A. 1. Gela: Entzunaretoa

		Astelehenetik ostiralera		Larunbatak eta jaiegunak	
		Oinarrizko premia teknikoak	Laguntza teknikoa eta makineria eszenikoa	Oinarrizko premia teknikoak	Laguntza teknikoa eta makineria eszenikoa
5 ordu arte	Espazio eszenikoa	126,00 €	407,00 €	163,00 €	407,00 €
	Entzunareto osoa	209,00 €	1. funtzioa: 407,00 €	271,00 €	1. funtzioa: 407,00 €
5 ordu baino gehiago	Espazio eszenikoa	238,00 €	407,00 €	309,00 €	407,00 €
	Entzunareto osoa	396,00 €	1. funtzioa: 407,00 € 2. funtzioa: 209,00 €	515,00 €	1. funtzioa: 526,00 € 2. funtzioa: 209,00 €

- * Espazio eszenikotzat hartzen da eszena bakarrik erabiltzea.
- * Espazio eszenikoa eta besaulki-patioa erabiliko direnean auditorium osoa eskatzen duela ulertuko da.
- * Oinarrizko premia teknikotzat hartzen da jarduera garatzeko aretoan teknikaririk egon behar ez denean.
- * Laguntza teknikotzat eta makineria eszenikotzat joko da jarduera gauzatzeko aretoan teknikari bat egotea beharrezkoa denean.

B. 2. aretoa: Areto txikia

	Astelehenetik ostiralera	Larunbatak eta jaiegunak
5 ordu arte	104,00 €	153,00 €
5 ordu baino gehiago	188,00 €	255,00 €

C. 3. aretoa: Erabilera anitzetako gela

	Astelehenetik ostiralera	Larunbatak eta jaiegunak
5 ordu arte	84,00 €	108,00 €
5 ordu baino gehiago	157,00 €	204,00 €

D. 4. aretoa: Erakusketa aretoa

	Astelehenetik ostiralera	Larunbatak eta jaiegunak
5 ordu arte	84,00 €	108,00 €
5 ordu baino gehiago	157,00 €	204,00 €

* Ez dira ordainduko Udaleko Kultur Zerbitzuak antolatzen dituen erakusketak.



Zerrenda horretan, prezioek EZ dute salmenta-zerbitzua eta leihatila barne hartzen. Beharrezkoa izanez gero, tarifa 104,00 €igoko da.

SALBUESPENAK

2022ko ordenantzaren 10. artikuluan ezarritakoez gain, ez dute prezio publiko hau ordaindu beharko honako baldintza hauek guztiak betetzen dituzten kultura-jarduera antolatuek:

- Udaleko Erakundeen Erregistroan inskribatutako erakundeek, udal hau partaide den mankomunitateek, irabazi-asmorik gabeko erakundeek edo Olaztiko eta Urdiaingo udalek sustatutako jarduerak.
- Astelehenetik ostiralera Udaleko Kultura Zerbitzuaren ordutegian egiten diren jarduerak.
- Argiztapen-ekipamendurik behar ez dutenek.

TARIFA BEREZIAK.

% 50eko hobaria aurreikusten da sarrera kobratuz antolatzen diren ekitaldietan, eta % 30ekoa sarrera kobratzeko modukoak izanik doakoak diren ekitaldietan, honako kasuistika hau betetzen duten jardueretan:

- Udaleko Erakundeen Erregistroan inskribatutako erakundeek eta udal hau partaide den mankomunitateek antolatutakoak.
- Udaleko Kultura Zerbitzuaren ordutegitik kanpo antolatutakoak.

4.- KIROL INSTALAZIOAK

4.1. KIROLA EGITEKOAK

KONTZEPTUA	2024KO TARIFAK
Zelandi kiroldegia	
• Ordua/pista osoa	28,40
• Ordua/modulua	9,90
Zelandi pilotalekua	
• Ordua argiarekin	9,90
• Ordua argirik gabe	5,50
Burunda pilotalekua	
• Ordua argiarekin	14,20
• Ordua argirik gabe	6,50
Zelandi 2/3 aretoa	
• Aretoko ordua argirik gabe	9,90
• Aretoko ordua argiarekin	14,20
Garbitokiko gimnasioa/Mojak	
• Ordua	9,90
Futbol zelaia	
• Zelai guztia, argirik gabe, orduko	20,20



• Zelaia (F-7), argirik gabe, orduko	14,60
• Argiarekin/ordua*	20,30
Atletismoko pista	
• Zelandiko kirolgunean abonaturakoak	Doan
• Banakako sarrera	1,80
• Pista alokatzea, orduko	9,90
• Urteko bonua	40,00
Igerilekuko kalea	
• Alokatzeta, lehenengo ordua	40,00
• Alokatzeta, bigarren ordua eta hurrengoak	8,00
Aire zabaleko tenis pista	
• Ordua argiarekin	6,50
• Ordua argirik gabe	4,00

Kirol Zerbitzuak eta ATABOk beretzat gordetzen dute 2/3 aretoa alokatzeko eskubidea, baldin eta uste bada areto hori alokatzea desgokia dela Udalaren kirol eskaintzari dagokionez.

* Argia aldi berean talde batek baino gehiagok erabiltzen badu, gastua zati berdinetan banatuko da.

-Instalazioak alokatzeko tarifaren barnean ez dago kirol materiala uztea.

-Instalazioak aldagelak baditu, tarifaren barnean egonen da horiek erabiltzeko eskubidea.

TARIFA BEREZIAK.

-Baldin Entitateen Udal Erregistroan inskribatutako entitateek eta Sakanako Mankomunitateak egiten badituzte kirol jarduera arruntak eta kirol entrenamenduak Atabo Altsasu SL enpresak kudeatutako instalazioetan, jarduerak horiek %50eko hobaria izanen dute.

- Alokairuak egiten badira egun jarraituetan eta 20 ordu baino gehiagorako, %30eko hobaria izanen dute.

SALBUESPENAK:

-Entitateen Udal Erregistroan inskribatutako entitateek antolatzen dituzten kirol-lehiaketa eta ikuskizunak, baldin instalazioa erabiltzeko ordutegira egokitzen badira.

-Kirola 16 urtera bitarte sustatzen duten kirol klubak entrenamenduak eta lehiaketak, baldin betetzen badituzte horretarako diru-laguntzen deialdian eta/edo lankidetzaren hitzarmenetan Altsasuko Udalak ezarritako baldintzak.

4.2.- INSTALAZIOEN ERABILERA KIROLEZ KANPOKOA EDO BEREZIA

KONTZEPTUA	EGUN ERDIKO TARIFA, 2024	EGUN OSOKO TARIFA, 2024	FIDANTZA
Zelandi kiroldegia Burunda pilotalekua	137,60	243,40	165,00



Futbol zelaia			
Gimnas.- Mojak Gimnas.- Garbitokiko gimn. Eta Zelandi pilotalekua	52,90	79,40	75,00

-Egun erdiko tarifa aplikatuko zaie instalazioak 9:00-15:00 edo 15:00-22:00 ordu-tartean erabiltzen dituzten ekitaldiei.

-Egun osoko tarifa aplikatuko zaie instalazioak bi ordu-tarteetan erabiltzen dituzten ekitaldiei.

-Gaua pasatzeko tarifa egun osoko tarifaren parekoa izanen da.

SALBUESPENAK.

-Prezio publikoa ordaintzetik salbuetsirik egonen dira Udal Erregistroan inskribatutako entitateek antolatzen dituzten doako jarduerak, baldin instalazioa erabiltzeko ordutegira egokitzen badira.

-Prezio publikoa ordaintzetik salbuetsirik egonen dira Udal Erregistroan inskribatutako entitateek antolatzen dituzten otorduak, baldin justifikaturik badaude entitatearen helburuen arabera.

Lehentasunez eta eskura baldin badaude, Gure Etxea eta Zelandi pilotalekua bakarrik erabiliko dira Udalak sustatzen ez dituen otorduetarako, betiere kontuan izanik zenbatek hartzen duten parte.

Salbuespenez, halaber, Burunda pilotalekua erabiltzea baimentzen ahal da, erabilera horren baimen-egintzako baldintzetan; baldintza horien helburua izanen da instalazioa kirolerako erabiliko dela bermatzea.

5.- INTXOSTIAPUNTAKO TARIFAK

INTXOSTIAPUNTA	TARIFA (PREZIOA, EUROAK/ORDUA, 2024)
Areto arrunta	8,00
Erabilera anitzeko aretoa (bikoitza), pantaila duena, eta sukaldea areto gisa	16,00
Ziberra	19,00
Sukaldea	- • 1,00 euro, zerbitzua/langabea - • 2,00 euro, zerbitzua/landuna - 5,00 euro, jaki bat prestatzea eramateko (6 pertsonako kopururaino)

Instalazioen tarifaren barnean ez da sartzen materiala lagatzea, salbu eta erabilera anitzeko aretoan, haren barnean baitago pantaila finkoa.

SALBUESPENAK:



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
j; Garcia Ximenez 36 - 31800

Ordenantza honen 10. artikuluan ezarritakoez gain, Intxostiapunta gaztegunearen erabilera arautzen duen ordenantzan ezarritakoak.

6.- ZELANDI IKASTETXE PUBLIKOKO IKASGELAK ERABILTZEKO TARIFAK:

ZELANDI IKASTETXEKO IKASGELAK	PREZIOA 2024
Erabilera ordu bakoitzeko	5,30 €
ZELANDI GIMNASIOA	9,90 ORDUA

TARIFA BEREZIAK.

-Entitateen Udal Erregistroan inskribatutako entitateek egiten dituzten kirol jarduera arruntek eta kirol entrenamenduek %50eko hobaria izanen dute.

SALBUESPENAK

-Ez da prezio publikorik eskatuko ikasgelak erabiltzen badira gurasoen elkarteak eta Eskola Kontseiluak sustatzen duten ohiko eskola jarduera egiteko, beren helburuen eta berariazko jardueren barnean, edota Udalak nahiz Nafarroako Gobernuak erabiltzen badituzte, betiere, azken kasu horretan, Udalaren organo eskudunak interesekotzat jotzen duenean egin beharreko jarduera.



20. ORDENANTZA
KAMIOENTZAKO APARKALEKUA ERABILTZEKO PREZIO PUBLIKOAK FINKATZEKO ETA
KONTZEPTU HORREN GAINEKO PREZIOAK EZARTZEKO ARAUA.

ATARIKOA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Arau honen helburua. Arau honek kamioien udal aparkalekuen erabilera arautu eta kontzeptu horregatik ordaindu beharreko prezioak arautzea du xede.
2. art. Oinarria. Oinarria Arau hau ondoko xedapenei jarraikiz onetsi da: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 99 eta 262. artikulua; Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen 100. artikulua eta hurrengoak, 4/1999 Foru Legeak aldatu baitzuen; eta Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen Erregelamenduko 93. artikulua eta hurrengoak.
3. art. Arau honen esparru objektiboa. Kamioien udal aparkalekuari aplikatuko zaio.

I. KAPITULUA

Udal aparkalekua erabiltzeko arauak

4. art. Bakarrik kamioek aparkatzen ahal dute arau honen xedeko udal aparkalekuan. Aparkaleku hau jabari publikoko ondasuna da, eta haren titulartasuna Altsasuko Udalari dagokio.
5. art. Udal aparkalekua erabiltzeko interesa dutenek Udalaren lizentzia eskuratu beharko dute.
Lizentzia hori emanen da aparkalekuko plaza bakoitzaren erabilera pribatibo arrunterako, Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen Erregelamenduaren 93. artikulua arautzen duen bezala, erabileraren intentsitatearen arabera.
Lizentziak urtebeterako emanen dira, luzatzeko aukerarekin, prekarioan eta hirugarrenei kalterik egin gabe. Emakidadunak ezinbestean bete beharreko baldintzak finkatuko dira, eta lizentzia horiek noiznahi baliogabetu ahalko dira, aipatu baldintzak betetzen ez badira edo interes publikoa tartean badago.
6. art. Lizentzia ematearekin batera, dagokion urteko prezioa ordaindu ondotik, emakidadunari aginte elektroniko bat emanen zaio, aparkalekuko atea ireki ahal izateko. Aginte horren jabea, nolana ere, Altsasuko Udala izanen da.
7. art. Zirkulazioaren gaineko zerga ordaintzen duten Altsasuko bizilagunek lehentasuna izanen duten lizentzia eskuratzeko, eta betiere baldintza hori betetzen dutenen artean lurzatiarik ez dutenek, behar bezalako baldintzetan aparkalekutako erabiltzeko. Plaza hutsik bada, behar den lizentzia esleitu ahal izanen da nahiz eta eskatzailea aparkalekutako egokitutako lurzatiaren jabe izan.
8. art. Lizentzia eskuratzen duten eskatzaileek aparkalekuaren izaera eta xedea kontuan hartuz erabili beharko dute lizentzia hori, inolako kalterik edo galerarik ez eragiteko, zertarako eskatu zen, helburu horrekin egindako erabilera ohikoa, egokia eta arrazoizkoa dela-eta gerta daitekeen higadura izan badaiteke ere.
9. art. Udal aparkalekua ezin izanen da inola ere erabili eskuratutako lizentziaren helburua ez den beste baterako.



10. art. Udal aparkalekua erabili nahi duten norbanakoek edo entitateek Udalari egin beharko diote eskaera, idatziz egin ere. Datu pertsonalak eta ibilgailuari dagozkionak zehaztu beharko dituzte. Lehentasuna emanen zaie Udal honetan erroldaturik daudenei, eta nahitaezkoa izanen da, gainera, ibilgailua herri honetan alta emanda egotea, bai zirkulazioaren gaineko zergan bai EJZn.

11. art. Udalak eskatzen ahalko du fidantza jar dadin, legez onartzen diren moduetako edozeinen bidez. Udal aparkalekuko lurzatiak behar bezala erabili eta lagapenaren aitzinetik zeuden horretara lehengoratzeko betebeharrei erantzuteko izanen da fidantza. Halaber, erabiltzaileek ordaindu beharko dituzten kalte-ordainen berme izanen da delako fidantza, udal aparkalekuan halakoak gertatzen direnean. Arau hau aplikatuz zehapenik paratu behar baldin bada, horien ordainketari erantzuteko ere izanen da.

Fidantzaren zenbatekoa izanen da emakidaren denbora guztiarengatik likidatutako tasaren erditik osora bitartekoa.

12. art. Ematen den lizentziaren epea amaitzen denean, Udalak nahi bezainbat egiaztapen egiten ahalko du, ordenantza honetan eta emakidadunen lizentzietan ezarritako betebeharrak eta baldintza guztiak betetzen ote diren ikusteko.

Emakidadunek arau honetan ezarritako betebeharrak eta lizentziaren baldintzak betetzen dituztela, kalte-galerarik ez dagoela eta zehapenak jartzeko arrazoirik ez dagoela ikusi ondoren, Udalak fidantza itzuliko du, baldin eta lehendik hura eratzeko eskatu bazen.

Kontrara gertatuz gero, bidezko diren erantzukizunak galdutako ditu. Horrelakoetan, fidantza izanen da ordaintzeko ordenantza honetan eta lizentziaren baldintzetan ezarritako betebeharrak ez betzetik, eragindako kalte-galeretatik eta bidezko diren zehapenetatik etor daitezkeen diru erantzukizunak.

II. KAPITULUA

Erantzukizunak, arau-haustekak eta zehapenak.

13. art. Kamioien udal aparkalekua erabiltzeko emakidadunek eta/edo lizentziaren titularrek erantzun beharko dute, iruzurra edo utzikeria direla medio bertan eragiten dituzten kalte eta galerengatik.

14. art. Aparkalekua erabiltzeko lizentziaren titularrak bat baino gehiago badira, denek elkarrekin eta solidarioki erantzun beharko dute, ordainduz prezio publikoak, aparkalekuan eta instalazioetan eragindako kalte eta galerak eta ezartzen diren zehapenak, halakorik gertatuz gero.

15. art. Arau-haustetzat hartuko da kamioien aparkaleku izatea ez den bestelako edozein jarduera, eta bereziki ingurunea hondatu eta ingurumena kaltetzen dutenak. Arau-hauste larritzat hartuko dira, besteak beste, aparkalekua zikintzen duen edozein gai bertan utzi edo lagatzea eta edozein jarduera mekanikoa egitea.

16. art. Aipatu arau-haustekak eginez gero, honako zehapen hauek ezarriko dira: Kamioien Altsasuko udal aparkalekua erabiltzeko lizentzia kentzea.

17. art. Kalte-galerengatik bidezkoa gertatzen den ordaindu beharrekotik aparte ezarriko dira aitzineko artikuluetan xedatutakoaren ondoriozko zehapenak.

Aurreko artikuluetan aipatutako erantzukizun eta zehapenak administrazio bidez gauzatuko dira.

III. KAPITULUA

Kamioien udal aparkalekua erabiltzeko prezioak

18. art. Zergapeko egitea. Zergapeko egintza da pertsona fisiko edo juridikoek kamioien udal aparkalekua erabiltzeko tasaren zenbatekoa, udal lizentzia eskuratu ondotik.

19. art. SUBJEKTU PASIBOA Tasa hauen subjektu pasiboak izanen dira Udalak lizentzia eman ondoren kamioien udal aparkalekua erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.

20. art. KARGA OINARRIA Karga-oinarria izanen da kamioien udal aparkalekua erabiltzen den hilabeteen kopurua.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
j; Garcia Ximenez 36 - 31800

21. art. TARIFAK Tarifak arau honen eranskinean agertzen dira.
22. art. Tributu-kuota. Tributu-kuota zehazteko, karga-oinarriari dagokion tarifa aplikatuko zaio.
23. art. Sortzapena. Kamioien udal aparkalekua erabiltzeko lizentzia eskatzen den unean sortuko dira prezioak.
24. art. Ordainarazpena zer motatakoa den kontuan hartuz, ez da inoiz kuotaren zenbatekorik itzuliko eta ez da onartuko beste erabiltzaile batzuei eskualdatzea ordainagiriak.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honek Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean aurreikusitako izapideak bete ondoan hartuko du indarra.

Eranskina

Plaza: 282,00€/urtea

Aipatutako prezioei dagokien BEZa gehituko zaie.



21. ORDENANTZA:

PREZIO PUBLIKOAK EZARTZEN DITUENA SARRERETARAKO, IZEN EMATEETARAKO ETA/EDO MATRIKULETARAKO, UDALAK ANTOLATZEN DITUEN KULTURA, KIROL EDO GIZARTE ARLOKO PROGRAMA ETA JARDUERETAN

Oinarria

1. art. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 28. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babespean ezarri da arau honetako prezio publikoa.

Arau honen xedea da Udalak antolatzen dituen kultur, kirol edo gizarte arloko zerbitzuak edo jarduerak egitea.

Zerga-egitatea

2. art. Prezio publikoak galdutako dira, Mankomunitateak kirol arloan urtean antolatzen dituen ikastaro, ekitaldi edo jardueretan parte hartu edo horietara joateko eskubidea ematen duten matrikula edo gisako beste edozein kontzeptu dela eta, prezio publikoak aplikatzeko beste arauetan sartuta ez daudenean.

Subjektu pasiboa

3. art. Zerbitzuen edo jardueren onura jasotzen duen pertsona fisiko edo juridikoa da prezio publikoaren subjektu pasiboa.

Prezio publikoaren sortzapena

4. art.- Prezio publikoaren zenbatekoa ordainduko da izen-ematea edo matrikula egitean.

5. art. Ikastaroa edo jarduera antolatzeko oinarriek kasu bakoitzerako ezarritako moduan eta tokian egingo da diru-bilketa.

6. art. Prezioa ordaintzera behartuta dagoenari leporatu ezin zaizkion arrazoiak direla eta, ikastaroa edo jarduera egiten ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio. Beste edozein arrazoiengatik zenbatekoa itzultzen bada, kasuan kasuko urtearen udal jardueri buruzko araudian jasoko da.

Tarifak

7. art. Aplikatu beharreko tarifak ordenantza honen eranskinean agertzen dira, edo egin behar diren jardueren ezaugarri bereziei jarraikiz kasuan-kasuan ezarriko dira.

Hobariak

8. art. Prezioak per capita errentaren arabera ezartzen dira. Honela kalkulatu da "per capita errenta": familia unitatearen diru-sarrerak (507+8810+8808+-706+-765 laukia) errenta aitortzean, zati familia unitatea osatzen duten pertsona kopurua. Eskuratutako diru-sarreretan 11 tarte ezarri dira.

ERRENTA TARTEAK	APLIKAZIOA
T1 (1.tartea): 25.000,00 edo gehiago	+25%
T2 (2.tartea): 15.000,01 – 24.999,00	=
T3 (3. tartea): 12.400,01 – 15.000,00	-6.87 %
T4 (4.tartea): 10.700,01 – 12.400,00	-17.91 %
T5 (5.tartea): 9.300,01 – 10.700,00	-26.87 %
T6 (6.tartea): 7.980,01 – 9.300,00	-38.21 %
T7 (7.tartea): 6.650,01 – 7.980,00	-46.27 %
T8 (8.tartea): 5.500,01 – 6.650,00	-54.33%
T9 (9.tartea): 4.500,01 – 5.500,00	-58,51 %
(10. tartea) 4.500 -2.000,01	- 62.69%
(11. tartea) 2.000,00 edo gutxiago	-80,00%



Hobarietarako aukera izateko, norberaren edo familiaren azken errenta aitorenaren fotokopia aurkeztu behar da, eta, adingabeen kasuan, aitaren eta amaren edo legezko tutorearen errenta aitorenaren fotokopia. Edonola ere, fotokopia bakar bat aurkeztuko da familia edo pertsona bakoitzeko, eragina izanen duena zergaldi osoan hobariari lotutako jarduera guztietarako.

Dokumentazioa aurkezten ez bada, 1. tartean ezarritako zenbatekoa ordaindu beharko da.

9. art. Hobariak bakarrik aplikatuko zaizkie Altsasun erroldatuta gutxienez sei hilabete daramatzaten pertsoneri.

10. art. Altsasun erroldatuta dauden eta beraiei ez dagozkien arrazoiengatik errenta-aitorpena aurkeztu ezin duten pertsonak, erroldatze-datatik lehen urtean, zinpeko aitortpena edo aurreko urteko diru-sarreraren ziurtagiria aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana. Horren arabera, Ordenantza Fiskal honen arabera aplikatu beharreko errenta-tartea aplikatuko da. Ordenantza Fiskal honen 9. artikuluan ezarritako gutxienerako erroldatze-aldia ez da aplikatuko.

Erroldatze-datatik bigarren urtetik aurrera, Ordenantza Fiskal hau aplikatuko da modu arruntean aipatutako pertsonen kasuan.

I. EPIGRAFEA. KULTURAREN UDAL ZERBITZUAREN KULTURA JARDUERA, IKUSKIZUN, KONTZERTU, ANTZERKI ETA ZINEMARAKO SARRERAK.

Iortia Kultur Gunearen programaren barrenean dauden ikuskizunek eta zinemek ondoko prezio publikoak izanen dituzte, baldin eta Altsasuko Udalak sustatzen baditu. Hau da, horietatik kanpo gelditzen dira Kultur Guneako ikuskizunak baldin eta kanpoko sustatzaile bat badute, hark alokatzen duenean Kultur Guneako auditorioa edo hitzaldi aretoa, bat etorri Udalaren lokalak erabiltzeko prezio publikoak arautzen dituen 19. ordenantzarekin. Kasu horietan, sustatzaileak eta Udalak hitzartuko dute sarreraren prezioa, eta ondotik zehazten diren prezioez bestelakoak izan daitezke. Era berean, kultura sustatzeko Estatuko edo autonomia erkidegoko programen babesarekin eskaintzen diren ikuskizunek ere izan ditzakete bestelako prezio publikoak, baldin aldez aurretik Udalarekin hitzarmena egiten bada.

1. IORTIA KULTUR GUNeko ZINEMA.

1.1. TARIFA OROKORRAK

ZINEMA	Aldez aurretik	Txarteldegian
Familiarentzako zinema	3,00€	3,50€
Gaurkotasuneko zinema-foruma	4,50€	5,00€
Ikusleen eguna (komertziala)	3,50€	3,50€

1.1.2. TARIFA BEREZIAK

1.- Langabetuek eta/edo ikasleek %20 hobaria izanen dute zinema sarreretan.

2.- Abonuak

2.1. Abonuak zinemarako:

a) Zinemako abonamendua, 8 film: 30 euro (2 hilabetez, gehienez ere 2 sarrera saioko).



b) Zinemako abonamendua, 5 film: 20 euro (hilabetez, gehienez ere 2 txartel saioko).

c) Zinemako abonamendua, 3 film: 12€ euro (hilabetez, ezin beste inori pasatu).

1. 3.- ZINEMA SARRERAK EROSTEA:

- Erosteke tokia: Kultur etxeko txarteldegia eta online (www.iortiakultura.com)
- Erabilera mugatua, 2 txartel saioko.
- Zinemako abonamenduek iraungipen data dute, abonamendu bakoitzean zehaztua (sarreraren dirua ez da itzuliko erabiltzen ez badira eguna pasatu ondoren).
- Txartela iruzurrez erabiltzeak txartela berehala kentzea ekarriko du.

Sarrerak ezin dira itzuli.

2. ZUZENEKO IKUSKIZUNAK.

2.1. TARIFA OROKORRAK

ZUZENEKO IKUSKIZUNAK		
Familiarra	3,00€-5,00€	3,5€-5,50€
Gazte helduena (ikuskitun profesionala)	6,00€-15,00€	8,00€-15,00€
Ikuskizun amateurra	3,00€-6,00€	4,00€-7,00€
Musika eskolako kontzertuak; udal eskolen erakusketak	1,00€	1,00€

2.2. TARIFA BEREZIAK

Tarifa bereziak ezartzen dira abonamenduen bidez:

2.2.1. Gazte/helduentzako antzerki abonamenduak. Hiruhilekoko antzerki abonamenduek gutxienez ere hiru ikuskizun + zinema sarrera bat edukiko dituzte, eta gutxienez aplikatu beharreko deskontua izanen da "gaurkotasuneko zinema/foruma" sarrera bat adinakoa.

2.2.2. Familiarentzako abonamendua: Familiarentzako ikuskizun/zinemaren abonamenduak hilabete batekoak izanen dira, eta gutxienez 4 ikuskizun/film edukiko dituzte. Gutxienez aplikatu beharreko deskontua izanen da familiarentzako zinema sarrera bat adinakoa.

ZUZENEKO IKUSKIZUNEN SARRERAK EROSTEA:

- Non erosi: Iortia Kultur Guneko txarteldegian eta online (iortiakultura.com), errekar gurik gabe.- –Bonuak erosi behar dira horretarako hiru hilabetean behin ezarritako epeetan, zeinak argitaratzen baitira agendan eta online bitartekoetan.
- –Iruzurrez erabiltzeak bonua berehala kentzea ekarriko du.
- Sarrerak ezin dira itzuli.

3. BESTE KULTURA JARDUERA BATZUK.

Iortia Kultur Guneak eskaintzen ditu hainbat jarduera doan, eta horiek aldizkakotasun aldakorra izan dezakete:

- –Ipuinen unea.
- Erakusketak
- Noizean behingo lantegiak.



4. Adinekoen bazkaria festetan.

ADINEKOEN BAZKARIAREN PREZIO PUBLIKOAK	PREZIOA
65 urtetik gorakoak, Altsasun erroldaturik badaude	12 euro
65 urtetik gorako laguntzaileak eta/edo ezkontideak, Altsasun erroldaturik badaude	15 euro
65 urtetik gorako laguntzaileak eta/edo ezkontideak, Altsasun erroldaturiz ez badaude	20 euro

II. EPIGRAFEA: GAZTERIAREN ARLOKO JARDUERAK.

❖ **Gu Geu Gazte programa (dibertsitate funtzionala duten gazteak).**

• **Programa hiru epetan garatzen da;**

- Apirila eta Eguberriak: egunak izanen dira ikastetxeen oporren arabera.
- Uztaila: 1-26.
- Egunak: astelehenetik ostiralera, jaiegun ez direnean.
- Orduetgia: 17:00-20:00.

TARTEA	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11
2024. URTEA	25,00%	0,00%	-6,87%	-	-	-	-	-	-58,51%	-	-
Apirila	11,80	9,40	8,80	7,70	6,90	5,80	5,10	4,30	3,90	3,50	1,90
Uztaila	67,60	54,10	50,40	44,40	39,60	33,40	29,10	24,70	22,40	20,20	10,80
Gabonak	20,80	16,60	15,50	13,60	12,10	10,30	8,90	7,60	6,90	6,20	3,30

❖ **Udagazte programa (hiri-kanpamentua).**

- **Programa mota:** aisialdi eta astialdia.
- **Data:** uztaileko lehen hamabostaldia.
- **Orduetgia:** 10:00-13:00. Kanpaldia, uztailearen 11tik 12ra.
- **Egunak:** astelehenetik ostiralera, jaiegun ez direnean.

TARTEA	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11
2024. URTEA	25,00%	0,00%	-6,87%	-	-	-	-	-	-	-	-
Uztaileko lehenengo hamabostaldia	26,60	21,30	19,80	17,50	15,60	13,20	11,40	9,70	8,80	7,90	4,30



PRESTAKUNTZA IKASTAROAK

- Ikastaroaren definizioa: gutxienez 6 orduko iraupena duen jarduera. Tailerretatik bereizten da, azken horiek gutxiago irauten dutelako.
- Tipologia: curriculum pertsonalarekin lotutako prestakuntza; enplegurako prestakuntza, garapen pertsonala, teknologia berriak eta abar.

IRAUPENA	PREZIOA Materiala barne dago	KUOTA (€)
6-8 ordu	500 euro arte	8 €
6-8 ordu	800 euro arte	10 €
8-10 ordu	800€ - 1.000€	12 €
10-15 ordu	1.000€ - 1.500€	15 €
60 ordu	2.400,00 €	69 €
90 ordu	3.733,28€	103€

Salbuespenak: Berdintasunarekin, sexualitatearekin, kulturartekotasunarekin, ingurumenarekin, euskararekin, parte-hartzearekin eta abarrekin lotutako ikastaro sozialak, horien edukia komunitatearen onurarako sentsibilizazioarekin eta prestakuntzarekin lotuta badago.

GAZTEENDAKO TAILERRAK:

- Definizioa: gutxienez 6 orduko iraupena duten jarduerak. Afariak, irteerak, gaueko jaialdiak eta antzekoak.

Ezaugarriak eta kuota

1. Gazteria Zerbitzuko monitoreek dinamizatutako jarduerak:

DESKRIBAPENA	KUOTA (€)
2 ordu arte, eta material gastua 50€ euro arte	1,50
2 eta 4 ordu bitarte, eta material gastua 100 euro arte	2,00
Irteerak, 200 km arte	3,00
Afariak	3,00
Gaueko jaialdiak	3,00

2. Jarduerak kanpoko monitoreekin

DESKRIBAPENA	KUOTA (€)
2 ordu arte, eta material gastua 50€ euro arte	1,50
2 ordu arte, eta material gastua 50 eta 100 euro bitarte	2,00



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
j; Garcia Ximenez 36 - 31800

2 ordu arte, eta material gastua 100 eta 150 euro bitarte	2,50
2 eta 4 ordu bitarte, eta material gastua 50 euro arte	2,50
2 eta 4 ordu bitarte, eta material gastua 50 eta 100 euro bitarte	3,00
2 eta 4 ordu bitarte, eta material gastua 100 eta 150 euro bitarte	3,50
4 eta 6 ordu bitarte, eta material gastua 50 euro arte	4,00
4 eta 6 ordu bitarte, eta material gastua 50€ eta 100€ euro bitarte	4,50
4 eta 6 ordu bitarte, eta material gastua 100 eta 200 euro bitarte	6,00



III. EPIGRAFEA: LUDOTEKAKO JARDUERAK.

III. EPIGRAFEA: LUDOTEKAKO JARDUERAK.

Kuotak kalkulatzeko, oinarritzat hartuko da orain arte egin diren programen orduko prezioaren batezbestekoa; 1€/h euro ordua.

❖ **AISIZ BLAI PROGRAMA**

- Programa honako aldi hauetan garatzen da urtean zehar:

- Udaberria, ekaina, negua: datak eskolako oporrak kontuan hartuta finkatuko dira.
- Uztaila: hilabete osoa (hamabostaldika ematen da izena).
- Abuztua: hilabete osoa (hamabostaldika ematen da izena).

❖ Udaberrian (2024ko apirila).

5 h/egun x 4 egun + 3 programazio-ordu = 23 ordu x 1 euro/ordu = 23 euro

❖ Udan (2024ko ekaineko azken astea).

5 h/egun x 7 egun + 3 programazio-ordu = 38 ordu x 1 euro/ordu = 38 euro

❖ Udan (uztaileko 1. hamabostaldia).

4,5 h/egun x 11 egun + 6 programazio-ordu = 55,5 ordu x 1 euro/ordu = 55,5 euro

❖ Udan (2024ko uztaileko 2. hamabostaldia).

4,5 h/egun x 11 egun + 6 programazio-ordu = 55,5 ordu x 1 euro/ordu = 55,5 euro

❖ Udan (2024ko abuztuko 1. hamabostaldia).

4,5 h/egun x 10 egun + 4 programazio-ordu = 49 ordu x 1 euro/ordu = 49 euro

❖ Udan (2024ko abuztuko 2. hamabostaldia).

4,5 h/egun x 10 egun + 4 programazio-ordu = 49 ordu x 1 euro/ordu = 49 euro

❖ Neguan (2024ko abenduan).

5 h/egun x 9 egun + 3 programazio-ordu = 48 ordu x 1 euro/ordu = 48 euro

Kuotak: 11 tarte ezarri dira, honela kalkulatuak: familia-unitateak dituen diru-sarrerak (errenta aitorenaren lauki hauek: 507+8810+8808+-706+-765) zatitu behar dira familia-unitateko kide-kopuruaz.

T1	T2	T3	T4	T5	T6	T7	T8	T9	T10	T11
25.000 edo gehiago	15.000,01-24.999,0	12.400,01-15.000,00	10.700,01-12.400,00	9.300,01-10.700,00	7.980,01-9.300,00	6.650,01-7.980,00	5.500,01-6.650,00	4.500,01-5.500,00	4.500-2.000,01	2.000,00 edo gutxiago



Irizpide horien arabera, honako kuota hauek onartu dira:

TARTEA	ORDUTEGI A	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11
DESKONTUA		+25%	0	-6,87%	-17,91%	-26,87%	-38,21%	-46,27%	-54,33%	-58,81%	-62,69%	-80,00%
AISIZ BLAI 2024KO APIRILEAN	8:30-13:30	29,00	23,00	21,00	19,00	17,00	14,00	12,00	10,50	9,00	8,50	5,00
	11:00-13.30	14,50	11,50	10,50	9,50	8,50	7,00	6,00	5,25	4,50	4,25	2,50
AISIZ BLAI 2024ko EKAINEAN	8:30-13:30	47,50	38,00	35,00	31,00	27,80	23,50	20,00	17,40	15,70	14,00	7,60
	11:00-13.30	23,75	19,00	17,50	15,50	13,90	11,75	10,00	8,70	7,85	7,00	3,80
AISIZ BLAI 2024KO UZTAILEAN (1. hamabostaldia.)	9:30-13:00	68,75	55,00	51,00	45,00	40,00	34,00	29,60	25,00	22,70	20,55	11,00
AISIZ BLAI 2024KO UZTAILEAN (2. hamabostaldia.)	9:30-13:00	68,75	55,00	51,00	45,00	40,00	34,00	29,60	25,00	22,70	20,55	11,00
AISIZ BLAI 2024ko ABUZTUA (1. Hamabostaldia)	9:30-13:00	61,25	49,00	45,60	40,25	35,80	30,30	26,35	22,40	20,20	18,30	9,80
AISIZ BLAI 2024ko ABUZTUA (2. Hamabostaldia)	9:30-13:00	61,25	49,00	45,60	40,25	35,80	30,30	26,35	22,40	20,20	18,30	9,80
2024ko ABENDUAN	8:30-13:30	60,00	48,00	44,70	39,40	35,10	29,65	25,80	22,00	19,80	17,90	9,60
	11:00-13.30	30,00	24,00	22,37	19,70	17,55	14,80	12,90	11,00	9,90	8,95	4,80

HOBARIAK

Aisiz Blai programan izena ematen hasi baino sei hilabete lehenago Altsasun erroldatutako pertsonak egindako inskripzioei soilik aplikatuko zaizkie hobariak.

III. EPIGRAFEA: KIROL JARDUERAK

KIROL ESKOLEN KUOTA. 2024-2025 IKASTURTEA

Jarduera	Adina	1.T.	2.T.	3.T.	4.T.	5.T.	6.T.	7.T.	8.T.	9.T.	10.T.	11.T.
Yoseikanbudo Eskola	2010-2020 (2 h)	214	171	159	141	125	105	92	79	70	63	35
	2009-2011 (3 h)	272	218	203	180	159	135	116	99	91	82	44
Triatlói Eskola	2009-2015	214	171	159	141	125	105	92	79	70	63	35
Igeriketa Eskola	2009-2015	214	171	159	141	125	105	92	79	70	63	35
Taekwondo Eskola	2009-2020	214	171	159	141	125	105	92	79	70	63	35
Gimnasia erritmikoko eskola	2009-2020 (2 h)	214	171	159	141	125	105	92	79	70	63	35
	2009-2016 (3 h)	272	218	203	180	159	135	116	99	91	82	44
Irristaketa Eskola	2013-2019	134	106	99	88	79	65	57	49	44	40	21
	2009-2012	165	133	123	108	97	82	70	60	55	49	27
Saskibaloí Eskola	2013-2017	134	106	99	88	79	65	57	49	44	40	21



	2009-2012	165	133	123	108	97	82	70	60	55	49	27
Futbol eskola	2013-2017	134	106	99	88	79	65	57	49	44	40	21
Areto-futbola	2009-2012	165	133	123	108	97	82	70	60	55	49	27
Atletismo eskola	2013-2017	134	106	99	88	79	65	57	49	44	40	21
	2009-2012	165	133	123	108	97	82	70	60	55	49	27
Pilota eskola	2013-2018	134	106	99	88	79	65	57	49	44	40	21
	2009-2012	165	133	123	108	97	82	70	60	55	49	27
Tenis eskola	2013-2017	134	106	99	88	79	65	57	49	44	40	21
	2009-2012	165	133	123	108	97	82	70	60	55	49	27
Txirrindularitza eskola (año 2024)	2012-2016	134	106	99	88	79	65	57	49	44	40	21
	2008-2011	165	133	123	108	97	82	70	60	55	49	27

16 URTE BITARTEKOEN OSASUN- JARDUERAK. 2024-2025 IKASTURTEKO KUOTAK (EUROTAN)

Jarduera	Adina	1.T.	2.T.	3.T.	4.T.	5.T.	6.T.	7.T.	8.T.	9.T.	10.T.	11.T.
Jarduera osasungarria Askotariko jarduerak	2013-2017	134	106	99	88	79	65	57	49	44	40	21
Jarduera osasungarria Indoor ziklismoa	2009-2012	165	133	123	108	97	82	70	60	55	49	27

HELDUENTZAKO OSASUN JARDUERAK. 2024-2025 IKASTURTEKO KUOTAK (EUROTAN)

Jarduerak	Adina	1.T.	2.T.	3.T.	4.T.	5.T.	6.T.	7.T.	8.T.	9.T.	10.T.	11.T.
ALSASUA SE MUEVE*	70 urtetik gora	241	192	179	159	141	118	103	89	79	71	39

–Argibideak.

"Altsasu mugitzen da" jarduera: "Altsasu mugitzen da" jarduera: plaza librerik badago, izena ematen ahalko dute 65 urtetik gorako pertsonak, edo 60 urtetik gorakoek, betiere programaren baldintzak betetzen badituzte.

"Altsasu mugitzen da" jardueraren prezioa 9 hilabeterako da; denbora gutxiago eginez gero, emandako hilabeteen proportzioan murriztuko da kuota.

Otsailaren 2tik aurrera egindako inskripzioek dagokien prezioaren %50 ordainduko dute.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
j; Garcia Ximenez 36 - 31800

V. epigrafea.–Berdintasuneko jarduerak.

Aisialdiko ikastaroen prezioak:

Errenta tartea (eurotan)		Hobaria	Ikastaroen (eurotan)	Prezioa
1	25.000 edo gehiago	25%	78,00	
2	15.000,01-24.999,0	0	62,50	
3	12.400,01-15.000,00	-6,87%	58,00	
4	10.700,01-12.400,00	-17,91%	51,00	
5	9.300,01-10.700,00	-26,87%	46,00	
6	7.980,01-9.300,00	-38,21%	39,00	
7	6.650,01-7.980,00	-46,27%	34,00	
8	5.500,01-6.650,00	-54,33%	29,00	
9	4.500,01-5.500,00	-58,81%	16,00	
10	4.500,00- 2.000,01	-62,69%	23,00	
11	2.000,00 edo gutxiago	-80,00%	13,00	



22. ORDENANTZA-ALTSASUKO MENDIKO PISTEN ETA BIDEEN ERABILERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

TARIFEN ERANSKINA

1. epigrafea. Ibilgailuen joan-etorria, jostetarako, turismorako edo ehiza aprobetxamenduetarako.

1.1. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari buruzko udal erregistroan inskribatu gabeko ibilgailuak, Altsasun erroldaturik dagoen titular batenak direnak: 11,00 euro urtean.

1.2. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari buruzko udal erregistroan inskribatu gabeko ibilgailuak, Altsasun erroldaturik ez dagoen titular batenak direnak: 21,00 euro urtean.

1.3. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari buruzko udal erregistroan inskribatu gabeko ibilgailuak, Altsasun erroldaturik ez dagoen titular batenak direnak: 21,00 euro urtean.

1.4. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari buruzko udal erregistroan inskribatu gabeko ibilgailuak, Altsasun erroldaturik ez dagoen titular batenak direnak: 53,00 euro urtean.

2. epigrafea. Ibilgailuen joan-etorria, jarduteko nekazaritzan, abeltzaintzan, oihangintzan edo oro har jarduera ekonomiko batean, modu iraunkorrean, traktoreak barne.

2.1. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari buruzko udal erregistroan inskribatutako ibilgailuak, Altsasun erroldatutako titular batenak direnak, haren jarduera ekonomikoa ere Altsasun kokatuta badago (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Erregistroa): 11,00 euro urtean.

2.2. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari buruzko Udal Erregistroan inskribatu gabeko ibilgailuak: 21,00 euro urtean.

3. epigrafea. Ibilgailu astunak.

3.1. Oihangintzako ustiapenetatik heldu den egurra garraiatzeko ibilgailu astunak, inskribaturik egon ala ez trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari buruzko Udal Erregistroan: 32,00 euro urtean.

3.2. Eraikuntzako materialak, makineria astuna, ondasunak eta ekipoak daramatzaten ibilgailuen joan-etorria, inskribaturik egon ala ez trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari buruzko Udal Erregistroan: 32,00 euro urtean.

3.3. Abeltzaintzako ustiategietara edo bestelako jarduera ekonomiko batera produktuak garraiatzeko ibilgailu astunen joan-etorria, inskribaturik egon ala ez trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari buruzko Udal Erregistroan: 32,20 euro urtean.

4. epigrafea.- Ibilgailu astunak, ustiapen edo jarduera ekonomikoei lotuak.

4.1. Oro har, nekazaritza, abeltzaintza, oihangintza eta eraikuntzako ustiapen eta jardueren horniduran eta garraioan erabiltzen diren ibilgailuak, halakotzat harturik ustiapenaren edo jardueraren titularraren arabera: 32,00 euro urtean.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
j; Garcia Ximenez 36 - 31800

23.- ORDENANTZA . ANIMALIAK JASOTZEA, ZAINTZEA ETA ELIKATZEA
ARAUTZEN DUENA

Animalia abandonatuak edo, arduradunik gabe, bide publikoan dabiltzanak, udal zerbitzuek jasotzen badituzte, titularrek bereganatzen dituztenean tasa hauek ordaindu beharko dituzte:

- Animalia jaso eta udal zakurtegiak uzteagatik: 25,50€ euro.
- Zaindu eta elikatzegatik: 2. egunetik aurrera: 6,30 euro/eguna.

Altsasuko Udaltzaingoa arduratuko da, jabeari animalia jaso duela jakinarazteaz.



ORDENANZA 24: IBILGAILUAK EREMU PUBLIKOTIK KENDU ETA ONDOTIK ALTXATZEKO ZERBITZUA EMATEKO ESKUBIDE ETA TASAK ARAUTZEN DITUENA.

Oinarria

1. artikulua. 1. Altsasuko Udalak ezarri du ordenantza hau, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 100. artikulua xedatutakoaren babesean, martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikuludunaren 71.1 artikuluari dagokionez, eta bat etorri Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko oinarriak ezartzen dituen uztailaren 25eko 18/1989 Legearen oinarri eta irizpideekin; aipatzearen, ondotik heldu dira zein kasutan izanen den bidezko ibilgailua bide publikotik kentzea eta hura altxatokira eramatea:

- a) Trafikoaren gaineko arau-haustek, ibilgailua ibilgetu eta/edo eramatea ekartzen dutenak.
 - b) Ereku publikoan abandonatuak egotea.
 - c) Epaile baten aginduz.
 - d) Enbargatzeko eginbidea, Administrazio Publikoarekiko zorreatatik.
 - e) Ibilgailuaren barrenean lapurretak izan direnean.
 - f) Ibilgailuak istripua jasan badu eta eremu publikoko gainerako erabiltzaileentzat arriskutsu izan badaiteke.
 - g) Ekitaldi publikoak daudenean, eta hori dela medio, beharrezkoa ikusten denean eremu publikotik ibilgailu guztiak eramatea.
 - h) Obrak egin behar direnean.
 - i) Ereku publikoa garbitzea behar denean.
 - j) Udalaren lorategi eta berdeguneetan mantentze lanak egin behar direnean.
 - k) Zerbitzu publikoetarako beharrezkoa denean.
 - l) Udalak Udaltzaingoaren bitartez zehazten dituen elementuak garraiatu behar direnean, betiere zerbitzu honek atxikiak dituen bitartekoekin egiterik bada.
2. Ibilgailua eramateak berekin dakar halako ibilgailua altxatokian uztea, betiere beharrezkoak diren neurriak hartuta gidariak edota jabeak ahalik eta lasterren jakinaren gainean egon daitezten. Nolanahi ere, argibide guztiak emanen dira Udaltzaingoko Ikuskaritza Zerbitzuan.
3. Ibilgailua eramateko lanak une hartan bertan geldituko dira gidaria edo baimendua dagoen beste edozein lagun agertzen badira eta beharrezko neurriak hartzen badituzte.



Zerga-egitatea

2. artikulua. Udalaren zerbitzu eskudunek ibilgailuak eramatea nahiz kentzen hastea, eta ondotik, interesdunari itzuli bitartean altxatokia edukitzea, horra zergapeko egintza.

3. artikulua. Honako hauek tasa ordaintzetik salbuetsita daude:

a) Behar den baimena duten kabalkada, desfile, segizio, kirol-saio edo beste jarduera nabarmenen bat egiteko den ibilbidean aparkaturik egoteagatik kentzen diren ibilgailuak, betiere astia nahikoarekin haren berri eman ez bada.

b) Eremu publikoa konpontzea edota garbitzea galarazten duten ibilgailuak eramaten badira, betiere eremu hura astia nahikoarekin seinalatuak izan ez badira.

c) Jabea ebatsitako ibilgailuak eremu publikotik kentzen badira, baina horretarako lapurretaren salaketaren kopia aurkeztu beharko du jabeak. Salbuespen horrek indarra izanen du ibilgailua ebatsi den datatik aurrera. Halaber, ibilgailua ebatsi dela ulertuko da baldin eta ebasketa baten zantzu garbiak baditu (sarraila bortxatuak, zubi elektrikoa, eta abar).

d) Altsasuko Udalaren Nahitazko Diru-bilketak erabakitako bahituraren ondorioz gordeta dauden ibilgailuak.

Zerga ordaindu beharra eta tasen sorrarazpena

4. artikulua. Zerga ordaindu beharra zerbitzu osoa egitean edo egiten hastean sorraraziko da, eta une berean ere izanen du sorrarazpena ibilgailua kentzeko tasak.

5. artikulua. Ibilgailua kendu eta 24 ordu iraganik sorraraziko dira ibilgailua altxatzeko tasak.

Subjektu pasiboa

6. artikulua. Ebatsia denean edo, behar bezala frogaturik, ibilgailua titularraren borondatearen kontra bestela erabiltzen denean izan ezik, ibilgailua erretiratzen bada, ordenantza honen 1. artikuluan aipatutako gastuak titularraren kontura izanen dira; eta horiek ordaintzea edo haien ordainketa bermatzea alde aurreko baldintza izanen du ibilgailua itzuliko bazaio. Horrek ez du deusetan ukatzen errekurtoa aurkezteko duen eskubidea, ezta gastu horiek istripua eragin, ibilgailua abandonaturik utzi edo arau-haustea egin duen lagunari kobratzea ere, egitate horietariko batengatik eraman badiote ibilgailua.

Karga oinarria

7. artikulua. Kendu edo altxatu den ibilgailu bakoitza da karga-oinarria.

Salbuespenak.

8. artikulua. Lege nahiz erregelamenduetako xedapenek hala aginduta nahitaz aplikatu beharreko albuespenak baizik ez dira onartuko.

Tarifak

9. artikulua. Ibilgailuak kentzeagatik, edo kentzen hasteagatik, eta altxatzegatik aplikatu beharreko tarifak ordenantza honetako eranskinean daude ezarrita.

Gastuaren kudeaketa.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
j; Garcia Ximenez 36 - 31800

10. artikulua. Ordainarazpen honen diru-bilketarako arau berezitako, zerbitzu honek sortuko dituen tasak Udaltzaingoaren egoitzan ordainduko direla ezarri da, eta egunero ordaintzen ahalko da 6:00etatik 22:00ak arte. Udaltzainek, ordainketa frogatzeko, behar den ordainagiriak edo tributu efektuak luzatuko dituzte.

11. artikulua. Kendutako ibilgailua ez zaio jabeari itzuliko hura kendu eta altxatzeak sortu dituen eskubideak ordaindu arte.

12. artikulua. Tasa honen likidazioa ordaintzeak ez du kentzen inolaz ere zirkulazio arauak hausteagatik bestalde izan daitezkeen zehapen edo isunak pagatu beharrik.

Jabeek eraman gabeko ibilgailuak

13. artikulua. Jabeek ez badute euren ibilgailuak jasotzen, Udalak haiek ibilgetu edo kendu eta altxatokira eramaten ahalko ditu, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikuluduna onesten duen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren 86 eta 87. artikuluetan edo haren ordezkari ematen den arautegian xedatutakoaren ildotik beretik.



I. epigrafea. – Zerbitzua egitera joan eta ibilgailua udal-deposituetara edo antzekoetara eramateko beharrezko lanak hasi ondotik, gidaria edo hark baimendutako pertsona agertzeagatik lana bukatzen ez bada:

- a) Ibilgailua, baimendutako gehieneko masa 2.000 kilogramokoa edo gutxiagokoa bada: 54,00 euro.
- b) Ibilgailua, baimendutako gehieneko masa 2.000 kilogramokoa baino gehiagokoa bada: 84,00 euro.
- c) Ibilgailu karrozatuak, gurpil bikidunak, 3 metro baino gehiagoko garaierakoak, 2 metro baino zabalagoak eta 6 metrotik gorako luzerakoak: 108,00 euro.

II. epigrafea. – Zerbitzua osorik egiten denean, ibilgailu arau-hauslea Udalaren altxatokira edo halako beste batera eramaten denean:

- a) Ibilgailua, baimendutako gehieneko masa 2.000 kilogramokoa edo gutxiagokoa bada: 98,00 euro.
- b) Ibilgailua, baimendutako gehieneko masa 2.000 kilogramokoa baino gehiagokoa bada: 174,00 euro.
- c) Tamaina handiko ibilgailuak: 205,00 euro.

III. epigrafea. –Ibilgailua altxatokian dagoela gidariak edo jabeak jakiten dutenetik 24 ordu igarota, altxatzeko egun edo zatiki bakoitzeko:

- a) Ibilgailua, baimendutako gehieneko masa 2.000 kilogramokoa edo gutxiagokoa bada: 10,00 euro.
- b) Ibilgailua, baimendutako gehieneko masa 2.000 kilogramokoa baino gehiagokoa bada: 15,50 euro.
- c) Tamaina handiko ibilgailuak: 20,50 euro.

IV. epigrafea.–Ibilgailua eremu publikoan zepoarekin ibilgetua bada:

- a) Ibilgailua, baimendutako gehieneko masa 2.500 kilogramokoa edo gutxiagokoa bada: 187,00 euro.
- b) Ibilgailua, baimendutako gehieneko masa 2.500 kilogramokoa baino gehiagokoa bada: 187,00 euro.
- c) Tamaina handiko ibilgailuak: 187,00 euro.

V. epigrafea.–Ibilgailuen berezitasunengatik Udalak dituen baliabideekin ezin eraman bada eta zerbitzua egiteko beste batzuegana jo beharra baldin badago, kobratu beharreko tasa izanen da Udalak ibilgailuak erretiratzeko eta altxatzeko lana egiten duen enpresari ordaindu behar diona gehi %20, administrazio arloko gastu orokorrenengatik.

Baimendutako gehieneko masa 2.500 kilogramokoa edo gutxiagokoa duen ibilgailu baten ezaugarriak direla medio, haiek erretiratzeko beharrezkoa bada erabiltzea garabi bat, hain zuzen ere baimendutako gehieneko masa 2.500 kilogramokoa edo gehiagokoa duen ibilgailu batendako erabiltzen dena, azkeneko horietarako ezarria dagoen tasa ordainaraziko da.

Epigrafe honetako kudeaketa eta ordainaraztea, Udalak kontratatu duen enpresaren kontura izanen dira.

VI. epigrafea.–Ordutegitik kanpoko gehikuntza (asteburuak, jaiegunak eta 20:00etatik 8:00ak arteko tartea): 71,00 euro.

VII. epigrafea.–Altsasuko Udalak kontratatzen duen enpresak bere gain hartuko ditu eremu publikoan abandonatuta dauden ibilgailuak erretiratzeko eta haiek desegitea, betiere Altsasuko Udaltzaingoan tramitatu ondoren. Lan horien kostua aurreko epigrafeetan ezarritakoa izanen da. Lan horien kostua aurreko epigrafeetan ezarritakoa izanen da.



25. ORDENANTZA:
ORDENANTZA FISKALA, ARAUTZEN DITUENA ALTSASUKO UDALAREN
LUR-ONDASUNEN GAINEKO KONTRIBUZIOAREN ZERGAREN KARGA-TASA ETA AUKERAKO
HOBARIAK

1. artikulua. Izaera.

Ondasun higiezinaren gaineko zerga da zuzeneko tributu erreal bat, kargatzen dena ondasun higiezinaren balioaren gainean, jarraikiz martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari, zehazki II. tituluko II. kapituluko 133.etik 158.era bitarteko artikuluei, biak barne (Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea).

Ordenantza honetan arautzen da aipatu foru legearen 140.4 artikuluan xedatzen den aukerako hobari berria, eta karga-tasa ezartzen da.

2. artikulua. Karga-tasa eta errenergua.

Karga-tasa bakarra izanen da udal-mugarte osorako: 1. eranskinean ageri dena.

3. artikulua. Hobariak familia ugariendako, guraso bakarreko familiendako edo gurasobakartasun egoeran daudenendako.

Zergaren kuotaren %50 bitarteko hobaria izanen da, adierazitako errenta-tarteen arabera, kasuan kasuko etxebizitza ohiko bizilekua denean familia ugariaren edo guraso bakarreko familiaren titular diren edo gurasobakartasun egoeran dauden subjektu pasiboendako. Hobari hori aplikatuko zaio soilik ohiko bizilekua den bizitegi-erabilerako hiri-unitateari.

Hobari hori aplikatuko zaie, orobat, kotizazio gabeko pentsioak dituzten zergadunei eta errenta bermatuaren edo bizitzeko gutxieneko errentaren hartzaile direnei.

Hobari hau egiteko baldintza izanen da subjektu pasiboaren errenta guztiak ez izatea lanbide arteko gutxieneko soldata halako lau baino gehiago (ez dira kontuan hartuko errenta salbuetsiak).

Errenta tartea eta hobariaren ehunekoak:

ERRENTA TARTEA	HOBARIA
4.500 eurotik beherako per capita errenta	%50
4.500,01 eta 5.500 euro bitarteko per capita errenta	%35
5.500,01 eta 7.000 euro bitarteko per capita errenta	%20

Errenta-tarteen araberako aurreko hobariaren ehunekoak kalkulatzeko, familiaren diru-sarrerara gordinak hartuko dira kontuan (baturik zerga-oinarri orokorra eta ondare-gehikuntzen saldo garbiaren zerga-oinarri berezia, hots, PFEZaren egungo aitortpen-ereduko 507 eta 524 laukiak), eta horiek zatituko dira familia-unitatea osatzen duten kideen kopuruaz.

Hobari hori erregutua da, eta zerga-onura horren titularrak higiezin bakar baterako soilik erabiltzen ahalko du, eta eskatzen den ekitaldi beretik aplikatuko da, baldin eta betetzen badira zergaren sortzapen egunean aitortua izateko baldintzak, eta eskaera egiten bada likidazioa irmoa eta onartua izan aurretik.

Eskatzaileak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du, nahitaez:

Etxebizitzarako hobaria familia ugariaren edo guraso bakarreko familiaren titular diren edo gurasobakartasun egoeran dauden subjektu pasiboendako, haien ohiko bizilekua denean:



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
j; Garcia Ximenez 36 - 31800

a) Eskabide sinatua, adierazten duena familia-unitatearen ohiko bizilekua dela kasuan kasuko hiri-unitatea, alegia, eskatzen den hobariaren xedeko hiri-unitatea, bizitegi-erabilerakoa. Eskabidea aurkeztu beharko da ekitaldi bakoitzeko lehen hiruhilekoaren barnean.

b) Administrazio eskudunak emandako ziurtagiria, titulua edo txartel ofiziala, ziurtatzen duena dagokion ekitaldirako zerga sortzen den unean (urtarrilaren 1a) subjektu pasiboa dela familia ugari baten titularra, guraso bakarreko familia baten titularra edo gurasobakartasun egoeran dagoen familia baten titularra.

c) Familia-unitateko kide guztien pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azken aitortpenaren edo aitortpenen fotokopia edo, bestela, Foru Ogasunaren ziurtagiria, adierazten duena aitortpena ez dutela egin ez zeudelako egitera behartuta. Bestela, familiak lortutako diru-sarrera gordinen zinpeko deklarazioa aurkeztuko du eskatzaileak, agiri bidez frogaturik.

Etxebizitzarako hobaria, kotizazio gabeko pentsioak dituzten edo Errenta Bermatua edo bizitzeko gutxieneko errenta hartzen duten subjektu pasiboendako, haien ohiko bizilekua denean.

a) Eskabidea, non jasoko baitira katastroko erreferentzia, etxebizitzari dagokion hiri-unitatea adierazirik, eta hobariaren xedeko ondasun higiezinaren helbidea.

b) Familia-unitateko kide guztien pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azken aitortpenaren edo aitortpenen fotokopia edo, bestela, Foru Ogasunaren ziurtagiria, adierazten duena aitortpena ez dutela egin ez zeudelako egitera behartuta. Bestela, familiak lortutako diru-sarrera gordinen zinpeko deklarazioa aurkeztuko du eskatzaileak, agiri bidez frogaturik.

Subjektu pasiboa ez da beharturik egonen agiriak aurkeztera, baldin Udalari lehendik eman badizkio beste izapide batzuetan. Kasu horretan, inguruabar hori eskabidean jaso beharko da, eta adierazi beharko da zer prozeduratan aurkeztu ziren.

Ohiko bizilekuaren helbidea aldatzeak berekin ekarriko du onartutako hobariaren eskubidea galtzea familia ugariarendako, eta zergaren kuota erregularizatu egingen da ekitaldi horretarako. Higiezin berrirako, ondorioak izanen dituen zergaldiaren lehen eguna baino lehen eskatu beharko da hobaria. Uneko urteko abenduaren 31 baino lehen aurkeztutako eskabidea.

Behin hobari fiskala emanda, indarrean izanen da uneko ekitaldirako, eta urtero eskatu beharko da berritzeko, ekitaldi bakoitzeko lehen hiruhilekoaren barnean.

Dena dela, Udalak agiri bidezko justifikazioa eskatzen ahalko dio onuradunari, hobaria izateko eskubidea egiaztatze aldera.

Subjektu pasiboek nahitaez jakinarazi beharko dute gertatzen den aldaketa oro, baldin eta eragina badu hobari honen ondorioetarako.

Hobari hau izateko, egunean egon beharko da Udalarekiko zorren ordainketan.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean jarriko da eta ondorio juridiko osoak sortuko ditu testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoan, eta indarrean segituko du berariaz aldatzen edo indargabetzen den arte. Ordenantza fiskal hau zati batean aldatuz gero, aldatzen ez diren artikuluek indarrean segituko dute.

26. ORDENANTZA: ORDENANTZA FISKALA, TASAK ARAUTZEN DITUENA HERRIKO JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBOA EDO APROBETXAMENDU BEREZIA EGITEKO, ENERGIA ELEKTRIKOA GARRAIATZEKO ETA BANATZEKO INSTALAZIOENTZAT, GASBIDEENTZAT ETA BESTELAKO HIDROKARBURUENTZAT



Espainiako Konstituzioaren 133.2 eta 142. artikuluetan eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 100. artikuluan emandako ahalmenak erabiliz (artikulu hori martxoaren 2ko 4/1999 Foru Legearen 1. artikuluan idazten eta aldatzen da; Nafarroako Aldizkari Ofiziala, martxoaren 12koa; foru lege horren bidez honako hauek aldatzen dira tasei, prezio publikoei eta enbargaezintasunaren araubideari dagokionez: 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Toki Ogasunei buruzkoa; 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioarena), eta bat etorri Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 105. eta 106. artikuluetan ezartzen denarekin (artikulu horiek martxoaren 2ko 4/1999 Foru Legearen 1. artikuluan idazten eta aldatzen dira), udal honek **"energia elektrikoa, gasa, ura eta bestelako hidrokarburoak garraiatzeko instalazioen herriko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa"** ezartzen du. Tasa hau honako ordenantza fiskal honek arautzen du, eta bertan ezartzen diren tarifak aplikatuko dira.

1. ARTIKULUA. Aplikazio-esparrua

Ordenantza honetan araututako tasa ordaintzera beharturik daude pertsona fisikoak edo juridikoak, sozietate zibilak, ondasun-erkidegoak eta gainerako entitateak, Nafarroako Tributuiei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren 25. artikuluan jasotzen direnak, baldin eta herriko jabari publikoaren erabilera pribatiboa egiten badute edo nolahi ere onura ateratzen badute haren aprobetxamendu berezi batekin, azalduko diren espezifikazio eta zehaztapenekin, edo halako onurak gozatzen ari badira jada. Ordenantza honen aplikazio-eremua Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 105.1 a) artikuluan (artikulu hori martxoaren 2ko 4/1999 Foru Legearen 1. artikuluan idazten eta aldatzen da) ezarritako honako tasa honen araubide orokorra da: herriko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa, udalerriko bide publikoetako lurzorua, lurpea edo lurgaina okupatzen duen enpresak ez badie ematen interes orokorreko zerbitzua herritar guztiei edo askori. Inguruabar horiek 105.1 c) artikulurako ezarrita daude.

2. ARTIKULUA. Zergapeko egitatea

Tasaren zerga-egitatea Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 100. artikuluan zehazten da (artikulu horren testua martxoaren 2ko 4/1999 Foru Legearen 1. artikuluan 4.k apartatuan finkatzen da): herriko jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia lurzoruan, lurpean eta lurgainean, batez ere honako hauek jartzeko:

- a) Energia garraiatzeko instalazioak, nahitaez behar dituzten elementu guztiekin, hots, besteak beste, lotura kaxak; dorre metalikoak; transformadoreak; energia elektrikoa, gasa, ura edo bestelako energia-hornidura garraiatzeko edo banatzeko instalazioak edo lineak; ponpatzeko instalazioak eta antzeko elementuak, zerikusia dutenak energiarekin eta direnak herriko jabari publikoaren aprobetxamenduak edo erabilerak, apartatu honetan jaso gabeak.



- b) Gasa, ura, hidrokarburoak eta antzekoak garraiatzeko instalazioak. Herriko jabari publikoaren aprobetxamendu berezia gertatuko da, betiere, aipatutako instalazioak erabili behar direnean eta horretarako jabari publiko orokorra okupatzen denean. Ordenantza honen ondorioetarako, herriko jabari publikotzat hartzen dira udal-mugartean dauden erabilera, jabari edo zerbitzu publikoko ondasun guztiak, baita herri-ondasunak ere, edo herriaren jabetza komunekoak direnak, eta, horregatik, salbuesten dira ondare-ondasunak.

Hain zuzen ere, honako hauek:

Energia elektrikoa eta gasa eramateko hariak, hodiak eta galeriak (kableak, horma-besoak, lotura, banaketa edo erregistrarako kaxak, transformadoreak, errailak, baskulak; eta salmenta automatikorako tresnak eta gisakoak barne) toki entitateko bide publikoetan edo jabari publikoko bestelako lurretan edo haien gainean.

Ordenantza honetatik kanpo geratzen dira, halaber, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 105.1.c) artikuluan jasotako egoerak.

3. ARTIKULUA. Subjektu pasiboak.

Tasen subjektu pasiboak dira, zergadun diren aldetik, pertsona fisikoak eta juridikoak eta entitateak, jasotzen direnak Nafarroako Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 25. artikuluan, baldin herriko jabari publikoa gozaten, erabiltzen edo aprobetxatzen badute.

Tasa honen subjektu pasiboak izanen dira, batez ere, azalduko diren kategoria eta motatan, pertsona fisikoak eta juridikoak eta entitateak, jasotzen direnak Nafarroako Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 25. artikuluan, baldin badira uraren, gasaren, elektrizitatearen eta hidrokarburoaren sektoreetako enpresak edo ustiatzaileak eta bereziki gozaten, erabiltzen edo aprobetxatzen badute herriko jabari publikoa norberaren onurarako, bat etorritik Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen kasuren batekin, esaterako energia elektrikoa eta hidrokarburoak (gasbideak, oliobideak eta antzekoak) garraiatzen, banatzen, zerbitzatzen eta merkaturatzen dituzten enpresak, baita haien elementu osagarriak ere, beharrezkoak direnak zerbitzu hori emateko udalerrri honetan, edo beste edozein tokitan baina horretarako erabiltzen edo aprobetxatzen badute herriko jabari publikoa, beren instalazioekin hura ukituz.

4. ARTIKULUA. Oinarriak, tasak, eta tributu kuotak.

Ordenantza honek araututako tasak honako hauek izanen dira:



Tributu-kuota izanen da eranskinean agertzen diren tarifetan jasotakoa, Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 105.1 a) artikuluan ezarritakoaren arabera, herriko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik. Herriko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik aurreikusten diren tasen zenbatekoa finkatzeko, erreferentziatzat hartzen da zer balio izanen lukeen merkatuan erabilera edo aprobetxamendu horretatik heldu den baliagarritasunak, baldin ukitutako ondasunak jabari publikokoak ez balira. Horretarako, oinarri hartu dira txosten tekniko-ekonomikoak, non agertzen baita zein den merkatuko balioa. Txosten hori espedientean jasoko da, behar den erabakia hartzeko.

Horretarako, eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 105.1 a) artikuluekin bat etorritz, kontuan harturik zer motatakoa den erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu zehatza, erabilera, jabari edo zerbitzu publikoko ondasunak eta herri-ondasunak okupatzen edo zeharkatzen dituzten elementuen zerga-kuota sortuko da (dorreak, euskarriak, zutoinak, hodiak, lineak, eroaleak, hedagailuak, etab.), zeren eta subjektu pasiboek ez eduki arren ukitutako lurren jabetza, herriaren aprobetxamendua edo aprobetxamendu publikoa murrizten baitute eta erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia lortzen baitute beren enpresa-jarduerarako.

Tributu-kuota honela kalkulatu da: hasteko, kalkulatu da zerga-oinarria, hots, okupazioaren, lurzorua eta instalazioaren balio osoa, azterlanak adierazten duen instalazio mota, xede eta klasearen arabera, eta horri aplikatuko zaio zerga-tasa, zeina azterlanak berak adieraziko baitu, kontuan harturik erabilera eta jabari publikoko ondasunak lagatzeari buruzko arauetako manuak, halako moduz non kuota ez den izanen instalazioen eta okupazioen ondoriozko zuzeneko balio bat (zeina baita zerga-oinarria), baizik zerga-oinarriari zerga-tasa aplikatzearen ondorio.

Horrenbestez, tasaren tributu-kuota jaso da azterlan tekniko-ekonomikoan, eta azterlana bera ordenantza honen zati da. Bertan, erabilitako metodologiarekin, tributu-kuota lortu eta jaso da kasu bakoitzerako.

Aprobetxamenduaren balioa (zerga-oinarria) honako hau da:

$$\text{Zerga-oinarria: } = V \times x$$

Hauek izanik:

V = Lurzorua merkatuko balioa gehi instalazioen balioa; honela adierazten da: euroak/m².

C = Metro lineal bakoitzeko okupazioa, metro karratuetan emana, ordenantza honen 1. eranskineko instalazio motaren arabera.

V honako hau izanen da:



- **Lurzoruaren balioa**, Katastroko datuen arabera: 3,00 euro/m², Altsasuko udalerrian mota guztietako aprobeixamenduetarako (gasa eta elektrizitatea), Altsasuren 2017ko balorazio-txostenean finkatua, 2017ko urriaren 16ko 69/2017 Ebazpenaren bidez onetsia.
- **Eraikuntzen** egungo balioa Balorazio Arau Tekniko Orokorren 30.2 arauaren arabera kalkulatu da, otsailaren 22ko 172/2010 Ebazpenean ezarritakoaren arabera (ekainaren 20ko 517/2013 Ebazpenaren bidez aldatua). Ebazpen horren bidez, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroan inskribatu beharreko ondasunak baloratzeko parametro orokorrak onesten dira.

Eraikuntzen ereduak balioaren honako taula hau ezartzen da:

Eraikuntza mota		Maila	d	r
Erabilera	Modalitatea	1		
29. Ez berariazkoa	Gas-hodiak	0,0733	1,00	1,00
	Linea elektrikoak	0,1733	1,00	1,00
	Oliobideak	0,3083	1,00	1,00

Balio horri (zerga-oinarria) ME koefizientea aplikatzen zaio, eta horrek, katastro-raudiaren arabera, balioa erdira murriztea dakar, merkatuaren erreferentzia neurtzeko eta, horrela, merkatuko balioa ez gainditzeko.

ME aplikatu ondoren, ateratzen den metro koadroko balioari instalazioaren metro lineal bakoitzean dagoen metro koadroen okupazioaren baliokidetasun-neurriak aplikatzen zaizkio, okupatutako lurzoria zehazteko. Hori horrela da lurzoruaren balioaren kasuan, eraikuntzen balioa euro/ml-tan ematen baita.

Higiezinaren balioa = Lurzoruaren balioa + Instalazioaren balioa

Aprobeixamenduaren balioa = Higiezinaren balioa x ME koefizientea x Okupazioa

Karga-tasari dagokionez, Auzitegi Gorenak gaiari buruz emandako jurisprudentziak behin eta berriz ezartzen duen bezala, **erabilera-intentsitatearen koefiziente bat** ezarri behar da (% 5eko tasa orokorraren gainean), erabilera-intentsitatearen arabera.

Koefiziente hori 0 eta 1 artean aldatu ahal izango da: erabileraren intentsitatea oso handia eta erabilera pribatiboaren intentsitatearen antzekoa bada, ezarritako koefizientea 1 izango da; erabileraren intentsitatea nulua bada, koefizientea 0 izango da, eta bitarteko erabileraren intentsitate-egoerarako, koefizientea $0 < \text{erabilera-koefizientea} < 1$ izango da.

Erabilera-intentsitatearen problematika hori, bereziki, erabilera-intentsitatearen arabera bereizitako bi eremu dituzten linea elektrikoaren kasuan gertatuko da: a) euskarri-eremua; b) eroaleen hegaldi-eremua.



Euskarriei, lurpeko lineei, amarratze-kutxei, transformadoreei, andelei, gas- eta hidrokarburo-kanalizazioei dagokienez, erabilera-intentsitatea erabilera pribatiboaren antzekoa da; beraz, kasu horietarako, erabilera-intentsitatearen koefizientea 1 izango da.

Hala ere, gidarien hegaldi-eremuaren kasuan, jabari publikoaren erabilera-intentsitatea txikiagoa izango da.

Laburbilduz, lurpeko lineen, gasbideen eta antzeko elementuen kasuan, erabilerearen intentsitatea erabilera pribatiboaren antzekoa denez, 1 erabilera-intentsitatearen koefizientea hartu da kontuan, eta erabilera-intentsitatea 0,5 baino txikiagoa den kasuetarako.

Ondorengo taulan, zerga-tasa orokorraren gaineko erabilera-koefizienteak agertzen dira:

Instalazioa	Eremua	Erabilera-intentsitatearen koefizientea
Goi-tentsioko airetiko lineak	Euskarria	1
	Eroaleen hegaldi-eremua	0,5
	Eroaleen hegaldia eta euskarria	0,5+0,5
Goi-tentsioko lurpeko lineak	Okupaturako eremua	1
Gas eta hidrokarburoak	Okupaturako eremua	1
Ura	Okupaturako eremua	1
Beste batzuk.	Okupaturako eremua	1

Eremu bakoitzari aplikatuko zaion zerga-tasa zehazteko, zerga-tasa orokorra erabilera-intentsitatearen koefizientearekin biderkatuko da.

Beraz:

- A) Erabilera-intentsitate handieneko elementuak = aprobetxamenduaren balioaren % 5**
B) Erabilera-intentsitate gutxieneko elementuak = aprobetxamenduaren balioaren % 2,5

Beraz, jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik urteko tasaren kuota formula honen emaitza izango da:

$$\text{Zerga-kuota} = \text{karga-tasa} \times \text{zerga-oinarria (linea elektrikoaren edo gas-eroanbideen metro linealaren balioa eurotan).}$$

Aurreko zehaztapenen arabera, honako hauek dira tarifen taulak:

1. TALDEA-ARGINDARRA		Lurgaineko tarifa % 2,50	Euskarriaren tarifa % 5
INSTALAZIOA		(€/ml)	(€/m2).
Goi-tentsioa (GT)	Kategoria berezia. Tentsioa $U \geq 400$ Kv	2,289	0,259
Goi-tentsioa (GT)	Kategoria berezia. Tentsioa $220 \text{ Kv} \leq U < 400$ Kv	2,044	0,366



Goi-tentsioa (GT)	Lehen kategoria. Tentsioa 110 Kv<=U< 220 Kv	1,879	0,554
Goi-tentsioa (GT)	Lehen kategoria. Tentsioa 66 Kv<=U< 110 Kv	1,837	0,650
Goi-tentsioa (GT)	Bigarren kategoria. Tentsioa 30 Kv<=U< 66 Kv	1,714	1,443
GT 3. kategoria	Hirugarren kategoria. Tentsioa 10 Kv<=U< 30 Kv	1,690	1,944
GT 3. kategoria	Hirugarren kategoria. Tentsioa 1 Kv<=U< 10 Kv	1,682	2,217

2. TALDEA–GASBIDEAK		Lurgaineko tarifa % 5
INSTALAZIOA		(€/ml)
GP	20 hazbete baino gehiago	2,125
	10 eta 20 hazbete artean	1,975
PE	4 eta 10 hazbete artean	1,825
	4 hazbete arte	1,600

5. ARTIKULUA. Zergaldia eta sortzapena.

1. Zergaldia bat dator urte naturalarekin, salbu herriko jabari publikoaren erabilera edo aprobetxamendu berezia hasten edo bukatzen denean; kasu horietan, hainbanaketa eginen da, hiruhileka, honako arau hauekin bat:

a) Alta ematen denean jarduera hasteagatik, ekitaldia bukatzeko falta diren hiruhilekoei dagokien kuota likidatuko da, alta ematen deneko hiruhilekoa barne.

b) Baja ematen denean jarduera uzteagatik, ekitaldiaren hasieratik iragan diren hiruhilekoei dagokien kuota likidatuko da, uztea gertatzen denekoa barne.

2. Ordenantza honetan arautzen den tasa ordaindu beharra honako hauetan sortzen da:

a) Herriko jabari publikoaren aprobetxamendu berrien edo erabilera pribatiboen emakidak edo baimenak badira, dagokion lizentzia eskatzen den unean edo ordenantza honetan zehaztutako aprobetxamendua egiten den unean, baldin eta derrigorrezko lizentziarik gabe egin bada.

b) Lizentziarik edo baimenik behar ez denean ordenantza honen 1. artikuluan aipatutako herriko jabari publikoaren aprobetxamendu berezirako edo erabilerarako, herriko jabari publikoaren aprobetxamendua edo erabilera pribatiboa hasten den unetik.



3. Herriko jabari publikoaren aprobetxamendu bereziak edo erabilera pribatiboak zenbait ekitalditan luzatzen badira, tasaren sortzapena urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean gertatuko da, eta zergaldia urte naturala izanen da.

6. ARTIKULUA **Kudeatzeko arauak**

1. Tasa, normalean, autolikidazio bidez eskatuko da. Subjektu pasiboari kuotak jakinarazteko eskatuko da, halaber, autolikidaziorik ez dagoenean edo subjektu pasiboak zerga-kuotak aurkitzeko elementuei eta gainerakoei buruzko aitortpenik aurkezten ez duenean.

2. Tarifen arabera ordaindu beharreko zenbatekoak likidatuko dira eskatutako edo egindako aprobetxamendu bakoitzeko eta erabilera pribatibo bakoitzeko, honela:

- a) 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera egindako aprobetxamendu berrien emakiden kasuan, aprobetxamendu bereziaz gozatzeko baimen-eskaerarekin batera, tasaren autolikidazio-inprimakia aurkeztu beharko da, behar bezala beteta, edo, bestela, artikuluko honen 2. apartatua aplikatuko da hurrengo paragrafoari dagokionez. Bestela, udal-idazkaritzan aurkez daitezke adierazpenaren elementuak, Udaleko funtzionario eskudunak behar den laguntza eman dezan zorra zehazteko. Kasu horretan, interesdunari abonu-agiri bat emanen zaio, kuota ordain dezan une horretan berean edo egoki den epean, abonu-agirian bertan adierazitako tokietan.
- b) Jada egiten ari diren edo baimendurik dauden aprobetxamenduen edo erabileren kasuetan, urteko lehenbiziko hiruhilekoan ordainduko da tasa. Ordainketa errazteko, edo subjektu pasiboak ez badu daturik ematen, Udalak behar den likidazioa egingen du, eta subjektu pasiboaren helbidera igor dezake likidazio-agiri bat, egoki dena ordaintzeko banku-entitate laguntzailean edo Udalaren kutxan. Nolanahi ere, aipatutako ordainketa-agiria ez jasotzeak ez du salbuesten tasa Udalak zehaztutako aldian ordaindu beharretik.
- c) Baldin eta zerga administrazioak antzematen badu aprobetxamenduren bat egin dela eta zergapekoak ez duela egin ez aitortpenik ez autolikidaziorik, berak egingen du likidazioa, eta gainera zerga-zehapena ezartzen ahalko du ordenantza honetan eta Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrean ezarritakoa ez betetzeagatik.

3. Subjektu pasiboak tasa helbideratzeko eska dezake, eta, halakoetan, aginduko da kargua egin dadila borondatez ordaintzeko epearen azken hamabostaldian.

7. ARTIKULUA **Tasak jakinaraztea.**



1. Ordenantza honetan aipatutako aprobetxamenduetan edo erabileretan, tributu-zorra interesdunari jakinaraziko zaio, autolikidazioa aurkezten den unean, edo, autolikidaziorik aurkezten ez bada, likidazioa jakinarazten den unean.

Aurreko apartatuan aurreikusitakoa gorabehera, baldin, autolikidazioa egiaztatu ondoren oker badago, likidazio osagarria egingen da.

2. Ordenantza honen xede diren aprobetxamendu bereziengatik edo erabilera pribatibo jarraituagatik tasen kasuan, zeina aldizkakoa baita, pertsonalki jakinaraziko da likidazio bidez, eta une horretatik aurrera ulertuko da alta eman dela zergadunen erregistroan. Hurrengo ekitaldietako tasa subjektu pasiboari jakinaraz dakioke banan-banan edo kolektiboki, errolda jendaurrean jarritz Udalaren iragarki-taulan, egoki den aldian, zeina iragarriko baita Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

3. Ordenantza honetan araututako aprobetxamenduak edo erabilera pribatiboak nahi dituzten pertsona fisiko edo juridikoez eta gainerako entitate interesdunek, edo kontzesio administratiboen edo bestelako legezko baimenen titularrek, ez badute nahitaezko (hala bada) udal baimenik, eskatu egin beharko dute, eta aplikatzekoak diren legezko tramiteak bete beharko dituzte, eta halakorik ez egiteak ez ditu salbuetsiko tasa ordaintzetik.

4. Behin ordenantzak aipatutako ondasunak okupatzea baimendurik, edo okupazio hori ezarririk, ez baldin bada zehatz adierazten aprobetxamenduaren edo erabileraren iraupena, ulertuko da luzatu egiten dela, ordenantza honen ondorioetarako, harik eta subjektu pasiboek baja-deklarazioa aurkezten duten arte.

5. Aprobetxamendua uzteko aitorpenaren aurkezpenak eragina izanen du tarifen epigrafeetan aipatzen den hurrengo denbora epe naturaleko lehenbiziko egunean. Aprobetxamendua uzteko aitorpena aurkezten ez bada tasa ordaintzen segitu beharko da.

8. ARTIKULUA. Arau-hausteak eta zehapenak.

Zergen arloko arau-hausteen kalifikazioari eta kasu bakoitzean behar den zehapenei dagokien guztian Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren VI. kapituluan xedatzen dena aplikatuko da.



I. ERANSKINA. METRO LINEAL BAKOITZEKO OKUPAZIO BALIOKIDEA (METRO KARRATUETAN) ADIERAZTEN DUEN TAULA,

Metro lineal bakoitzeko okupazio baliokidea (metro karratuak) adierazten duen taula, instalazio motaren arabera		
Instalazio mota		m2 / ml
ARGINDARRA	Linearen tentsioa	
	Tentsioa $U \geq 400\text{Kv}$	17,704
	Tentsioa $220\text{Kv} \leq U < 400\text{Kv}$	11,179
	Tentsioa $110\text{Kv} \leq U < 220\text{Kv}$	6,779
	Tentsioa $66\text{Kv} \leq U < 110\text{Kv}$	5,650
	Tentsioa $30\text{Kv} \leq U < 66\text{Kv}$	2,376
	Tentsioa $10\text{Kv} \leq U < 30\text{Kv}$	1,739
	Tentsioa $1\text{Kv} \leq U < 10\text{Kv}$	1,517
GASA ETA HIDROKARBUROAK	Hodiaren diametroa	
	20 hazbete baino gehiago	10,000
	10 eta 20 hazbete artean	8,000
	4 eta 10 hazbete artean	6,000
	4 hazbete arte	3,000
BESTE INSTALAZIO BATZUK		2,000
	Lurpeko m2 bakoitzeko	
	Lurzoruko edo lurgaineko (altuera) m2 bakoitzeko	1,000



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
 I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if948 5621 61
 FAX 948 56 38 55
 www.altsasu.net
 altsasu@altsasu.net
 j; Garcia Ximenez 36 - 31800

II. ERANSKINA TARIFEN TAULA

1. LINEA ELEKTRIKOAK

										Lurgaineko tarifa Euskarriko terifa	
1. TALDEA-ARGINDARRA		UNITATE BALIOA					Zerga-oinarria	Lurgain zerga-oinarria	Eusk. Zerga-oinarria	2,50%	5%
INSTALAZIOA		LURZORUA (€/M2) (A)	ERAIKUNTZA (B)	Baliokidetasuna (C)	LURZORUA	ONDASUN HIGIEZINA	ME=0.5	Eroaleak (€/ml)	Euskarria (€/m2)	Zerga-oinarria x zerga-tasa	Euskarriaren zerga-oinarria x zerga-tasa
		LANDA-LURRA / HIRI-LURRA	(€/ml)	(m2/ml).	(€/ML) (AxC)	(AxC)+B	((AxC)+B)xRM (€/ml)	((AxC)+B)xRM	((AxC)+B)xME/C	(€/ml)	(€/m2).
Goi-tentsioa (GT)	Kategoria berezia. Tentsioa U>=400 Kv	3	130	17,704	53,112	183,112	91,556	91,556	5,171	2,289	0,259
Goi-tentsioa (GT)	Kategoria berezia. Tentsioa 220Kv<=U<400 Kv	3	130	11,179	33,537	163,537	81,769	81,769	7,314	2,044	0,366
Goi-tentsioa (GT)	Lehen kategoria. Tentsioa 110Kv<=U<220 Kv	3	130	6,779	20,337	150,337	75,169	75,169	11,088	1,879	0,554
Goi-tentsioa (GT)	Lehen kategoria. Tentsioa 66Kv<=U<110 Kv	3	130	5,65	16,95	146,95	73,475	73,475	13,004	1,837	0,650
Goi-tentsioa (GT)	Bigarren kategoria. Tentsioa 30Kv<=U<66Kv	3	130	2,376	7,128	137,128	68,564	68,564	28,857	1,714	1,443
GT 3. kategoria	Hirugarren kategoria. Tentsioa 10Kv<=U<30Kv	3	130	1,739	5,217	135,217	67,609	67,609	38,878	1,690	1,944
GT 3. kategoria	Hirugarren kategoria. Tentsioa 1Kv<=U<10Kv	3	130	1,517	4,551	134,551	67,276	67,276	44,348	1,682	2,217



Altsasuko Udala
 Ayuntamiento de Alsasua
 I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if948 5621 61
 FAX 948 56 38 55
 www.altsasu.net
 altsasu@altsasu.net
 j;; Garcia Ximenez 36 - 31800

2. GASBIDEAK.

2. TALDEA-GASBIDEAK		UNITATE BALIOA					Zerga-oinarria	5,00%
INSTALAZIOA		LURZORUA(€/M2) (A)	ERAIKUNTZA (B)	Baliokidetasuna (C)	LURZORUA (A)	ONDASUN HIGIEZINA	ME=0.5	Zerga-oinarriax zerga-tasa
		LANDA-LURRA / HIRI-LURRA	(€/ml)	(m2/ml).	(€/ml) (B)	A+B	(A+B) x ME	(€/ml)
GP	20 hazbete baino gehiago	3	55	10	30	85	43	2,125
	10 eta 20 hazbete artean	3	55	8	24	79	40	1,975
PE	4 eta 10 hazbete artean	3	55	6	18	73	37	1,825
	4 hazbete arte	3	55	3	9	64	32	1,600



**27.ORDENANTZA ORDENANTZA FISKALA, TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN
GAINEN ZERGA ARAUTZEN DUENA.**

1. artikulua.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen II. tituluko IV. kapituluan, 159. artikulutik 166.era, biak barne, xedatutakoaren babespean ezarri da ordainarazpen hau.

Izaera eta zergapeko egintza

2. artikulua.

1. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga zuzeneko tributua da, eta mota horretako ibilgailuen titulartasuna zergapetzen du, bide publikoetan ibiltzeko gai direnak, haien mota eta kategoria edozein dela ere.
2. Zirkulatzeko gai den ibilgailutzat hartuko da kasuan kasuko erregistro publikoetan matrikulatu dena eta bertan baja eman ez duena. Aldi baterako baimenak eta matrikula turistikoa dituzten ibilgailuak ere gai izanen dira zerga honen ondorioetarako.
3. Ez dira zerga honen pean egongo, beren ereduaren antzinasunagatik erregistroan baja eman ondoren, salbuespenez, mota horretako erakusketetan, lehiaketetan edo lasterketetan zirkulatzeko baimena izan dezaketen ibilgailuak.

Salbuespenak

3. artikulua.-

1. Hauek daude zergatik salbuetsita:

a) Nafarroako Foru Komunitateko, Estatuko eta tokiko erakundeetako ibilgailu ofizialak.

b) Espainian kreditatuta dauden kontsuletzeko bulegoen eta karrerako funtzionario kontsularren ibilgailuak, baldin eta herrialde horietako herritarrak badira, kanpotik identifikatuta badaude eta hedaduran eta mailan elkarrekotasuna badago.

Halaber, Espainian egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak eta haien funtzionario edo kideenak, estatutu diplomatikoa dutenak.

c) Espainiako Gurutze Gorriaren eta DYA elkartearen anbulantziak eta osasun-laguntzarako zuzenean erabiltzen diren gainerako ibilgailuak.

d) Pertsona ezgaituak garraiatzeko irabazi-asmorik gabeko erakundeen izenean matrikulatutako ibilgailuak.



Altsasuko Udala

Bereziki ezokitutako ibilgailuak. Halaber, salbuetsirik egonen dira % 33ko edo hortik gorako ezgaitasuna duten pertsonen izenean matrikulatutako ibilgailuak, eta, gainera, inguruabar hauetako bat:

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
948 56 38 55 - 31800

1. Mugikortasun murriztua izatea, abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren II. eranskinaren arabera. Errege Dekretu horrek ezgaitasun maila aitortu, aitortu eta kalifikatzeko prozedura arautzen du.

2. Funtzio mentaletan definitasuna izatea, jardueraren %25eko mugak gutxienez onartzea dakarrena.

3.- Begi onenean ikusmen-zolitasuna 0,1 edo txikiagoa izatea, zuzentasunez, edo ikusmen-eremua 10 gradu edo gutxiagora murriztua izatea.

4. Adingabea izatea.

Salbuespena pertsona bakoitzeko ibilgailu bakarra izanen da.

f) Garraio publikoko zerbitzuari atxikitako hiri-autobusak, zergapetutako udalerriak emandako administrazio-emakidaren araubidean, edo zerbitzu hori batera emateko toki-erakundea.

g) Nekazaritzako inskripzio-txartela duten traktoreak, atoiak, erdi-atoiak eta makinak.

2. Artikulu honetako 1. zenbakiko e) eta g) letretan aipatzen diren salbuespenez baliatu ahal izateko, interesdunek baimena eman dezatela eskatu beharko dute, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta ongintza adieraziz. Toki entitateak salbuespena deklaratu ondoren, hori frogatzen duen agiria emanen da.

3. atalean aurreikusitako ondorioetarako, interesdunek, salbuespenaren xede den ibilgailuaren matrikula adierazten duen eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

-Nortasun agiriaren fotokopia: NAN edo AIZ.

-Nafarroako Autonomia eta Pertsonen Garapenerako Agentziak emandako ezgaitasun mailaren ziurtagiria.

-Mediku espezialistaren mediku-ziurtagiria, alegatutako beste edozein gorabehera egiaztatzen duena.

Subjektu pasiboak

4. artikulua.

Zerga honen subjektu pasiboak dira pertsona fisiko edo juridikoak, jaraunspen banatugabeak, ondasun komunitateak eta nortasun juridikorik ez duten gainerako entitateak. unitate ekonomikoa edo ondare berezia, zirkulazio baimenean ibilgailua haren izenean agertzen bada.

kuota

5. artikulua.

1. Urtero indarra duen tarifen taularen arabera eskatuko da zerga.

2. Udalak hobari hauek ezarri ditu zergaren kuotaren gainean:

a) %25eko hobaria ECO ibilgailuentzat.



Altsasuko Udala

b) %50eko hobaria "0 emisio" ibilgailuentzat.

Ayuntamiento de Altsasu

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.altsasu.net

altsasu@altsasu.net

j; Garcia Ximenez 36 - 31800

3. Hobari horiek lortu ahal izateko, ibilgailuetako titularrek, udalerrri honetan erroldatuta egon beharko baitute, kontzesioa eskatuko dute, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuradunaren arrazoia adieraziz, eta, agiri horiek aurkeztuta, alegatutakoa egiaztatuko dute.

4. Jasotako hobariak jaso ahal izateko, Udalaren onarpena beharko da aldez aurretik, eta eskaera egin eta hurrengo zergalditik aurrera izanen ditu ondorioak. Hala ere, matrikulazio berriko ibilgailuek 2 hilabeteko epea izanen dute, Trafikoko Burutzan alta ematen den egunetik hasita, urte horretan indarra duen hobaria eskatzeko.

5. Era berean, hobariak ordaindu ahal izateko, zerga ordaindu egin beharko da. Baldintza hori bete ezean, hobaria eman ahal izango da. Baldintza hori bete ezean, zerga galduko da.

Zergaldia eta sortzapena

6. artikulua.

1. Zergaldia, oro har, urte naturalarekin bat etorriko da. Ibilgailuak lehen aldiz erosten badira, aldi hori erosketa egiten den egunean hasiko da.
2. Zerga zergaldiko lehen egunean sorraraziko da.
3. Zergaren kuotaren zenbatekoa hiruhileko naturaletan hainbanatuko da, ibilgailua lehen aldiz erosten denean edo baja ematen zaionean.
4. Zergetan eragina duen helbide-aldaketa edo transferentziaren kasuan, kuota murrizteza izango da, eta zerga ordaintzera behartua egongo da urtarrilaren lehenean ibilgailuaren titular gisa ordaintzen duena, eta lehen erosketaren kasuetan, eskurapen hori egiten den egunean.

Kudeaketa

7. artikulua.

Altsasuko Udalak kudeatu, likidatu, ikuskatu eta bilduko du, bai eta zergak kudeatzeko bidean emandako egintzak berrikusi ere, ibilgailuaren zirkulazio baimenean ageri den helbidea bere udalerrrikoa denean.

8. artikulua.

1. Zerga hau autolikidazio bidez kudeatuko da, matrikulazioaren eta birgaitzearen ondorioz zergan alta hartzen duten ibilgailuak direnean, ibilgailuak Trafikoko Probintziako Burutzaren Erregistroan aldi baterako baja edo baja negatiboa eragin duenean, edo zerga ordaindu duela egiaztatu behar denean, Udalak oraindik likidatu ez badu.
2. Autolikidazioa aurkezten denean edo haren zenbatekoa Udalak baimendutako finantza entitateetan sartuz ordainduko da zerga.
3. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaindu edo salbuetsi dela frogatzen duen agiria Trafikoko Probintziako Burutzan aurkeztu beharko dute ibilgailua matrikulatu, birgaitu edo transferitu nahi dutenek.
4. Autolikidazioa behin-behinekoa izanen da, harik eta Udal Administrazioak egiaztatu arte hura zergaren arauak zuzen aplikatuz egin dela.

9. artikulua.

1. Aurreko ekitaldietan zirkulatzeko gai diren ibilgailu matrikulatu edo deklaratuak direnean, dagozkien kuoten bilketa ordainagiriak luzatuz egingo da, errolda edo urteko matrikula baten



Altsasuko Udala

arabera. Errolda horretan, zergari lotutako ibilgailu guztiak matrikulatuko dira, eta bat etorriko dira Altsasuko udalerrian, helbideratuta dauden pertsona edo entitateen izenean erregistro publikoan inskribatuta daudenekin.

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
31800

2. Ordainagiriak Udalak baimendutako finantza entitateetan ordainduko dira.

10. artikulua.

1. Ibilgailuaren baja suntsigarriaren kasuan, subjektu pasiboaren aldeko kuota proportzionalak eta behin-behineko likidazioan ordaindutako soberakinak zergaren subjektu pasiboei itzuliko zaizkie, baja etsigarriari eta ibilgailuaren matrikulazioari buruzko dokumentazioa aurkezten denean.
2. Halaber, kuota hainbanatu egingen da, modu berean, kasuan kasuko erregistro publikoan aldi baterako baja ematen denean, lapurtu, galdu edo borondatezko baja emateagatik.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Ordenantza honetan berariaz arautu ez den orotan, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea eta Udal honek onetsitako Ordenantza Fiskal Orokorra aplikatuko dira.

Bigarrena.- Ordenantza honek indarra hartuko du eta ondorio juridiko osoak sortuko ditu, testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, eta indarrean jarraituko du espresuki indargabetzea edo aldatzea erabaki arte.



28.ORDENANTZA ORDENANTZA FISKALA, ETXEBIZITZA HUTSEN GAINEKO ZERGA
ARAUTZEN DUENA

Oinarria

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen II. tituluko VIII. kapituluko 184.etik 191.era bitarteko artikuluetan, biak barne, xedatuaren babesean.

Zerga-egitatea

2. artikulua. Zerga-egitatea da udal-mugartean diren etxebizitzen titulartasuna, Etxe Hutsen Erregistroan alta emanda agertzen badira.

3. artikulua. Zergaren ondorioetarako, etxe huts gisa hartzen da Etxe Hutsen Erregistroan alta emanda agerturik, holakotzat deklaratu dena.

Subjektu pasiboak

4. artikulua. Zergaren subjektu pasiboak dira pertsona fisikoak eta juridikoak, jaraunspen jasogabeak, ondasun-erkidegoak, eta nortasun juridikorik izan ez arren, unitate ekonomikoa edo ondare berezia osatzen duten entitateak, baldin eta:

a) Etxebizitza hutsen gaineko jabetza-eskubidearen titular badira, etxebizitza horien gainean gozamenerako bestelako eskubide errealik ez denean.

b) Etxebizitza hutsen gaineko gozamenerako eskubide errealen baten titular baldin badira, eskubide hori jabeari ez dagokionean.

Salbuespenak

5. artikulua. Zerga honetatik salbuetsirik egonen dira honako kasu hauetan daudenak:

a) Etxebizitzen titularrak funtzionario publikoak badira, eta haiek etxebizitza dagoen herritik kanpora betetzen badituzte beren eginkizunak, aplikatzen ahal zaien legediari jarraikiz.

b) Etxebizitzen titularrak arrazoi teknikoak, antolamendukoak zein ekoizpenekoak direla medio edo, bestela, enpresaren jardunari dagozkion kontratuak direla bide edo toki-mugikortasunaren menpe daudelako, ohiko bizileku duten herritik kanpora aldi baterako joan behar izaten duten langileak badira.

c) Administrazio Publikoaren esku jarri diren etxebizitzak (Nasuvinsa edo kasuan kasuko entitatearen esku), gizarte-alokairurako erabiltzeko.



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

Betiere exentzia etxebizitza bakar batek izanen du.

if 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

j; Garcia Ximenez 36 - 31800

Zerga-oinarria

6. artikulua. Zerga-oinarria izanen da Hiri-lurreko Ondasunen gaineko Kontribuzioa ordainarazteko indarra duen bera.

Kuota

7. artikulua. Zerga honen kuota izanen da zerga-oinarriari karga-tasa aplikatu ondokoa.

Karga-tasa

8. artikulua. Karga-tasa izanen da ordenantza honen eranskinean agertzen dena.

Zergaren sortzapena

9. artikulua. Zerga lehen aldiz sortuko da etxebizitza hutsik dagoela deklaratzan duen kasuko ebazpena ematen denean.

Gero, zerga urte bakoitzeko lehen egunean sortuko da, Etxebizitza Hutsen Erregistroan etxebizitza alta emanda dagoen bitartean.

Kuotak seihilekokoak izanen dira, seihilekoak naturalak izanen direlarik, eta horien barnean, zatiezinak eta ezin murriztuak.

Subjektu pasiboek zera eskatu ahal izanen dute, dagokion espedientea izapidetuz: etxebizitza bete denetik aurrerako aldiari dagokion kuotaren zati proportzionala itzultzea.

Zergaren kudeaketa

10. artikulua. Zergaren ordainarazpena eginen da Etxebizitza Hutsen Udal Erroldan oinarriturik.

11. artikulua. Aurreko artikuluan xedatuaren ondorioetarako, Nafarroako Gobernuako departamentu eskudunak ofizioz jakinaraziko dizkio Tuterako Udalari Etxebizitza Hutsen Erregistroan gertatzen diren altak eta bajak, kasuko udal-mugarteari dagozkionak.

12. artikulua. Erregistroan alta emanda, Udalak titularrari jakinaraziko dio alta hori, zerga-oinarria eta karga-tasa indarduna adierazita.

13. artikulua. Zerga kudeatzeko, lur-ondasunen gaineko kontribuzioa kudeatzeko erabiltzen diren arau berak erabiliko dira, eta kasuko likidazioak eta kobrantza-dokumentuen igorpenak batera eginen dira.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

TARIFEN ERANSKINA

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
j; Garcia Ximenez 36 - 31800

Karga-tasa: % 1,5.

Karga-tasa bat bera izanen da udalerrri osoan.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

if 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
j; Garcia Ximenez 36 - 31800

ZERGAK

ZERGA	TASA 2024
Lurraren kontribuzioa	0.3311 %
JEZ	Ezarritako gehienekoa
IEOZ	4,22%
Lurren balio-gehitzearen gaineko zerga	Tasa 20,81%
Zirkulazioaren gaineko Zerga	Legeak finkatua
Etxebizitza hutsen gaineko zerga	1,5%